

Beldurrik gabe biziti



Beldurrik gabe lizi

**Asiloaren babesa, genero-arrazoiengatiko
jazarpenaren aurrean**

Argitalpen hau Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordeak (CEAR-Euskadi) egina da, proiektu honen baitan: *Genero-arrazoiengatiko jazarpena: Jatorriko herrialdeei buruzko informazioa asilo-eskubidearen esparruan.*

Finantziazioa:



CEA(R)
EUSKADI

Errefuxiatuen Laguntzarako
Batzordea Euskadin

Kristo kalea 9B – 5 48007 Bilbo
t 94 4248844 / f 94 4245938
ceareuskadi@cear.es
www.cear-euskadi.org



Argitalpenaren urtea eta lekua: 2013, Bilbo
Marrazkiak: Higinia Garay
Diseinua eta maketazioa: Erreka Multimedia S. Coop.
Inprimatzea: Printhaus
Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.
Lege-gordailua: BI-1654-2013



Argitalpen hau Creative Commons lizentziapean dago
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/deed.eu>

Itziar Caballero González, Raquel Celis Sánchez,
Mónica Fernández Vidal, Leire Lasa Fernández,
Inmaculada Múgica Flores eta Estefanía Pasarín Gayoso.

Laguntzaileak:
Patricia Bárcena eta Paula Vázquez Castro
Proyecto Esperanza eta Women's Link Worldwide
NAHIA taldea





Eskerrak Isela, Clara, Karem, Nicole, Omar, Alexandra, Serge, Gilbert, Precious, Dorcas, Hope, Charlotte eta Naomíri, eskuzabaltasun handiz azaldu dizkigutelako beren esperientziak, nahigabeak eta desirak; indarberitu egin direlako eta, bizi izandakoa bizi izanda ere, irribarre egiten jarraitzen dutelako; asiloaren bidea erakutsi digutelako.

Eskerrak Women's Link Worldwide elkarteari eta Proyecto Esperanzari, beren jakintzen eta lanaren berri emateagatik.

Eskerrak Aldarteri eta Iniciativas de Cooperación y Desarrollori, desirak ahatz ez ditzagun eztabaidatzeagatik, hausnartzeagatik eta proposamenak egiteagatik.

Eskerrak CEAREko eta CEAR Euskadiko kideei, asilo-eskubidearen beharrik egongo ez den mundu batekin amesteagatik eta egunero helburu hori lortzeko lan egiteagatik.










Duintasunez eta indarkeriarik gabe bizitzeko leku baten bila dabilzanei

“Maizegi asiloa espetxe izaten da, pertsonak babestuta egon beharrean preso bilakatzen dira. Beste norabait iristean, ingurura begiratu eta inor ez zarela konturatzen zara. Ez dago lagun zaitzakeen babes-sarerik. Tiraniatik ihes egitea lortu duzu, beldurrez beteta bizi zara eta amets egiten duzu. Asiloan, gauzarik garrantzitsuenak adeitasuna, babesa eta maitasuna dira. Asiloa itxaropenaren itsasontzia da”.

Rigoberto Jara

Aurkilidea

	Aurkezpena	13
	Asilo-eskubidea generoaren ikuspegitik	19
	Feminizidioa	27
	Emakumeen mutilazio genitala eta behartutako ezkontza	39
	Pertsonak sexu-esplotaziorako salerostea	49
	LGTTBI pertsonak jasaten duten jazarpena	63
	Bibliografia	91

aurkezpena



Emakume beltz batekin egin dugu topo kalean. Nor ote da? Nondik etorri ote da? Ez zen jaiio Gibraltarko itsasarteko hondartza batean. Ausartzen al gara nor den jakitera? Zergatik etorri zen galdetzeraz? Clarari aurrez aurre begiratzera? Besteen berri izatera? Clarak mutilatuta alde egin zuen bere jaioterritik. Han utzi zituen behartutako ezkontza bat eta bere alaba maiteak. Bere alabatxoak. Eta mutilatuta iritsi zen hona, mutilazioa ez baita desagertzen. Gorputzaren zati bat da desagertzen dena. Baina arimak badirau.

Isela ez zuten mutilatu. Dena den, beste zenbait pertsonak jasandako krimenen berri jakin zuen. Ciudad Juárezen emakumeak kontsumitzen dituzten botere-taldeak salatu zituen. Emakumeak kontsumitu egiten dituzte. Sexu-indarkeria, tortura, heriotza. Erabili eta bota. Kapitalismoak eta patriarkatuak bat egiten dute, feminizidioa gauzatzeko eta horren arduradunak ez zigortzeko.

Liburu honetan, hainbat emakumek bizi izandakoa jaso dugu; *iritsi diren emakumeak* direla esan nahi genuke. Baina iritsi ez zirenek bizi izandakoa ere jaso dugu. Adibidez, Preciousek: itsasoan hil zen alabarekin, salerosketa-sare batetik ihes egiten saiatu zenean. Asiloa eskatu zuen Marokon. Laguntza eskatu zion patera geldiarazi zuen Guardia Zibilari. Inork ez zion jaramonik egin.

Dena den, hori ez da Preciousi bakarrik gertatutako zerbait. Egoera hori bera jasan behar izan zuten Charlottek, Naomik, Dorcasek, Hopek eta salerosketa-sareetan eroritako milaka emakumek. Munduan irabazi gehien ematen duen negozioetako bat da pertsonen salerosketa, eta Espainia da bezerorik onenetarikoa. Kapitalismoa eta patriarkatua beti daude lotuta.

Karem eta Nicole ere emakumeak dira, lesbianak. Gizonekin beharrean, emakumeekin elkartzea erabaki dute. Patriarkatuaren aurkako beste probokazio bat. Karabineroak ziren biak, Txileko poliziak. Han, mari-mutiltzat, lizuntzat eta perbertutizat hartzen zituzten. Joatea egokitu zitzaion. "Egokitu" egin zitzaion. Hitz horrek loteria ekartzen du gogora. Egoera horren aurrean zerbait egiteko aukera ekartzen du gogora: joatea

egokitzen bazaizu, alde egin behar duzu; bestela, asko sufritzen duzu edo hil egiten zara. Horri buruzkoa da Karemi eta Nicoleri gertatutakoa, baina baita borrokari, erresistentziari eta aldaketari buruzkoa ere.

Liburu honetako protagonista bakarrak ez dira emakume iheslariak, edo iheslari izan zitezkeenak, edo izan behar zutenak. Izan ere, zenbait protagonista ez dira emakumeak. Gizonak dira eta ez dira gizonak. Aukeratu egin nahi dute: beren identitatea, gorputza, sexualitatea eta rola aukeratu nahi dituzte, eta horrela, beren eskubideak erabili. Sistemaren aurkako lotsagabekeriak.

Liburu honetan, badauden pertsonen eta ez dauden pertsonen buruz hitz egiten da. Haietako batzuk ezagutu ditugu, eta begietara begiratu diegu. Eta beste batzuk, berriz, egon badaudela bakarrik dakigu. Ez ditugu ezagutzen, baina aintzat hartzen ditugu. Eta, beste behin, gure lanaren garrantzia erakusten eta gogorarazten digute.

Alexandra bulegora etorri zen, bere adatsarekin eta orpodun zapatekin, emakume ederra zela erakusteko irrikaz. Berak jakin gabe, gure feminismoa eskatzera etorri zen, ezezagunarekiko errespetua eskatzera: transexualitatea, transgeneroa, trabestismoa. Beldurtu egiten gaitu horrek guztiak, gure identitatea bera ere zalantzan jartzera eramaten gaituelako.

Omar, Serge eta Gilbert ere oso eskuzabalak izan ziren, haiek jasandako jazarpenaren berri eman zigutelako. Gizonak maite dituzten gizonak dira, eta beren desirak eta bizitzak zer nolakoak diren kontatu nahi izan ziguten. Eta horrexegatik "egokitu" zitzaion Palestinatik, Kamerundik eta Kubatik joatea. Leku askotatik. Aurre egin diote gizartean baztertuta izateak dakarren izugarizko bakardadeari; beldurratik, zu zeu nor zaren ezin esan ahal izateak eragindako bakardadeari; zauriak etxean garbitzeak sortutako bakardadeari. Baina baita ere bidaiaren bakardadeari; iraindu, zauritu eta baztertu zintuen herrialdera itzuli behar ez izateko, Espainiako edozein hiritan ezkutatzeko dakarren bakardadeari. Asiloa, zenbaitetan, azken itxaropena izaten da.

Kapitalismoa, patriarkatua eta heteronormatibitatea. Inposizio sexuala: jaiotzean genero jakin bat egokitzearen oharkabeko indarkeriatik, torturen eta hilketen indarkeria basatiraino. Arausare bat dago, gure erabakitzeak aukera mugatzen duena: adibidez, norberaren identitatea (emakumea, gizona, edo bi horietako bat guztiz ez izatea edo batere ez izatea); identitate horren arabera izan beharreko rola; subjektibotasuna (sentitzea eta pentsatzeko modua, norberaren generoaren arabera ala ez); sexu-joera (nahiago izatea beste sexuko pertsonak, sexu berekoak edo bietakoak); sexualitatea (sexua senar-emaztearekin izatea ala ez, bikotekidearekin edo eza-gunekin izatea...); eta ugalketa (seme-alabak izateko edo ez izateko eskubidea, non, nola eta norekin...).

Sare hori hierarkikoa da, eta horretan, emakumeak *salgarriagoak*, *masakragarriagoak* eta *bortxagarriagoak* dira. Gainera, bi sexu bakarrik daude, eta elkarren aurkakoak dira: gizona izan eta emakume bat desio izatea; emakumea izan eta gizon bat desio izatea. Bestalde, sare horretan, emakumeak egokitu ohi zaizkion elementuak bere egiten dituzten gizonak jazar-tzen dira batik bat: gizonak desio dituztenak; edo emakumeak bezala "jokatzen" dutenak; edo gizon izan nahi ez dutenak...

Matxismo amorratuaz, etengabeaz, agerikoaz eta basatiaz ari gara. Patriarkatuaz ari gara, baita heteronormatibitateaz ere. Azken finean, asilo-eskubidearen arloan "genero-arrazoiengatik jazarpen" esaten diogunaz ari gara. Mutilazio genitalak eta behartutako ezkontzak horrekin zerikusia dute. Pertsonen salerosketak horrekin zerikusia du. Feminizidioak horrekin zerikusia du. Homofobiak eta transfobiak ere horrekin zerikusia dute.

Nondik heltzen diogu argitalpen honi? Zein da gure ikuspuntua?

CEAR-Euskadin nazioarteko babesa behar duten edota baztertuta gelditzeko arriskuan dauden iheslarien, lekualdatuen, aberrigabeen eta etorkinen giza eskubideak eta garapen osoa babesten eta sustatzen egiten dugu lan. 20 urte baino gehiago

daramatzagu asilo-eskubidea defendatzen eta, bide horretan, gure borroketako bat izan da (eta izaten jarraitzen du) babes hori aitor diezaieten genero-arrazoiengatik jazarriak diren pertsonen.

Asiloaren nazioarteko babesaren muina da Errefuxiatuen Estatuari buruzko Genevako Konbentzioa (1951), eta haren New Yorkeko Protokoloa (1967). Tresna horiek honela definitzen dute errefuxiatua: *Arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edota iritzi politikoagatik jazarria izateko arrazoizko beldurra izanik, bere herrialdeetik kanpo dagoen pertsona eta herrialde horren babesik jaso ezin duena edo, beldur horiek direla-eta, haren babesik jaso nahi ez duena.*

Azken urteotan, Espainiak jazarria izateko beste arrazoi batzuk jaso ditu bere barne-legedian. Adibidez, generoarekin lotutako giza eskubideen urraketak barne hartu ditu, batik bat erakunde, mugimendu eta kolektibo sozial eta feministek egindako lanari esker. Generoaren dimentsioak jazarpen-mota edo eragindako kalte-mota zehaztu dezake, bai eta jazarpenaren arrazoiak ere.

Urte morderoa daramagu asilo-eskubidea eskatzen genero-arrazoiengatik jazarriak diren pertsonentzat. Erakunde askoren laguntzarekin egin dugu, feminismotik eta giza eskubideekiko erabateko konpromisotik abiatuta. Bide horretan jaio zen NAHIA. Talde hori osatzen dute ALDARTE arretazentroak, INICIATIVAS DE COOPERACIÓN Y DESARROLLO aholkularitzak eta CEAR-Euskadik. Espazio horretan, genero-ikuspegiari eta sexu-aniztasunari buruz hausnartzen dugu.

NAHIA¹ uste dugu generoa analisi-kategoria bat dela, gorputz biologikoen arteko desberdintasunak eta haien ezagutze sozialak hobeto ulertzen laguntzen duena. Ikuspuntu antropologiko batetik begiraturik, gizarte bakoitzak sexu-desberdintasunaz egiten duen interpretazio kulturala eta historikoa da generoa. Gure ustez, desberdintasun anato-

¹ Generoa, sexua eta identitatea definitzeko, NAHIA taldearen Los deseos olvidados argitalpenean oinarritu gara. Ikus bibliografia.


mikoak ez dira erabakigarriak, kulturak desberdintasun horiek nola interpretatzen dituen baizik.

Gure gorputzen artean desberdintasun anatomiko naturalak eta biologikoak daude, eta generoak agintzen digu nola interpretatu gorputz horiek, esanahia ematen baitie. Zerk pentsarazten digu emakumeak ala gizonak garela? Zertan oinarritzen gara geure buruaren pertzepzio hori izateko? Emakume edo gizon izatearen esanahiaren pertzepzio sozialik izango ez bagenu, nola erabakiko genituzke gure identitatea eta desirak?

Sexua gizarte-erakuntzatzat hartzeak azpikoz gora jartzen du benetakotzat definitutakoa, eta zalantzan jartzen du gaur egun nagusi den biko logika; hau da, 'bi sexu' eta 'bi genero' kontzeptuetan oinarritzen dena. NAHIA taldean generoak aldarrikatzen ditugu, pluralean; izan ere, gure ustez, generoa anitza da eta ezin da mugatu eraikitako bi sexuetara (gizona eta emakumea) eta ikasitako bi generoetara (gizentasuna eta emakumetasuna). Hortaz, gizon edo emakume izatea, gizentasuna eta emakumetasuna bezalaxe, ez dira kategorია itxiak eta aldagaitzak.

Pentsatzen dugu patriarkatuak, gizonen nagusitasuna eta emakumeen mendekotasuna sustatzeaz gain, beste identitate-modu batzuen aurkako jarrerak bultzatzen dituela (transsexualitatearen eta transgeneroaren aurkakoak, adibidez), bai eta "araz kanpoko" sexualitateen aurkakoak ere (homosexualitatearen eta bisexualitatearen aurkakoak, alegia). Beraz, patriarkatuak eta heteronormatibitateak eragina dute norberaren identitatea eraikitzeke orduan; izan ere, egitura hegemoniko, hierarkiko eta baztertzaille horrek garrantzi handia du pertsonengan, eta identitate jakin batzuk lehenesten ditu.

Eduardo Ruiz Vieytezek azaltzen duenez, identitateek *zenbait elementu komun dituen gizarte-talde bateko kide izatearen sentimendua (erreal edo irudizkoa) ematen dute*. Gerard Coll-Planasen esanetan, *geure buruarentzat eta besteentzat posible eta ulergarri egiten gaituzte* identitateek. Hala, identitateak ezinbestekoak dira gizartean bizitzeko; dena den, berekin dakarte identitate horiek osatzen dituzten pertsonak sailkatzea eta estereotipatzea.





Generoaren eta sexu-aniztasunaren ikuspuntutik lan egiten dugu guk; izan ere, esparru teoriko bat behar dugu, *bi sexu* eta *bi genero* ideia gainditzen lagunduko diguna eta *gizon* eta *emakume* izeneko unibertsoaren aniztasuna ulertzeko eta ageriko egiteko aukera emango diguna. Ikuspuntu horretatik heltzen diogu guk asilo-eskubidearen alde lan egiteko zereginari. Gainera, sexualitateak eta generoak elkarri nola eragiten dioten aztertzen dugu, bai eta horiek biek zer zerikusi duten ere berdintasunik eza eragiten duten beste bektore batzuekin (adibidez, etnia, adina, erlijioa, gizarte-klasea eta azalaren kolorea).

Genero-arrazoiengatiko jazarpena

Asilo-eskubidearen nazioarteko babesaren ikuspuntutik, honela defini daiteke jazarpena: giza eskubideak larriki, sistematikoki edo etengabe urratzea. Diskriminatzea eta tratu okerragoa ematea jazarpenaren baliokide izan daitezke, eta beraz, kasu horietan ere nazioarteko babesa beharrezkoa izan daiteke. Genero-arrazoiengatiko jazarpena gertatzen dela esaten dugu, baldin eta giza eskubideen urraketek zerikusia badute pertsona bati bere genero-identitateagatik (emakumezkoa, gizonezkoa, transexuala...) edo joera sexualagatik ematen zaion rolaekin.

Emakumeek eta “araz kanpoko” pertsonak (hau da, arauekin bat ez datozen identitatea eta sexualitatea dituztenek) diskriminazioa eta jazarpena jasaten dituzte, batik bat beren sexualitatea, ugaltzeko gaitasuna eta gorputza kontrolatuz. Testu honetan LGTTBI emakumez eta pertsoez arituko gara (lesbianak, gayak, transexualak, transgeneroak, bisexualak eta intersexualak), nahiz eta askori sigla hori mugatuegia iruditzen zaien eta ez diren harekin identifikatuta sentitzen.

LGTTBI emakumeek eta pertsonak jasaten dituzten jazarpen-modu gogorrenetariko batzuei helduko diegu, gure bisa lortezinak, gure patruiliariek eta gure alambre-sareak topatu dituzten iheslariek kontatutako bizipenen bidez •

Asilo-eskubidea
generoaren
ikuspegitik



Asilo-eskubideari buruzko lehen erreferentzia arauemailea Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean agertu zen². Haren ondoren, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmenak (1951) eta New Yorkeko Protokoloak (1967), beste tresna batzuekin batera, errefuxiatuen babeserako nazioarteko zuzenbidea osatu dute, eta horretan oinarritu dira legedi nazionalak.

Espainiak 1979an egin zuen bat Genevako Hitzarmenarekin. 1984an asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzeko lehen

legea onartu zuen, eta hainbat aldaketaren ostean, hura ordezkatzeko lege berri bat sortu zuen 2009. urtean.

Egungo asiloaren legean³ jasota dagoenez, generoagatik edo sexu-joeragatik jazarria izan denari asiloa emango zaio⁴. Aitorpen formal hori aurrerapauso handia da aurreko legearekin alderatuta. Gainera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiten du eta LGTTBI pertsonak jasaten dituzten erasoak aintzat hartzen ditu.

Jatorriko herrialdeko egoera

Hala eta guztiz ere, jazarpena jasateko beste arrazoi batzuen kasuan ez bezala (arrazoia, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-taldea eta iritzi politikoa, alegia), asiloaren legeak dio jazarpena ez dutela generoak eta sexu-joerak berez eragiten, baizik eta jatorriko herrialdeko egoeraren baitan dagoela⁵.

Pertsona batek asiloa eta babesa jaso ditzan, arrazoizko beldurra izan behar du eta beldur hori izateko arrazoiak frogatu behar ditu. Organo eskudunak kasua aztertzen du, pertsona horrek beldurra ote duen eta beldur hori gertakari frogagarriek eragin ote duten egiaztatzeko; hau da, bere inguruan ihes egin izana justifikatzen duen arrazoirik ote dagoen ikusteko. Dena den, gertakari horiek ez dute zertan izan behar jatorriko herrialdeko egoera.

Gainera, hainbat eskualdetan giza eskubideen alde diharduten erakundeek eta gizarte-taldeek adierazi dutenez, oso zaila da giza eskubideen urraketari buruzko informazio sinetsgarria jasotzea; izan ere, eskubide horiek oraindik ez dira osotasunean aintzat hartzen, estatuko eta estatuz kanpoko egiturek ezkutatu egiten dituzte, eta gertatutako argitzeko eta errudunak epaitzeko ikerketak jazarria izateko arriskua dakar berekin.

Herrialde “seguruak”

Kezkatu egiten gaitu Europar Erkidegoko herritarrek Espainian asiloa eskatzeko eskubiderik ez izateak; izan ere, azken asiloaren legeak ez die babesa eskatzeko aukerarik ematen. Gainera, kanpo uzten ditu “segurutzat” jotako herrialdeetako pertsonak⁶. Kasuak banaka-banaka aztertu gabe baztertu

² 14. atala: “Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea”.

³ *Urriaren 30eko 12/2009 Legea, asilo-eskubidea eta ordezeko babesa arautzen dituen.*

⁴ Atariko titulua, 3. artikulua: *Errefuxiatuaren definizioa. Errefuxiatu-izaera aitortzen zaio arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, iritzi politikoagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik, generoagatik edo sexu-joeragatik jazarria izateko arrazoizko beldurra izanik, bere herrialdetik kanpo dagoen eta herrialde horren babesik jaso ezin duenari edo, beldur horiek direla-eta, haren babesik jaso nahi ez duenari; bai eta nazionalitatearik ez duen, goian adierazitako arrazoiren batengatik ohiko bizileku zuen herrialdetik kanpo dagoen eta herrialde horretara itzuli ezin duen edo, beldur horiek direla-eta, itzuli nahi ez duen aberrigabeari ere, baldin eta ez badago 8. artikuluan jasotako esklusio-kausaren batean edo 9. artikuluko ukatze- edo errebotkatze-kausaren batean.*

⁵ Grupo I. titulua, 7. artikulua. *Jatorriko herrialdeak bizi duen egoeraren baitan, gizarte-talde kontzeptuak barne hartuko ditu sexu-joera edo -identitatea eta/edo adina bereizgarritzat dituzten taldeak, baina alderdi horiek berez ezin dute artikulua hau aplikatzea ekarri (...). Era berean, jatorriko herrialdeak bizi duen egoeraren baitan, barne hartuko dira genero-arrazoiengatik edo/eta adinarengatik jazarria izateko arrazoizko beldurra dela-eta beren jatorriko herrialdetik ihes egin duten pertsonak, baina alderdi horiek berez ezin dute artikulua hau aplikatzea ekarri.*

⁶ (...) Kontseiluaren 2005/85/CE zuzentarauaren 27. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez eta, hala badagokio, Europar Batasunak osatzen duen zerrendarekin (...).

daitezke asilo-eskaerak, eta beraz, ez da betetzen Genevako Hitzarmenean ezarritakoa.

Murrizketa horiek Espainiara asilo eske iristen diren iheslari guztiei eragiten diete, eta bereziki liburu honetan aipatzen ditugun pertsoneri. Emakumeek eta LGTTBI pertsonen jazarpena eta diskriminazioa jasaten dute Europar Erkidegoan eta beste zenbait herrialde demokratikotan, eta gainera, horietako herrialde batzuetako gobernuak ezin diete babestu edo ez diete babestu nahi izaten. Sexu-esplotaziorako salerositako emakumeak, Nigeriatik ez ezik, Errumaniatik eta Europako beste leku batzuetatik ere etortzen dira. Gainera, genero-indarkeriako kasu asko eremu pribatuan, familian edo komunitatean gertatzen dira, eta beraz, ez dira barne hartzen jatorriko herrialdeetako testuinguru politikoa eta soziala aztertzen dituzten giza eskubideen arloko txostenetan.

Azken hamarkadotan eta herrialde askotan, aurrerapen handiak egin dira gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan, eta LGTTBI pertsonen eskubideak ere aitortu dira. CEAR-Euskadiren ustez, horrek guztiak askatasunarekiko eta duintasunarekiko errespetu handiagoa ekarri badu ere, ez da nahikoa pertsona horiek erabat babesteko. Ezin dugu alde batera utzi eskubideen titulartasunaren eta eskubide horiek erabiltzeko aukeraren arteko hesia.

Ongizate-estatua desegiten ari da European, eta horrek berekin ekarriko du oinarrizko eskubideak are gehiago murriztea, sexu- eta ugalketa-eskubideak barne. Hain zuzen, horixe da Espainian jada gertatzen ari dena.

Iraketik

2009. urteaz geroztik ezin da eskatu asiloa Espainiaren diplomaziako misioetan eta kontsularen bulegoetan. Sorterritik kanpo zeuden pertsonen bakarrik erabil zezaketen bide hori, eta oso intzidentzia txikia zuen praktikan. Hala eta guztiz ere, babesa lortzeko tresna garrantzitsua zen, batez ere Europar Batasunak mugak kontrolatzeko ardura militarren, enpresa pribatuen eta giza eskubideak errespetatzen ez dituzten beste herrialde batzuen esku utzi duen honetan.

Espainiako gobernuak arrazoi batengatik ezabatu zuen aukera hori legetik: Egipton duen enbaxadan babes-eskaerak egin zituzten irakiar iheslari askok eta askok, beren herrialdetik alde egin behar izan zutelako Espainiak berak bul-tzatutako gerra baten ondorioz. Neurri hori bidegabea da, eta emakumei eta LGTTBI pertsoneri eragiten die bereziki.

Emakumeek ez dute ihes egiten gizonen baldintza berberetan. Bidean, agintarien eta haiekin ihes egin duten gizonen abusu fisikoak eta sexualak jasateko arriskua dute. Emakume horietako asko salerosketa-sareek harrapatzen dituzte, eta sexualki edo laboralki esplotatuak izaten dira. LGTTBI pertsonen ere urrakortasun- eta diskriminazio-egoera larriak jasaten dituzte, iraindu eta jazarri egiten dituzten herrialdeetatik igaro edo bertan gelditu behar izaten dutelako. Esate baterako, transexual gehienek ez dituzte beren identitatearekin bat datozen dokumentuak, eta horrek izugarri areagotzen ditu leku batetik bestera joateko zailtasunak eta agintarien abusuak jasateko arriskua.

Zenbait aurrerapen

Hala ere, ez ditugu alde batera utzi nahi legeak ekarritako zenbait aurrerapen, generoagatik jazarritako pertsoneri asilo-eskubidea aitortzeaz gain (nahiz eta murrizketak dituen). Espainia pixkanaka onartuz joan da estatuko kideek eragiten ez dituzten indarkeria-egoeretatik ihes egiten duten pertsonen kasuak; hala nola komunitateak eta familiak eragindakoak. 2009ko asiloaren legeak berariaz aipatzen ditu estatukoak ez diren eragileak, "jazarpen-eragile edo kalte larrien eragile" deiturikoak. Oso aurrerapauso garrantzitsua da esparru pribatuan eta komunitarioan jazarriak direnentzat.

Asiloaren arloan funtsezkoa da jakitea zer garrantzi duen jatorriko herrialdeak jazarpenean. Espainiak iheslariak babesteko betebeharra du estatua bera bada jazarpena egiten edo sus-tatzen duena, bai eta estatu horrek jazarpena onartzen badu, edo galarazi nahi ez badu edo ezin badu ere.

Halaber, oso garrantzitsua da jakitea zer ezaugarri ematen dizkion biktimagileak biktimari. Esate baterako, talde homo-

foboek ez dute jazartzen pertsona bat homosexuala izateagatik bakarrik; homosexual itxura duelako eta “maritxua” delako ematen dizkioten ezaugarriengatik ere bai. Berdin zaie zein den pertsona horren benetako identitatea edo joera sexuala. Jazarpen-eragilearen pertzepzioak ez dira beti errealak izaten. Testuinguru askotan, emakumeak talde desberdin bat izango balira bezala ikusten dituzte, eta gutxiago direla, saldu egin daitezkeela eta gizonen menpe daudela iruditzen zaie.

Era berean, legeak ezartzen du, premiarik izanez gero, administrazioak beharrezko neurriak hartuko dituela asiloa eskuratzeko elkarrizketetan, elkarrizketatutako pertsonak bere sexuaren arabera tratua jaso dezan. Gainera, lege horrek berak adierazten duenez, kontuan hartuko dira urrakortasun-egoeran dauden eta nazioarteko babes eskatu edo eskuratu duten pertsonen egoera espezifikoa. Kasu horien artean daude, besteak beste, haurdun dauden emakumeak, tortura, bortxaketa edo indarkeria psikologiko, fisiko edo sexual larria jasan dutenak, eta pertsonen salerosketa-sareen biktimak.


Beste aukera bat ere barne hartzen du legeak: babes-estatu-tua duten pertsonen kasuan, babes hori familiako kide guztiek jaso ahal izango dute. Artikulu horretan, gainera, honela dio: “senar-emazteak edo antzeko afektibitate- eta bizikidetzaharreman baten bidez hari lotutako pertsonak”. Nabardura hori funtsezkoa da LGTTBI pertsonentzat; izan ere, askotan, jatorriko herrialdean ez dute bikotekidearekin ezkontzeko eskubiderik izaten.

Ezkutuko homofobia

Nolanahi ere, deigarria iruditzen zaigu legearen idazleek ondoko azalpena eman izana edo horretarako beharra sentitu izana: “Inoiz ez da sexu-joeratzat hartuko Espainiako antolamendu juridikoan delitu gisa tipifikatutako jokabideak izatea”. Zoritxarreko adierazpen homofobo horrek ez du ondorio praktikorik, baina eragina du imajinarioan. Berriz ere, homosexualitatea jokabide marjinalekin edota delituzkoekin identifikatzera bultzatzen da. Bestalde, legeak klausula bat barne hartzen du, jatorriko herrialdean delitu larriren bat egin dutenek babesik jaso ez dezaten.

Errealitatea


Azterketa txiki honen bidez asiloaren inguruko legediaren irakurketa azkar bat egin nahi dugu, generoaren ikuspegitik abiatuta: zer aurrerapen eta atzerapen dakartzan, zer berme eta muga dituen... Baina azterketak ez du erakusten legearen aplikazio praktikoaren errealitate etsiarazlea; izan ere, Espainiara iristen diren iheslari gehienek ez dute babesik jasotzen, eta kasuen erdia baino gehiago baztertu egiten da aztertu ere egin gabe •





asilo
eskubidea


Herrialde seguru batera heltzeko bidaia luzea



Asiloaren babesa jasotzeko lehen urratsa herrialde seguru batera iristea da. Horrek berekin dakar norberaren herrialdetik joatea, militartutako mugetatik igarotzea, tramite diskriminatzaileak egin behar izatea, eta basamortutik, itsasotik eta alanbre-sareetatik bizirik ateratzea. Gaur egun, hori lortzea herrialde-batasun oso bati borroka irabaztea da. Izan ere, herrialde horiek giza baliabide eta baliabide material eta militar mordoa inbertitu dute zenbait politika zentzugabetan, jendeari beren sorterritik ateratzen ez uzteko. Eta ateratzen badira, bidean geratzeko; eta iristen badira, itzularazteko.

Estatuek nazioarteko zuzenbidearen debeku bat dute: ezin dute kanporatu edo itzularazi pertsona bat herrialde bateko lurraldera, baldin eta han pertsona horren bizitza eta askatasuna arriskuan badaude, edo tortura, tratu gizagabe eta iraingarriak, edo giza eskubideen beste urraketa batzuk jasan baditzake.

Ez itzularaztearen funtsezko printzipio horretan oinarritzen da, hain zuzen, asilo-eskubidea. Printzipio hori ez betetzeak nazioarteko babesa jasotzeko inolako bermerik gabe uzten ditu iheslariak. ACNURek⁷ nabarmendu duenez, nahitaez bete beharreko printzipioa da estatuaren lurraldean, nazioarteko uretan eta iragaitzazko herrialdeetan,



baldin eta esku hartzen badute Guardia Zibilak, beste funtzionario batzuk edo horien izenean diharduten garraio-eta segurtasun-enpresek, adibidez.

Baina printzipio hori ez da iheslariak babesteko tresna hutsa: eskubide zabalagoa da, beste nazioarteko hitzarmen batzuetan barne hartutakoa⁸. Printzipio horren aplikazioa ez dago arriskupeko pertsonaren egoeraren baitan, baizik eta sorterrira itzularaziz gero izango lukeen arriskuaren baitan. Errespetatu egin behar da, betiere *“arrazoi sendoak badaude pentsatzeko pertsona hori tortura edo zigor krudelak, gizagabeak edo iraingarriak jasotzeko arriskuan egongo dela”*.

Pertsonak indarkeriatik ihes egiten dute, eta gero, bertara itzularazten zaie. Iheslariak eta immigranteak dira, eta askotan, estatuak, pertsona horiek babestu beharrean, jazarri egiten dituzte. Egoera gero eta gogorragoa da, eta indarkeria, gero eta ohikoagoa. Gure ardura da horren guztiaren berri jakitea eta aurre egitea. Guri dago-kigu Clara ezagutzea, bera ere badelako kalean ikusi dugun emakume hori. Bera da Clara eta Gilbert, baita Alexandra eta Rosa ere, eta Isela eta Omar... •

⁷ Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Mandataria.

⁸ Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe eta Umiliagarrien aurkako Hitzarmenean eta Giza Eskubideak eta Oinarizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean.



Feminizidioak, emakumeen eta gorputz feminizatuen aurkako indarkeria-modurik gogorrenak, behartutako lekualdaketak ere eragiten ditu. Arazo horretan eta haren ondorioetan sakontzeko, Rosa Isela Pérezen esperientziaz baliatuko gara. Ciudad

Juárezeko kazetaria da, eta erbestera joan behar izan zuen Mexikoko herri horretako feminizidioa agerian jartzen saiatze-gatik.

Zer, zergatik, zertarako

Feminizidioa helburu jakin bat duen indarkeriazko ekintzen multzoa da: emakumeak (beren emakume-izaeragatik) eta emakume-ezaugarriak dituzten pertsonak desagerraraztea, alegia. Haien sarraski materiala eta sinbolikoa du xedetzat, bai eta haien mugikortasuna eta jarrera kontrolatzea ere esfera publikoan eta pribatuan. Indarkeriazko ekintza sistematiko horiek genero-krimenak dira, eta patriarkatuaren egitura hierarkikoan dute jatorria. Hain zuzen, egitura horrek maskulinoak femeninoa menderatzeko elkarri lotutako moduak inposatzen ditu hainbat mailatan: maila sexualean, intelektualean, psikologikoan, sozialean, kulturean, ekonomikoan, politikoa eta belikoa, zehatz-mehatz esanda. Askotan, indarkeria feminizida gauzatzeko, bitarteko sexualak erabiltzen dira; dena den, krimen horien zergatia ez da sexuala izaten. Botere hori publikoki erakustea dute helburu, gizarteak mezua jaso dezan: maskulinoak menpean dituela emakumeen gorputzak eta gorputz feminizatuak.

Familien sufrimendua ikusten duzu, baina gorpuak ere bai, eta hori oso gogorra da, ez duzu sekula ahazten. Mezu bat da, gainerakoekin komunikatzeko modu bat. Gorpuak gogoratzen ditut, haien inguruan zegoen guztia: hasieran, urertzean botata egoten ziren; eta gero, kale erdian. Eta zera esaten nion neure buruari: "Hau zerbait gehiago da; nori ari dira hizketan? Zer esan nahi dute?". Ulertu ezin duzuna ez duzu ahazten. Ikaratu egiten ninduen, baina, era berean, kemen handia ematen zidan.

Feminizidioa kontzeptu politikoa da, Latinoamerikako emakume-erakunde askok eta mugimendu feministak batera eraiki-

takoa eta ageriko egindakoa. Emakumeen aurkako indarkeria eta indarkeria horren zigorgabetasuna salatzeke erabiltzen da.

Feminizidio-motak

Hainbat mota daude. Hilketak bera hauetako suposizio baten edo bat baino gehiagoren ondorio izan daiteke:

} **Familiakoa:** familia bateko kide bat edo batzuk hiltzea, biktimaren eta biktimagilearen artean ahaidetasun-harremana dagoenean.

} **Haurrena:** neskatoak hiltzea, helduak adinez txikikoarekiko duen ardura-, konfiantza- edota botere-harremana dagoenean.

} **Intimoa:** biktimak hiltzailearekin nolabaiteko intimitate-maila edo harreman afektiboren bat edo senidetasunezkoa izan duenean, edo hiltzaileak biktimarekin horrelako harremanen bat ezarri edo berrezarri nahi izan duenean.

} **Ez-intimoa:** hiltzailea biktimak ezagutzen ez duen norbait denean, eta beraz, bien artean ez dagoenean inolako harreman afektiborik edo senidetasunezkorik.

} **Loturazkoa:** beste emakume bat ez erasotzeko edo hiltzeko esku hartu duten emakumeen hilketak.

} **Estigmatizatutako lanbideengatik:** biktimaren gaitzetsitako lanbideak eragindako hilketak (adibidez, klubetako zerbitzariak eta dantzariak, eta prostitutak).

} **Sexual-sistemikoa:** bahituak, mutilatuak, torturatuak eta bortxatuak izan diren emakumeen hilketak. Askotan,

gorpuak bota egiten dituzte eta sakabanatuta uzten dituzte. Indarkeriazko ekintza horiek oso latzak izaten dira, eta gizarte-harreman patriarkalak sustatzen dituzte. Gainera, estatuaren konplizitatearekin gertatzen dira; izan ere, ekintza horien arduradunak ez dira zigortzen, eta biktimen familiei ez zaie egia, justizia eta erreparazioa ematen. Azpikategoriatan banatuta dago:

[**Antolatu gabea:** hiltzaileek, antza, behin bakarrik hiltzen dute eta denbora-tarte jakin batean. Ezezagunak izan daitezke, edota biktimaren hurbilekoak eta senideak.

[**Antolatua:** hiltzaileak feminizida sexualen sare antolatu baten antzera aritu daitezke; hau da, metodo kontziente eta sistematiko batekin, eta denbora-epe luzean eta zehaztugabeen.

Feminizidioari lotutako beste jazarpen batzuk

Indarkeria jasan behar izaten dute egia, justizia eta biktimen erreparazioa bilatzen dutenek ere. Hala, pertsona hauei ere jazartzen zaie:

} Gertatutakoa argitzeko eta arduradunak epaitzeko lan egiten duten biktimen senideak.

} Giza eskubideen urraketen kausak eta ondorioak desagerrarazteko lan egiten duten giza eskubideen defendatzaileak.

} Biktimen sare sozialeko pertsonak.

} Gertatutakoa ikertu eta haren berri eman nahi duten kazetariak.

Kazetariok funtzio soziala dugu; hau da, gizarteko arazoak konpontzeko eman dezakegun laguntzarekin zerikusia duen ardura. Nola lagun dezakegu? Pertsonen bizitzan eragina izan dezaketen esparru publikoko nahiz pribatuko arazoak agerian jartzen.

Isela jazarri egin zuten, baina, hala ere, kazetari izateak dakarren ardura bere gain hartzea erabaki zuten:

Gurean eta beste hainbat lekutan dagoen arazo larriari buruz idazten nuen. Ciudad Juárezen, zehazki, biktimen familiak asko mobilizatu ziren. Emakumeen aurkako indarkeriaz ari naiz.

Agintariak gertatzen ari zenaz ematen zuten bertsioa leku guztietan zegoen. Hala ere, ez zen entzuten biktimen amen ahotsa! Gainera, komunikabide gehienek artean konplizitatea zegoen, gertatzen ari zenaren berri ez emateko edo oso modu manipulatuaren aurkezteko, eta beraz, bertsio ofizialaren alde egiteko.

Nire lanak biktimen familiekin zuen zerikusia: desagertze-kasuetan sufritzen ari zirenen berri ematen nuen, agintariak eta gobernua haien giza eskubideak urratzen ari zirela idazten nuen. Nik ez nuen krimenak ikertzeko asmorik. Familiek eta amek egiten zutena eta sufritzen zutena agerian jartzea zen nire zeregina. Eta, gainera, haiek jarraitzen ari ziren ikerketa-ildoen berri ere eman nuen. Baina egoera horiek eta lan hura ez ziren erakusten.



Nor: jazarpen-eragileak eta estatuaren eginkizuna

Feminizidio-motaren araberakoak dira jazarpen-eragileak. Askotarikoak izan daitezke: besteak beste, biktimekin loturaren bat duten pertsonak, emakumeak 'kontsumitzen' dituzten botere ekonomiko handiko taldeak, enpresariak, erakundeak eta estatuaren segurtasun-indarrak, krimen antolatua (marak, narkotrafikoa, pertsonen salerosketa-sareak...), sektak, eta 'garbiketa sozialarekin' lotutako eragile estatalak eta paraestatalak.

Kasu batzuetan, senideak, bikotekide ohiak edo bikotekideak izaten dira emakumeak jazartzen dituztenak. Horrelakoetan, ikerketak egiten dira eta arduradunak atxilotu egiten dituzte (gutxi gorabehera).

Baina gainerako kasu guztietan... Oso kontu korapilatsua iruditzen zait. Hiltzaile asko daude, ez bakar bat. Baina hiltzaile mordo horren artean talde boteretsu bat dago, polizia eta estatuak berak babesten duena. Kasu horien ehuneko laurogeita hamar baino gehiago zigorrik gabe dago.

Indarkeria norik gauzatzen duen kontuan hartzeaz gain, asilo-eskubidearen arloan bereziki garrantzitsua da estatuaren eginkizuna. Haren ardura da pertsonak babestea eta, ezin badu edo ez badu egin nahi, jazarritako pertsonak nazioarteko babesa bilatzeko eskubidea du.

Mugimendu feministak estatu-krimenez hartzen du feminizidioa, estatua bera ez delako gai biktimek babesteko, edo indarkeria feminizida onartzen eta sustatzen duelako. Horrek berekin dakar zuzenbideko estatua haustea; izan ere, estatua ez da gai herritarren bizitza babesteko, legea

betetzeko eta betearazteko, biktimei egia, justizia eta erreparazioa bermatzeko, eta indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko.

Feminizidioaren kausak Ciudad Juárezen


Estatuaren ezgaitasun hori arrazoi hauen ondorioz sortzen eta hazten da:

} **Patriarkatua:** Horren eraginez, agintariek ez dituzte krimenak behar bezala ikertzen eta ez dute haiekiko interesik agertzen. Gainera, zigorgabetasun-maila altuak ere ekartzen ditu berekin, batik bat biktimek "erabili eta botatzekotzat" hartzen diren kasuetan (adibidez, emakume pobreak, migratzaileak, prostitutak eta transexualak).

Mexikoko leku gehienetan dago indarkeria-mota hori, baina mugako lurraldeetan oso errotuta dago kultura patriarkala eta matxista. Hori bizi eta sufritu egiten da, eta maila guztietan nabaritu daiteke, baita gobernuaren politika publikoetan ere. Belaunaldien arteko kontu kultural bat ere bada: emakumeak objektutzat hartzen dituzte, erabili eta botatzekoak izango balira bezala. Nik aztertu nituen emakumeen hilketa- eta desagertze-kasuetan, biktimek ez zuten estatusik eta prestakuntzarik: oso pertsona pobreak ziren. Emakume guztiak oso xumeak ziren.

} **Kapitalismoa:** Estatuak, kapitalaren menpe dagoenez, ahultasunez sustatzen eta babesten ditu giza eskubideak. Zuzenbideko estatua izan beharrean, estatu korporatiboa da. Bere eginkizun nagusia botere ekonomikoa duten pertsonen, taldeen eta korporazioen interesak babestea da.

Inoiz ez da egon estatuaren presentziarik eskualde horretan. Ciudad Juárez Estatu



Batuen muga dago. Denetarikoz gauzak trafikatu dira, baina batik bat droga eta armak. Droga iparraldera, eta armak Mexikoren barnealdera. Han, oso mafia boteretsuak daude, eta bertako agintariak erosi dituzte.

Faktore asko daude, baina nik estatuaren presentzia ezarekin lotzen dut dena. Leku hau alde batera utzita dago, inoiz ez da interesik egon gizarte-arazoak konpontzeko. Interesen bat egon omen da, baina gobernuari dirua ekarri dioten proiektu ekonomikoetan bakarrik agertu da. Ciudad Juárez-en 250 "maquiladora"⁹ daude, eta horietako gehienek jabeak estatubatuarrik dira. Estatuak hango arazo guztiak benetan konpondu ahal izango balitu edo nahi izango balitu, egoera ez litzateke horrelakoa izango. Baina gobernu federalak, estatuko gobernuak eta udal-gobernuak ez dute ezertxo ere egiten.

Testuinguru patriarkal eta kapitalista honetan, emakumeen gorputzak kontsumorako produktu dira (manipulatu, anputatu eta torturatu egin daitezke). Emakumeen aurkako krimenak ez dira zigortzen, batik bat erasotzaileak botere-taldeekin lotutako pertsonak badira.

Zenbait kasu zigorgabetasun osoa daukate. Emakume-taldeak agertzen dira, torturatuta eta markatuta. Gordeta izaten dituzte denbora batez, eta deskonposizio-prozesua oso aurreratua dagoenean bota egiten dituzte. Ustelkeria asko dago polizia eta gobernuaren egituretan. Agintarien jarrera penagarria da. Gainera, narkotrafikoarekin lotuta ere egoten dira: kanpainak sustatzen dituzten politikariak, enpresariak...

Estatuaren parte-hartzea jazarpenean

Estatuaren korporatibismo horrek, gainera, estatuaren beraren erakundeak eta egiturak modu aktiboan nahasi ditzake krimenetan. Adibidez, horrela:

1. Errudun faltsuak torturatzea, mehatxatzea, auzipetzea eta hiltzea

Hau ekarri zuen gogora Iselek, Campo Algodonero¹⁰ kasuari buruz:

Mundu-mailako eskandalua izan zen! Eta hain handia zenez eskandalua, kasua argituta zegoela esatea interesatzen zitzaion gobernuari. Prokuradore batek agindu zuen edonori atxilotzeko. Hiru neskatoren gorpuak azaroaren 6an aurkitu zituzten, eta beste bostenak, hilaren 7an. Eta hurrengo egunean jada bi pertsona zeuden atxilotuta! Bi gizon etxetik ateratu zituzten, goizaldean, atxiloteta-agindurik gabe, beren eskubide guztiak urratuz, eta "segurtasun-etxe" batera eraman zituzten. Lehenbizi etxebizitza batera, eta gero, torturatuak izan ziren leku batera. Dokumentu batzuk sinatzeko eskatzen zieten, neskatok hil zituztela aitortzeko. Eta, hala eta guztiz ere, eskatzen zieten egiten ez zutenek, beren familiak hilko zituztela mehatxatu zieten: baten emaztea, haurdun zegoena; eta bestearen familia osoa. Nik badakit mehatxua beteoko zutela. Sinatu egin zuten.

Bi gizonetako bat espetxean hil zen. Ebaketa bat egin zioten bere borondatearen kontra. Hilda aurkitu zuten, eta esan zutenek, ebaketa egiten izan zen. Belaunean hernia bat zuen. Ez al da sinestezina? Gizon horren gurasoek krimen bat izan

⁹ Maquiladora delakoak esportaziorako ekoizpen- eta prozesamendu-lantegiak dira. Jabeak tokikoak edo atzerrikoak izan daitezke, baina beti egiten dute lan atzerriko enpresentzat. Oro har, ekoiztako produktuak ez dira izaten ostalari den herrialdeko kontsumorako, esportazio-merkatuak baizik. Kapitalismoaren produkzio-sistema globalizatuaren ikur paradigmatikoa dira, eta fabrika horien ezaugarri nagusia da kostu gutxirekin irabazi handiak sortzen dituztela, langileen eskubideak aintzat ez hartuz edo urratuz.

¹⁰ 2001ko azaroaren 6an eta 7an, zortzi emakumeren gorpuak aurkitu zituzten Campo Algodonero izeneko mendixka batean, Ciudad Juárez-en. Biktimen amek, erakunde sozialek eta laguntza-taldek egindako borrokari esker, 2009ko azaroan, Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordeak (CoIDH) Mexikoko estatua zigortu zuen Esmeralda Herrera Monreal, Laura Berenice Ramos Monárrez eta Claudia Ivette González-en giza eskubideak urratzeagatik (horietako bi adinez txikiak ziren), eta biktimen familien aurka estatu-indarkeria erabiltzeagatik. Sententziak Mexikoaren nazioarteko arduraz zehazten du. *CoIDH, Caso González y otras ("Campo Algodonero") vs. México. Sentencia de 16 de noviembre de 2009 (excepción preliminar, fondo, reparaciones y costas).*

zela salatu zuten. Zerbaiteko balio behar zuen kasua eskandalu bat izateak.

2. Gertakariak argitzeko lan egiten dutenak eta zigorgabetasunaren aurka borroka egiten dutenak mehatxatzea eta hiltzea

Mario Escobedo eta Sergio Dante Almaraz Mora, Campo Algodonero kasuko akusatuen abokatuak, hil egin zituzten. Iselaren ustez, biktimenzat zorte handia da abokatuak eduki ahal izatea. Dena den, bi abokatu horiek zer-nolako jazarpena jasan behar izan zuten azaldu zigun:

Espetxeko zuzendariak baimena eman zien abokatuei eta komunikabideei tortura-marken argazkiak egitera sartzeko. Komunikabide guztiek eman zuten horren berri.

Une horretan, kasuaren inguruko gezur guztiak nabarmen geratu ziren, eta mehatxuak jasotzen hasi ziren abokatuak eta beste hainbat pertsona! Abokatuetak baten familia ere jazarri zuten. Prokuradoretzako agenteak abokatuetak bat autoz harrapatzen saiatu ziren. Atxiloteta gertatu eta bi hilabetera, fiskaltzako agenteek haietako bat hil zuten. Agenteek esan zuten biktima tiroka hasi zela, baina ez zeraman armarik. Tamalgarria! Hilketaren arduradunak ez zituzten auzipetu; gunez aldatu zituzten, besterik ez.

Oso gauza larriak gertatzen ziren. Ez dakit munduko beste herrialdeetan konturatzen ote ziren Ciudad Juárezen ikararuta bizi ginela

Iselak jasandako jazarpena ere Campo Algodonero kasuarekin lotuta dago. Dena den, hori gertatu baino lehen hasi zen heriotza-mehatxuak jasotzen. Ciudad Juárezeko emakumeen hilketak eta desagertzeak agerian jartzeko lanean hasi zenetik, hain zuten.

Nik emakumeen hilketez eta desagertzeez idazten nuen, besteak beste. Baina emakumeen gaia zen itsusiena. Ciudad Juárezera etorri ziren Giza Eskubideen Amerikarteko Gortea eta Nazio Batuen kontalaria, behin, bi bider, hiru

bider. Hala eta guztiz ere, biktimen amen ahotsa ez zen entzuten komunikabideetan. Nik jasotzen nuen haiek kontatzen zutena.

Denbora batez haien minaren eta borrokaren berri eman ostean, irainak eta mehatxuak jasotzen hasi nintzen. Une hartan ez nien garrantzirik eman. Nire lana egiten ari nintzen, ez nengoan ezertan nahasita; beraz, ezin ninduten ukitu. Hori uste nuen nik. Kemena ere eman zidan, motibatu egin nintzen!

Baina handik denbora-tarte batera, ez nituen irainak bakarrik jasotzen. Mezu haietan, zera esaten zidaten ingelesez: "Serieko hiltzaileak gara". Jakinarazi nahi zidaten kontrolpean nengoela. Hala ere, lanean jarraitu nuen.

Baina egoera larriagotu egin zen, 2001. urtean zortzi emakume hilda aurkitu zituztenean [Campo Algodonero]. Akusatuen abokatuetak bat hil egin zuten arren, besteak egoera salatzen jarraitu zuen. Mehatxuak ez ziren amaitu. Behin batean, denbora-tarte horretan, nire bila joan ziren nire amaren etxera. Min handia egin diezazukete ukitu ere egin gabe!

Ciudad Juárezeko arazo larria, emakumeen heriotzei eta desagertzei dagokienez, herriaren mugetatik haratago hedatu zen, eta gertatzen ari zenaren berri jakin zuten nazioartean. Giza Eskubideen Amerikarteko Gorteak (CoIDH) Mexikoko estatua kondenatu zuen Campo Algodonero kasuagatik. Iselak nazioarteko auzitegi horretan lekukotasuna egin ostean, bere eta bere familiaren egoera larriagotu egin zen.

2008an, emakume horien kasua zeraman abokatu nirekin harremanetan jarri zen. Esan zidan nire testigantza behar zuela. Nik ezetz erantzun nion. Urte horretan bertan hasi ziren gunea militaritzen. Nik dagoeneko ez nuen lanik, ezin nuen nire hirian lan egin, eta hiru seme-alaba nituen. Ejerzitoa han zegoen. Gaez, militarrek nahi zuten lekura sartzen ziren eta jendea torturatu, bortxatu eta hiltzen zuten. Eta nik, egoera horretan, arriskatu egin behar al nuen? Ez. Ezetz esan nion.

Hurrengo urtean, nire senarrak lan egiten zuen egunkarian, pertsona bat hil zuten eta narkoen exekuzioei buruz idazten zuten guztiei mehatxu egin zieten. Nire senarra haletako bat zen. Une horretan, Mexiko Hiriko abokatu batek hots egin zidan. Nire testigantza eman nezan nahi zuen, oso positiboa izango baitzen Amerikarteko Gorteko prozesurako. Nik neuk jasan behar izandako indarkeriari buruz hitz egingo nuela erantzun nion; izan ere, haiek defendatu nahi zuten emakume guztien aurkako arazo estruktural bat zegoela.

Nire testigantza bidali eta berehala, egun horretan bertan, mehatxuak jasotzen hasi nintzen berriz ere.

3. Gobernu-erakundeek jarraitzea eta zelatatzea

Orduan, BBCko kazetari batzuk zeuden Ciudad Juárezen, feminizidioari buruzko dokumental bat egiten. Pertsona bat elkarrizketatu zuten, baina ez zekiten ziur kazetaria ote zen, bertsio ofiziala buruz errepikatzen baitzuen.

Komunikabideen zigorgabetasunari eta ustelkeriari buruz hitz egin nien. Haiek niri ere informazioa eman zidaten: bi neska hil zituzten mendixka batean sinbolo bat topatu zuten, eta erritual bat egin zutenaren itxura omen zuen. Fiskaltza Bereziak ez zien horren berri eman tokiko komunikabideei, BBCri bakarrik.

Argazkilaria batekin joan nintzen sinboloaren bila. Bueltaka ibili ginen, eta azkenean, beste kide batek lagunduta, topatu egin genuen. Egunkarira itzuli ginenean, pertsona bat gure zain zegoen. Ikusi ninduenean, nire parean jarri eta filmatzen hasi zen. Pixka bat larritu nintzen, batik bat ustekabean harrapatu ninduelako. Esan nuen: “Gizon hau ezaguna egiten zait”. Korrika alde egin zuen, eta matrikularik gabeko auto batean sartu zen. Aurrerago jakin nuen fiskaltzakoa zela, emakumeen desagertzeak ikertzen zituen taldeko burua. Horrelakoetan konturatzen zara noren eskuetan dagoen dena eta zergatik ez diren kasuak argitzen. Beraiek dira.

4. Gertakariak agitzeko lanean ari direnen aurkako difamazio-kanpainak

2003 eta 2004 artean kanpaina bat antolatu zen, Ciudad Juárezen emakumeekin zegoen arazoa ez zela benetakoa, asmatutako ipuin bat zela, gezur hutsa zela esateko. Atzerriko komunikabideek eta tokiko komunikabide batek egoera puztu genuela. Kontu horrekin dirua ateratzen ari ginela, amak eta aktibistak ere dirua irabazten ari zirela. Hiriaren irudia zikintzen ari ginela eta ekonomiari kalte egiten ari ginela, gure erruz jendea ez zelako etortzen. Tamalgarria zen, gure bila zetozen. Komunikabideek mezu hori argitaratu zuten.

Konferentzia batean, funtzionario batek esan zuen nire eta nire lankide baten kasua txikitan gertatu zitzaigun zerbaiten ondorio zela, eta horregatik idazten genuela emakumeen alde.

5. Laneko boikota: konplizitatea gizarte-eragi-leekin, ostrazismo soziala lortzeko

Kanpaina hori antolatu zenean, gobernu-aldaketa egon zen, botere-trantsizioa. Gobernu berria maltzurragoa zen: komunikabideetara gerturatu eta negoziatu egiten zuen.

Egunkarian nik idatzitakoak zentsuratzen hasi ziren. Askotan ez ziren argitaratzen nire oharra, eta argitaratzen baziren, paragrafo osoak ezabatzen zituzten, edo aldatu egiten zituzten. Informazioarekin azpijoko handia zegoen. Adibidez, idazten baldin banuen poliziak jendea jo zuela mobilizazio batean, aurkakoa argitaratzen zuten, manifestariak izan zirela polizia jo zutenak. Horrelaxe, inongo lotsarik gabe.

Egun batean, ustekabean, nik landutako gaiekin zerikusirik ez zuen egunkariko sail batera aldatu ninduten. Egun batzuetan, iruditzen zitzaidan ez zekitela zer lan agindu niri. Presioa egiten ari ziren, alde egin nezan, baina hantxe jarraitu nuen. Azkenean, lanetik bota ninduten. Nazioarteko sari bat jaso berri nuen, emakumeen desagertzeari buruz egindako lan batengatik. Baina haiei ez zien axola. Albistearen berri eman zidanak ez zekien zergatik botatzen ninduten, eta

egia esateko eskatu nion. Erantzun zidan ez ziotela azalpenik eman. Aurrerago jakin nuen, akusatuen abokatu batek esanda, egunkariak nire buruagatik negoziatu zuela: isilarazi egin behar ninduten, bota egin behar ninduten.

Lana bilatzen saiatzen naizenean, konturatzen naiz komunikabideek ez nautela kontratatu nahi, feminizidioaren "mitoari" buruz idatzi dudalako. Diario de Juárezen argi eta garbi esan zidaten. Han debekatuta zeukaten "feminizidio" hitza, ezin zen aipatu ere egin.

Laneko betoa komunikabideetatik haratago zabaldu zen: unibertsitatean ere ez ninduten kontratatu nahi. Gobernadoreak berak izendatutakoa zen errektorea. Lanik gabe geratu nintzen.

Iselaren aurkako indarkeria areagotuz joan zen, eta azkenean, berak eta bere familiak Mexikotik joan egin beharko zutela erabaki zuten.

Asilo-eskubidea feminizidioaren aurrean

Ihes egitea

Feminizidioak ihes egitea ekar dezake berekin, genero-indarkeria dela eta. Horrek, era berean, biktimei elkartasuna adieraztea eta egia, justizia eta erreparazioa bilatzeko lan egitea eragiten du.

Iselak mehatxuak jaso zituen Ciudad Juárezeko feminizidioa agerian jartzeagatik eta CoIDHn Campo Algodonero kasuaren inguruan lekukotasuna egiteagatik. Ondorioz, Mexikotik joan egin behar izan zuten.

Nire testigantza CoIDHra bidali ostean, berriz ere mehatxuak jasotzen hasi nintzen. Etxez aldatu behar izan genuen. Bel-



durra genuen, ejertzittoa gu bizi ginen gunean sartu zelako. la-ia etxe barruan genituen. Oso gauza itsusiak ari ziren gertatzen. Zera esaten genion geure buruari: "Hemen ez dago etorkizunik. Nola heziko ditugu gure haurrak?". Une horretan, edozein gertakari narkotrafikoari egozten zitzaion, narkotrafikoaren beraren eta ejertzitooaren artean sortu zen gerra zela eta.

Ezin genuen herrialdean jarraitu, baina ez nekien norengana joan laguntza eske. Ikerketa-lan bat egin nuen Kanadan, eta hango iheslarien klinika bateko langile bat ezagutu nuen. Gainera, Torturaren Aurkako Munduko Erakundearekin (OMCT) lankidetzan aritu nintzen. Gertatzen zitzaidana kontatu nien, eta lagundu egingo zigutela esan zidaten.

Gertatzen ari zen guztiarekin, ezin genuen Ciudad Juárezeko jarraitu. Mexikoko zenbait erakundek Mexiko Hirira joaten lagundu ziguten, Kanadara bidaiatu aurretik. Han, gu iritsi zain zeuden, asilo-eskaera egin genezan. Baina erakunde horiek Mexikotik bertatik aurkeztu nahi zuten espedienteak, eta guk presa genuen handik joateko. Ez zuten esperientziarik horrelako kasuetan. Denbora-tarte horretan, hiru aldiz aldatu ginen etxez. Denbora asko galdu genuen, eta egun batean, Kanadak bere mugak itxi zituzkien Mexikoko hiritarrei, eta ez genuen hara joateko aukerarik.

Zera esan nion neure buruari: "Ez!". Garai hura oso gogorra izan zen. OMCTko idazkari nagusiari gutun bat bidali nion. Berak bazuen nire egoeraren berri. Laguntzeko erregutu nion. Denbora-tarte bat igaro ostean, esan zigun, bere ustez, Kanadak sartzen utziko zigula, baino lehenbailehen joateko. Hala ere, egiaztatu aurretik, Espainiako Legelarien Kontseilu Nagusiko abokatu batek lagun ziezaguen pertsona baten izena eman zion. Eta esan genuen: "Ba hara joango gara!". Alde egin behar genuen. Pertsona hura Arsenio zen, CEAREko abokatua.

Asilo-eskubidea

Jazarriak direlako ihes egiten duten pertsonak, hala nola Ciudad Juárezeko kazetari horrek, asiloaren nazioarteko babesa jasotzeko eskubidea dute, arrazoi hauek direla eta:

} Jazarpen-ekintzak nahikoa larriak dira berez, eta gainera, behin eta berriz gertatzen dira; ondorioz, oinarrizko eskubideen urraketa larria, sistematikoa edo etengabea dira.

} Ciudad Juárezeko feminizidioa agerian jartzen eta salatzen duten kazetari mexikarrek *gizarte-talde* bat osatzen dute asilo-eskubidearen esparruan. Gainera, emakumea izanez gero, areagotu egiten dira urrakortasuna eta jazarpena.

} Gizarte-arazo bat (esate baterako, Ciudad Juárezeko feminizidioa) agerian jartzeko kazetaritza-lanak eragindako jazarpena *irritzi politikotzat* har daiteke asilo-eskubidearen esparruan; izan ere, "agintariek eta gizarteak ez dituzte onartzen iritzi horiek, beren politikei, ohiturei eta metodoei kritika egiten baitiote"¹¹.

} Estatu-eragileek (prokuradoretza, fiskaltza, ejertzittoa) eta estatukoak ez diren eragileek (komunikabideak, enpresak) egin dezakete jazarpena.

} Estatuak zenbait egituraren bidez parte hartu du Iselari

egindako jazarpenean. Gainera, uko egiten dio kazetari hori babesteari, CoIDHren zenbait neurrik haren segurtasunari dagozkion ardurak bere gain hartzera behartzen duten arren.

} Hori guztia dela eta, Iselak eta bere familiak Mexikotik joan behar izan zuten eta ez diete itzultzen uzten; izan ere, itzuliz gero, arriskuan egongo liriateke beren bizitza eta segurtasuna.

Erbestean egotearen esperientzia

Isela eta bere familia 2009ko irailean iritsi ziren Espainiara. Urtebeteren ondoren, asilo-estatutua jaso zuten.

Erbestean egotearen esperientzia estatu batek aitortzen hori egitetik haratago doa. Iheslarien testigantzen eta asilo-eskubidearen inguruko ikerketen atzean, oso egoera gogorak daude. Iselak kontatutakoak erakusten dizkigu argi-ilun horiek. Bizitzeko amets bat da, norberaren testuinguruan geratzen uzten ez duen jazarpenari aurre egitea da.

Asiloaren bidean mina eta sufrimendua daude, baina baita erresistentzia eta bizi izandakotik indarberrituta ateratzeko kemena ere.

Oso aldaketa latza da, dena bat-batean uztea. Bi maletarekin iritsi ginen Madrilerara... Oso zaila izan da. Oso mingarria da zure sorterritik joatea, dena da desberdina. Itzuli egin nahiko nuke, eta nire etxea eta familia berreskuratu! Horren hutsunea sentitzen dugu, familiarekin eta lagunekin egotearena. Baina, hala eta guztiz ere, ez dugu itzuli nahi egoera aldatzen den arte. Ez dut nire familia hara eramango berriz.

Zortea izan genuen, eskaera egin eta urtebetera asiloa lortu baikenuen. Poz handia izan zen, baina oso prozesu gogorra da. Bertan gelditu ahal izan ginen, baina lanik gabe. Gobernuak esaten dizu "oso ondo, gelditu", baina nola biziko gara? Hiru hurrekin! Maiz galdetzen genion geure buruari

¹¹ Erefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren (ACNUR) definizioa.



zer egingo genuen, nora joango ginen. Gainera, zure kasua aztertzen ari diren bitartean ezin duzu beste inora joan. Atxiki egiten zaituzte.

Laguntza eske joan ginen zenbait lekutara, baina ez ninduten sinesten, zera esaten zidaten: "Asilo eske datorren lehen mexikarra zara". Ez zuten sinesten gertatu zitzaidana. Oso gogorra izan zen.

Beti izan dut oso argi ez nuela ezer txarrik egin, esan nuena ez zela mito bat, ikusi egin nuela. Ez nuen gezurrik idatzi. Ikusi behar izan nituen zorigaitzei buruz idatzi nuen, gertatzen ari zena salatzea bidezkoa iruditzen zitzaidalako. Feminizidioa agerian jartzeagatik arerio asko egin nituen, elkartasunik eza jasan behar izan nuen. Hori ere oso itsusia izan zen. Baina argi dut horixe zela une horretan egin behar nuena. Ziurtasun horretatik eta nire familiaren eta seme-alaben babesetik ateratzen dut aurrera jarraitzeko indarra.

Idazteko premia handia dut. Askok kostatu zait ikusi nuenari buruz idaztea. Ikusi nituen gauzak eta egin zizkidatenak ateratzen ari naiz pixkanaka. Egiteke daukadan lan bat da: berreskuratu egin nahi ditut gorde nituen gertakariak, esan ez ziren eta zintzilik geratu ziren kontuak; izan ere, uste dut bidezkoena dela haien berri ematea.

} Gehiago jakiteko

Emakume-elkarteak, biktimen senideak (batik bat amak) eta mugimendu feminista izan dira arazoa espazio publikora eramaten dutenak, bai arazoa dagoen lekuetan bai nazioartean.

Emakumeak mobilizatu egin dira Juárezen. Emakumeak diot, kasu gehienetan aitak ez baitira egon. Amak dira, ahizpak, amonak...

Pertsonalki eta kolektiboki baieztatzeko, elkarri laguntzeko eta egia bilatzeko mekanismo horiek lagundu egiten dute giza eskubideen urraketa larri, sistematiko eta etengabea desagerrazten.

Ondoren, feminizidioaren aurkako lanarekin lotutako erakunde eta ekimenen inguruko informazioa ematen da.

Feminizidioari buruzko Herritarren Behatoki Nazionala (OCNF)

Herritarren parte-hartzean oinarritutako erakundea da, eta genero-indarkeria, feminizidioa eta eskubideen diskriminazio sistematikoa jasan duten emakumeen kasuetan justizia lortzen laguntzea du helburutzat. Horretarako, arazo horiek behatu eta kontrolatzen ditu, eta haiei buruzko informazioa biltzen du. Gainera, intzidentzia-prozesuak egiten ditu, emakumeen giza eskubideei, indarkeriari eta feminizidioari buruzko legeen eta politika publikoen diseinuaren arloan.

Mexikoko 19 estatutako giza eskubideen aldeko eta emakumeen 36 erakundek osatzen dute OCNF. Chihuahua estatuari dagokionez (Ciudad Juárez kokatuta dagoen estatua, alegia), hauek dira parte-hartzeileak: Centro de Derechos Humanos de las Mujeres, Mujeres por México en Chihuahua, Nuestras Hijas de Regreso a Casa, Justicia para Nuestras Hijas eta Red Mesa de Mujeres de Juárez.

<http://observatoriofemicinidiomexico.org/>

Feminicidio.net

Genero-ikuspegitik emandako albisteen webgunea da. Ibero-amerikako herrialdeetako feminizidioari eta genero-indarkeriari buruzko erreportajeak, elkarrizketak, artikulak, ikerketak eta txostenak egiten dituzte. Gainera, beste sareko komunikabide batzuen albisteak ere argitaratzen dituzte.

Iberoamerikako feminizidioari buruzko datu-base bat sor-tu dute, 21 herrialdetan genero-arrazoiengatik gertatutako emakumeen heriotzak dokumentatzeko.

<http://www.feminicidio.net/>

'Visibilizando el Feminicidio en América Latina y Europa' kanpaina

Kanpaina honen helburua da feminizidioaren fenomenoaren berri ematea, bai Europan bai Latinoamerikan, eta hura sus-tatzen duen zigorgabetasuna desagerraraztea ere bai. Horre-tarako, 'Resolución sobre Feminicidio y violencia contra las Mujeres' delakoa aurkeztu zuen Europar Batasuneko eta Lati-noamerikako Parlamentu Biltzarrean (EuroLat). Ekimen horren bidez, gizarte zibilak gomendioak egiten parte har dezan sus-tatzea da, ebazpen hori feminizidioa prebenitzeko, zigortzeko eta desagerrarazteko tresna eraginkor bat izan dadin.

Kanpainaren buruak dira CIFCA (Kopenhagueko ekimena Er-dialdeko Amerikarako eta Mexikorako), Grupo Sur (EB - La-tinoamerika eta Karibe intzidentziaren Europako Sarea) eta Heinrich Böll fundazioa. Gainera, beste askoren laguntza jaso dute: ALOP (Garapena Sustatzeko Erakundeen Latinoame-rikako Elkarte), Amnesty International, APRODEV (Association of World Council of Churches related Development Organisa-tions in Europe) eta OIDHACO (Giza Eskubideen Nazioarteko Bulegoa – Acción Colombia).


www.gruposur.org/visibilizando-el-feminicidio-en-america-latina-y-europa/

Feminizidioari/Femizidioari buruzko VI. Konferentzia

2013ko urtarrilaren 23an egin zen Txileko hiriburuan, Europar Batasunaren eta Estatu Latinoamerikarren eta Karibetarren le-henbiziko goi-bileraren (UE-CELAC) bezperan. Konferentzia-ren helburua zen identifikatzea zer eduki barne hartu beharko lituzkeen lurraldeen arteko generoari buruzko hizketa-espazio berri horrek emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, bai eta espazio horretan zer parte-hartze izango luketen ere emakumeen eskubideen defendatzaileek.

Heinrich Böll Stiftung-ek antolatu zuen konferentzia, beste batzuen laguntzaz: Emakumeen aurkako Indarkeriaren kon-trako Txileko Sarea, Corporación Humanas eta Raul Romeva i Rueda (Berdeak/ALE taldeko eurodiputatua Europako Par-lamentuan).

www.boell.eu/downloads/Relatoria_Conferencia_sobre_Feminicidio.pdf





Emakumeen mutilazio genitala (EMG) indarkeria-modu bat da, maiz behartutako ezkontzari lotuta egoten dena. Aspal-diko ohitura hori emakumeen bizitza, gorputza eta sexualitatea kontrolatzeko estrategia bortitza da, bai eta haien eskubideen urraketa larria eta iraunkorra ere.

Haren ondorioez eta indarkeriarik gabe bizitzeko emakumeek egindako ahaleginaz gehiago jakiteko, Clarak kontatutakoa daukagu. Gineako Errepublikako 23 urteko emakumea mutilatu egin zuten eta hainbat urtez tratatu txarrak eman zizkion gi-

zon batekin ezkontzera behartu zuten. Clarak ihes egin behar izan zuen bere bizitza babesteko. Atzean utzi zituen bi alaba eta ahizpa gazteago bat, hirurak mutilazio genitala jasateko arriskuan.

Espainiak ez du errefuxiatutzat hartu Clara. Ukatu egin dio bere bizitza berreraikitze aukera, legez kanpoko egoeran egoteak dakarren indarkeriarik gabe. Horren ondorioz, Clarak ezin ditu bere alabak eta ahizpa ekarri, haien gorputzetan berak jasandako erasoak errepika ez daitezzen.

Zer da emakumeen mutilazio genitala

Emakumeen mutilazio genitala (EMG) emakumei sexu-organoak erabat edo zati bat erauztea da. Praktika horrek ez du helburu terapeutikorik, eta arrazoi kulturalak eta sozialak direla-eta egiten da.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, munduan 140 milioi emakume eta neskatok jasaten dituzte EMGren ondorioak. 92 milioi neskatok afrikarrak dira, 10 urte baino gutxiagoak. Ohikoa da Afrikaren mendebaldeko, ekialdeko eta ipar-ekialdeko lurraldeetan, bai eta Asiako eta Ekialde Ertaineko zenbait herrialdetan ere.

Batez ere bost eta hamalau urteko neskatoei egiten zaie, eta helduarora igarotzeko zeremonia-errito bati lotuta egon ohi da. Kasu askotan, nahitaezko baldintza izaten da ezkondu ahal izateko, eta beraz, emakume helduak ere mutilatzen dituzte. Zenbait herrialdetan ohitura hori debekatu dute, eta ondorioz, gero eta lehenago mutilatzen dira neskatok, zigorrik ez jasotzeko. Horixe da Gineako Errepublikaren kasua.

Lehen hamahiru edo hamalau urterekin egiten zuten, baina orain ez dago adinik. Izan ere, bi urteko haurtxoak ere mutilatzen dituzte. Adin hori dauka nire alaba txikiak. Mutilazioa abolitzearen aldeko legeak gero eta gogorragoak

dira. Hori dela eta, oporraldietan eta haurrak hamar urte izan aurretik egiten dituzte familiek mutilazioak. Uste dute horrela arazo gutxiago izango dituztela.

Motak

Hainbat mutilazio-mota daude, egindako ebaketaren gogortasunaren arabera. Batzuetan klitoriaren prepuzioa kentzen da, baina beste batzuetan erabateko mutilazioak egiten dira (ezpain handiak eta txikiak ere kentzen dira).

Gainera, emakumeek beren kabuz egitea erabakitzen duten mutilazio-mota bat ere badago, arrazoi estetikoengatik egin ohi dutena: *piercing*, *stretching*¹², klitoriaren kauterizazioa.

Ondorioak

Berehalako ondorioen artean daude hemorragiak, min handia (kanpo-genitaletan dagoen nerbio-kopuruarengatik), higienerik ezak eragindako infekzioak...

Min handia egiten dit nire alabengan pentsatzeak, ez baitakit zer gertatuko zaien ez baditut ekartzen. IHESak eta beste hainbat gaixotasunek ere kezkatzen naute, tresna bera erabiltzen baitute neskatok guztiak ebakitzeko.

¹² Bagina txikitzea edo estutzea, substantzia korrosiboak sartuz.

Arazo horien larritasunak, osasun-zerbitzuen eskasiarekin batera, haurra hiltzea ere ekar dezake.

Gogoan dut odolustuta hil zen hamabost urteko neska bat.

Epe luzerako ondorioak mutilazio-motaren araberakoak izaten dira. Erabateko erauzketaren kasuan (ohikoena da), ondorio fisikoak bereziki larriak izaten dira: tumoreak, infekzio kronikoak, arrisku handiko erditzeak amarentzat eta haurrarentzat, eta abar.

Mutilatutako emakumeen bizitzan, eragin fisikoak izateaz gain, inpaktua erabatekoa da. Mutilazioaren ostean, halaber, harrez aldatzen da sentsibilitate sexuala, harreman sexualak zailagoak edo ezinezkoak bihur daitezke, apetitua eta loa aldatu ditzake, autoestima baxua, depresioa eta antsietatea eragin ditzake...

Hazten zarenean eta sexu-harremanak izaten hasten zarenean konturatzen zara zure familiak egin dizuna ez dela ona. Ez dago ongi. Mozketa nola egin dizuten, min handiagoa ala txikiagoa ematen dizu, sexu-harremanak izateko gogo gehiago edo gutxiago izaten duzu. Sexu-harreman guztietan nabaritzen duzu. Ukitzen zaituzten bakoitzean, une hura gogoratzen duzu.



Ezin dut plazerik sentitu, ezin dut maitasunik eman, ezin dut jasotakoa itzuli. Gaizki sentitzen naiz amodioa egiten dudanean. Izaten ditudan harremanak oso laburrak izaten dira: maitasunik ezin dietenez eman, iruditzen zait nitaz nazkatuko direla, ezin dudalako ez plazerik ez kitzikapenik sentitu. Iruditzen naiz naizela guztiz emakumea.

Patriarkatua: emakumeen mutilazio genitalaren kausa

Emakumeen osotasun fisikoaren eta psikologikoaren aurkako eraso da mutilazio genitala. Eskubideen urraketa larria da, eragindako kaltea oso gogorra eta iraunkorra delako (hau da, denboran irauten du); izan ere, bizitza osorako ondorioak ditu. Ohitura hori praktikatzeko ematen dituzten arrazoiek erakusten dutenez, patriarkatuaren ondorioa da. Gainera, beste indarkeria-mota batzuekin lotuta egon daiteke: behartutako ezkontzarekin eta familia barneko indarkeriarekin, alegia.

EMG praktikatzeko emandako arrazoiak

Emakumeen mutilazio genitala genero-indarkeriaren eta berdintasun ezaren adierazpena da, eta gizarte-, kultura- eta erlijio-egituretan oso errotuta dauden sinesmenen eta pertzepzioen bidez sustatzen eta betikotzen da. Mutilazioak egiteko emandako arrazoiak askotarikoak dira, eta emakumeen aurkako indarkeriarekiko lotura erakusten du.

} Sozialak: Neskatoak helduarora iristeko inimizazio-errietoa da; hau da, komunitateko kide bilakatzeko urratsa da, bai eta taldearen kohesioa eta identitate soziala mantentzeko bidea ere. Ohitura hori mantentzen duten herentzia kulturala eta gizarte-egitura oso indartsuak dira, eta tradizioaren bidez errotzen eta sustatzen da, bai eta helduen aurretiko esperientziaren bidez ere. Hori dela eta, presio soziala oso handia da, eta ohitura horri

uko egiten dioten emakumeak baztertu eta bakartu egiten dituzte.

Txikia zarenean pozik zaude, zure lagun guztiak mutilatuta daudelako. Besteak bezalakoa izan nahi duzu. Hain zuzen, ziur aski nire alabak pozik egongo dira orain, laster egingo dietelako.

} **Sexualak:** EMG emakumeen sexualitatea kontrolatzeko metodo bat da, eta ezkondu ahal izateko ezinbestean bete beharreko baldintza. Emakumeen birjintasuna eta fideltasuna bermatzen dituela irizten dute, biak ere familia osoaren ohoreari lotutako elementuak. Horrez gain, mutilatutako emakumeak senarraren sexu-plazera handitzen duela argudiatzen dute.

Emakumeok ez bagara mutilatzen, pentsatzen dute prostituitu egingo garela, ez gaudela garbi.

} **Terapeutikoak:** emakumeen ugalkortasuna areagotzen duen ustea ere zabaldua dago, bai eta erditzea errazten eta fetuaren bizia babesten duen ustea ere. Horrez gain, erditzeko unean, haurtxoaren buruak klitoria ukitzen badu hil egin daitekeela pentsatzen dute.

} **Higienikoak eta estetikoak:** emakumearen kanpo-genitalak zikintzat eta itsusizat hartzen dituzte; beraz, emakumeari genital horiek kentzean, garbi eta polit bihurtzen da.

} **Espiritualak:** mutilazioa arimaren garbitasunarekin lotzen dute; horrenbestez, mutilazio genitala egiten ez zaien emakumeak lizuntzat hartzen dituzte, eta ez diete uzten elikagaiak edota edariak maneiatzen.

Lotura beste indarkeria-mota batzuekin: behartutako ezkontza eta familiako indarkeria

EMG ez da isolatutako jarduera bat; emakumeen giza eskubideen beste urraketa batzuekin du lotura, eta haiengana egiturazko indarkeriaren testuinguruan sartzen da.



Emakumeok ez dugu boteririk. Jaiotzen garen unetik, bizitza ez da bidezkoa. Urte gutxian bakarrik ikas dezakegu. Gehiago ikasten badugu senarrari aurka egingo diogunaren beldur dira. Haien ustez, hezkuntzak matxinada dakar. Gizonak du botere osoa.

Lotura estua du behartutako ezkontzarekin. Leku askotan, emakume batek ezkondu ahal izateko, ezinbestean egon behar du mutilatuta; hala izan ezean, baztertu egiten dute harekin ezkontzekoa den gizonak eta bere familiak, bai eta komunitateak ere. Mundu osoan, leku askotan behartzen dituzte neskek oso gazte ezkontzera (Clara hamabost urterekin behartu zuten); ez diete uzten norberaren bizitzarekin lotutako erabakiak hartzen, eta indarkeriaz betetako bizitzara bideratzen dituzte.

Familiak hartzen ditu zure erabakiak, senarra bilatzen dizu. Batzuetan, gizona izaten da zure bila joaten dena, eta zure familiari esaten dio. Beste batzuetan, zure familia da zuretako gizona bilatzen duena.

14 urte nituenean moztu ninduten. Urtebeteren ostean, senarra lortu zidaten. Aitak esan zidan gizon batek nirekin ezkondu nahi zuela; berrogei urteko gizon bat zen. Egun batean, gizon hori etorri zen etxera eta ezkonsaria eskaini zuen.

Nire aitak onartu egin zuen, nire familiak onartu egin zuen. Baina nik ez nuen nahi. Esan nien gizon hura ez zela nire belaunaldikoa, askoz ere zaharragoa zela eta ez nuela berarekin ezkondu nahi. Urtebete eman nuen esaten ez nuela ezkondu nahi. Dena den, nire ama hil ostean (nire ahizpa txikia erditu zuenean hil zen), nire familia haurraren ardura ekonomikoa hartuko zuen norbaiten bila hasi zen. Gizon hark beste emazte bat eta bi seme-alaba zituen. Nire senarraren familiarekin bizitzera eta bere beste seme-alabak haztera behartu ninduten.

Garai hartan, eskolara joaten jarraitu nuen, baina neskek iseka egiten zidaten gizon zahar batekin ezkondu nengoelako. Niri lotsa ematen zidan, eta joateari utzi nion. Gizon haren ondoan eman nituen zazpi urteetan ez nuen lagunik izan. Etxeko lanak egiten nituen, nire alabak zaintzen nituen eta fruta saltzen nuen; besterik ez. Nire senarrak egoera ekonomiko ona zuen arren, ez zidan dirurik ematen. Nire poltsikotik ordaintzen nuen arropa eta behar nuen guztia.

Arazo asko nituen. Nire aitari askotan kontatu nizkion, baina konformatzeko esaten zidan, horixe zela ezkondu egotea. Nire senarrak lan egiten zuen, dirua zuen, eta beraz, berarekin geratu behar nuen. Nire familia oso berekoa izan zen, diruan bakarrik pentsatzen zutelako, eta ez nire sufrimenduan.

Ezkontzera behartzean, askotan, etengabeko tratatu txarrak jaso behar izaten dituzte, eta pobreziazko, indarkeriazko eta babesgabeko egoera batean sartzen dira, urteetan zehar iraungo duen egoera batean. Emakume horietako gehienek abusuak eta behartutako sexu-harremanak jasaten dituzte.

Haienganako diskriminazioak eta indarkeriak komunitatearen babesa du, eta erakundeek, jokabide horiek onartzeaz gain, ez dute gaitasunik emakumeak babesteko. Egoera horrekin hautsi eta bizitza berregitea erabakiz gero, estigmatizazio berritza jasan behar izaten dute, eta gizartean baztertu egiten dituzte; horrez gain, senarraren, haren familiaren edota komunitatearen jazarpena ere izan dezakete.

Nire senarrarekin arazoak izaten hasi nintzen, ez baitzuen nahi nik fruta saltzerik. Uste zuen beste gizon bat bilatzea zela nire asmoa, ez dirua irabaztea. Beraz, merkatura joatea debekatu zidan, eta etxean geratzeko esan zidan. Baina ez zidan dirurik ematen, ezertxo ere ez. Esan nion, dirurik ematen ez zidanez, behartuta nengoela etxetik irtetera. Itzultzean, jo egiten ninduen.

Egun batean gaueko hamarretan iritsi nintzen etxera, eta jipoitu egin ninduen. Etxetik ihes egin nuen, baina errepresalia gisa, bere hamabi lagunek eraso egin zidaten eta etxera eraman ninduten.

2010ean berriz saiatu nintzen. Nire familiaren etxean ezkutatu nintzen, eta aitari esan nion gizon harekin itzuli baino nahiago nuela hil. Lehenbiziko lau hilabeteetan alabak nirekin izan nituen, baina gero nire senarraren familia etorri zen eta eraman egin zituzten.

Zortzi hilabeteren ostean, nire aita eta senarra akordio batera iritsi ziren. Esan zidan arazo guztiak konpondu zituztela eta ezin nuela etxean jarraitu. Nire senarrarekin itzuli behar nuela. Aukera bakar bat nuen: nire aitari ezkonsaria emango zion beste senar bat aurkitzea. Garai hartan mutil bat ezagutu nuen. Esan nion ezkontza-proposamena egiteko. Aitari kontatu nion. Bazirudien ados zegoela, baina nire senargaia kristaua zela jakin zuenean, ezetz esan zidan. Inolaz ere ez zuen onartuko bere alaba kristau batekin ezkontzea, familia guztia musulmana baitzuen.

Nire gauzak hartu nituen eta nire mutil-lagunarekin bizitzera joan nintzen.

Dena den, ez bere familiak ez bere senarrak ez zuten onartzen Clarak bere bizitzaren agintea hartzea, eta are gutxiago, aitarren eta senarraren aginduak ez betetzea.

Nor: jazarpen-eragileak eta estatuaren eginkizuna

Jazarpen-eragileak

EMG emagin tradizional batek egin ohi du, eta gizartearen legitimizazioa eta babesa ditu. Komunitateak eskatzen duen jarduera bat da, aipatu diren arrazoiak direla eta.

Mutilazioa emakumeak bizi diren lekuetan egiten da, hiriburuan edota landa-eremuetan. Niri basoan egin zidaten, gizonik sartu ezin den leku isolatu batean, Adineko andreak eta mutilazioa egingo zaien neska gazteak bakarrik egon daitezke bertan. Hiru hilabetez egon ginen han, irten ezinik. Han jaten genuen, han lo egiten; han bizi izan ginen denbora hartan guztian.

Behartutako ezkontzak oso zabaldua dauden jarduerak dira, emakumeen salerosketak; gizonen eta familien jabetzat hartzen dituzte, eta trukerako erabiltzen. Ezkontzera behartzean, askotan, senarraren, familien eta komunitatearen etengabeko tratu txarrak jasan behar izaten dituzte; hala adierazi du Clarak, zer jazarpen jasan behar izan duen kontatzean.

Estatuaren eginkizuna

Azken urteetan, zenbait urrats egin dira, EMG desagerrarazteko. Clarak adierazi duenez, bere herrialdean debekatu egin dute jarduera hori, eta horrez gain, zenbait erakunde gaiaren inguruan sentsibilizatzeko kanpainak egiten ari dira komunikabideetan. Hala eta guztiz ere, emakumeen mutilazioa genituala egiten jarraitzen dute.

Gineako Errepublikan, mutilazioa legez kanpo dago 1965etik, baina legea ez da betetzen; gainera, oso jende gutxi daki lege hori badela ere. Gobernua mutilazioaren

aurka dago, baina jendeak indar handiagoa du. Familiak hartzen dituzte beren alabei lotutako erabakiak. Askotan, polizia etxeetara joaten da, ohitura hori geldiarazi nahian, baina familiak denetik botatzen diete, eta ez diete gerturatzeko uzten.

Telebistan sentsibilizazio-kanpainak egiten dituzte, baina ez dute eraginik familiengan; oso errotuta dagoen ohitura da. Baliteke jendeak entzutea, baina egoera ez da aldatzen; neska txikien mutilazioa egiten jarraitzen dute.

Emakumeen aurkako indarkeriari heltzeko, ikuspegi integral batetik abiatu behar da, indarkeria hori zerk eragiten duen eta gizartean nola irauten duen kontuan hartuta. Estatuak ahalegina egin arren jarduera jakin batzuk errotik mozteko, emakumeen aurkako egiturazko indarkeria sistematiakoak bere horretan jarraitzen du; esaterako, sistema hori zalantzan jartzen duten emakumei askatasuna gabetuz.

Zenbait kontakturi esker, nire aitak lortu zuen polizia ni atxilotzera etortzea. Nire mutil-lagunarekin bizitzen bi aste neramatzanean, nire aitaren anaia bat etorri zen etxera, poliziarekin. Atxilotua izan eta hurrengo egunean, nire aita eta senarra etorri ziren. Esan zidaten egin nuenak familia osoa lotsarazi zuela, eta beraz, zigorra merezi nuela: poliziak astebetetzeko joko ninduen. Poliziak ez ninduen jo, baina lau egun eduki ninduten ziega batean sartuta.

Egiturazko indarkeria horri ez bazaio heltzen ikuspegi sistemiko eta integral bat oinarri hartuta, ez da helburua lortuko, uanean uneko ahaleginekin ezingo baitira emakumeen aurkako erasoak geldiarazi. Clarari, azkenean, polizia batek lagundu zion, Clararen senarrak hura hiltzeko erosi nahi izan zuen poliziak, hain zuzen; polizia hark herrialdetik ihes egiteko esan zion.

Atxilotuta nengoen bitartean, nire senarrak auto bat eskaini zion komandanteari, ni pozoitzearen truke. Poliziak kontaktu zidan. Esan zidan ez zidala minik egin nahi, herrialdetik ihes egin behar nuela, han gelditzen banintzen arrisku larriaren egongo nintzela, nire senarrak hil egingo ninduela.



Ez nuen nahi, ezin nituen han utzi nire alabak eta ahizpa. Poliziak hausnartzeko eskatu zidan, haiengan pentsatzeko. Ez nekien zer egin, nora joan, ez nuen dirurik. Nire aitaren anaia bat han bizi zen. Poliziak dirua utzi zidan.

Etengabeko indarkeria horren aurrean, estatuaren erantzukizuna da emakumeak babestea. EMG, behartutako ezkontzak eta familiako indarkeria delitutzat hartzeak jarduera horien zigorgabetasuna gutxitzen lagundu dezake; hala ere, jarduera horiekin lotutako legeak onartzeak ez du bermatzen jarduera horiek prebenitzeko eta desagerrarazteko praktikak eta politika publikoak gauzatuko direnik. Indarkeria patriarkalei dago-kienez, askotan, estatuko egiturek indartu egiten dituzte jazarpen horiek, aktiboki parte hartuz eta onartuz; gainera, ez dute inolako borondaterik agertzen jarduera horiek desagerrarazteko edota ez dute horretarako inolako gaitasunik.

Asilo-eskubidea, emakumeen mutilazio genitalaren eta behartutako ezkontzaren aurrean

Ihes egitea

Indarkeriak eta mehatxuek bultzatu zuten Clara bere sorterritik alde egitera. Leku seguru bat bilatzeko bidaiari ekin zion, alabak bertara eraman eta indarkeriarik gabe bizi ahal izateko.

2012ko uztailaren 10ean joan nintzen Gineako Errepublikatik, eta hilaren 15ean iritsi nintzen Rabatera. Osabaren etxean eman nuen astebete, baina ihes egin nuela jakin zuenean, alde egin behar izan nuen. Aitak deitu egin zion, eta osabak Marokoko poliziari salatuko ninduela mehatxu egin zidan. Marokon bizi izan nuena oso gogorra izan zen. Nadorrera joateko dirua lortu nuen. Hila-bete igaro nuen basoan, 'Tranquilo' esaten dioten leku batean. Oso baldintza txarretan bizi ginen: janaririk gabe, ezin garbitu, lurrean lo egiten...

Irailaren 31n zodiak batean ontziratu nintzen, beste 58 pertsonarekin. Hiru egunez galduta egon ginen, jitoan. Arrantza-ontzi batek erreskatatu ostean, Motrileran eraman gintuzten. Bi egun eman nituen polizia-etxean, eta gero, Algecirasko Atzeritarrak Barneratzeko Zentrora (ABZ) eraman ninduten. Handik, Gurutze Gorriak Utreran duen emakume-zentro batera. Hila-betez egon nintzen han.

Madrilera joan nintzen, lagun batek ziurtatu baitzidan lana topatuko nuela. Bera prostituta da, eta esan zidan horrela dirua lortuko nuela. Baina nik ez nuen hori egin nahi. Ez dut prostituitu nahi.

Gertatutako guztia kontatu nion Boli Kostako lagun bati. Hark esan zidan asiloa eska nezakeela.

Asilo-eskubidea

Espainiak ukatu egin zion asilo-eskaera Clarari. Hala ere, jazarriak direlako ihes egiten duten pertsonak asiloaren nazioarteko babesa jasotzeko eskubidea dute, arrazoi hauek direla eta:

} Emakumeen mutilazio genitala, behartutako ezkontza eta familiako indarkeria oinarritzko giza eskubideen urraketa larriak, sistematikoak eta iraunkorrak dira; izan ere tratu gizagabe eta iraingarri horiek torturatzen ere har daitezke. Horietako bakoitza, berez, jazarpen-mota bat da.

} Mutilazio genitalaren, behartutako ezkontzen eta familiako indarkeriaren biktimek *gizarte-talde* bat osatzen dute asilo-eskubidearen esparruan, emakume izateagatik jasan baituzte eraso horiek.

} Asilo-eskubidearen arabera, *iritzi politikoak* dira ekintza horien eta giza eskubideen urraketen aurka egotea, eta indarkeriarik gabe eta autonomiaz bizitzearen aldeko emakumeen borroka; izan ere, "agintariek eta gizarteak ez dituzte onartzen iritzi horiek, beren politikei, ohiturei eta metodoei kritika egiten baitiote"¹³. Horrek gurasoei ere eragiten die, mehatxuak jasotzen baitituzte jatorriko herrialdeetan beren alabak ez mutilatzeagatik.

} Emakumeen mutilazio genitala ez dago erlijio jakin bati lotuta. Hala ere, zenbait komunitatek diote erlijio-betebeharrengatik egiten dutela. Kasu horietan, emakume edo neskatoren batek (edota gurasoek) mutilazioari uko egiten badiote, asilo-eskubideak erlijio arrazoiengatik jazarpena barne hartzen du.

} Jatorriko estatuak ez du nahi edo ezin ditu babestu emakume horiek.

} EMGren aurkako legedia gobernuek egindako aurrerapen handia da emakumeen oinarriko eskubideen aitoparen arloan, eta esparru juridiko bat sortzen du, hortik abiatuta mutilazioak desagerrarazteko. Dena den, oraindik ez du eragin handia izan praktikan¹⁴. Gauza bera gertatzen da behartutako ezkontzekin eta familiako indarkeriarekin. Gainera, emakumeek ez dute salatu nahi izaten, beldurra ematen baitiote agintarien aurrean beren eskubideak erreklamatzeko izan ditzakeen ondorioek. Beraz, legezko debeku formalak ez dira nahikoak estatu batek eskaintzen duen babesa eraginkorra dela ondorioztatzeko.

} Jatorriko herrialdera itzultzeak arriskuan jar ditzake pertsona horiek.



} Babesak barne hartu beharko lituzke mutilatuak izateko arriskuan dauden familiako beste neskatok eta emakumeak.

Erbestean egotearen esperientzia

Clarak, bere alabek eta ahizpak oraindik ez dute aurkitu indarkeriarik gabe bizitzeko leku hori. Asilo-eskaera ukatu egin zioten, eta administrazio-egoera irregularrean dagoenez, indarkeria-ekintza eta arrisku berriei aurre egin beharko die. Atxilotua izateak, ABZ batean sartzeak, deportazio bat jasateak, jatorriko lurraldera itzularazteak, alabak eta ahizpa mutilatuak izateak eragindako beldurrarekin bizi da.

Hala eta guztiz ere, Clarak ez du amore ematen. Gogor eutsiko dio, bizi izandako esperientziak eta oraingo egoera gogorrik

¹³ Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren (ACNUR) definizioa.

¹⁴ Kasu paradigmakoa da Etiopiarena: han, emakumeen %85 mutilatzen dute, nahiz eta herrialdeko konstituzioak ohitura hori debekatzeko duen.

badira ere. Indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea duela defendatzen jarraitzeko indarra ematen dio Clarari berak kontatutakoa sinesten duten pertsonak eta erakundeak daudela jakiteak, bai eta bere alabak eta ahizpa mutilatuak ez izateko eta haien borondatearen aurka ezkonduak ez izateko gogoak ere.

Asiloa ukatu zidaten, eta esan zidaten hamabost egun nituela herrialdetik joateko. Ezin naute behartu nire herrialdera itzultzera. Oso beldurtuta nago. Ez dut inoren menpe

egon nahi, nik neuk hartu nahi ditut nire erabakiak, eta ez dut egin nahi besteek esaten didatena. Lan egin nahi dut, nire alabak eta ahizpa ekarri ahal izateko. Gaizki sentitzen naiz, asko kezkatzen bainau gerta litzaiekeenak.

Baina, bestalde, ongi sentitzen naiz, badakidalako zenbait pertsonak sinetsi egiten nautela, lagundu egiten baitidate •

} Gehiago jakiteko

Wassu-UAB fundazioa

Nazioarte-esparruko erakunde zientifikoa da. Emakumeen mutilazio genitala prebenitzearen alde lan egiten du, jakintza-transferentziari aplikatutako ikerkuntza antropologikoaren eta medikoaren bidez.

<http://www.mgf.uab.cat/esp/index.html>

Fundazio horrek behatoki transnazional bat dauka, emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko estrategia berriei aplikatutako ikerkuntza egiten duena. Bi ikerketa- eta presakuntza-zentro ditu:

} Espainian: Ohitura tradizional kaltegarriak prebenitzeko eta ikertzeko diziplinarteko taldea (GIPE/PTP), Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko (UAB) Gizarte eta Kultura Antropologiako Sailekoa.

} Gambian: Wassu Gambia Kafo (WGK) tokiko GKEa. Osaungintzaren, ikerkuntzaren eta hezkuntzaren alorretako garapen-lankidetzak sustatzen du Gambiaren eta Espainiaren artean.

Emakumeen mutilazio genitala desagerrarazteko nazioarteko kanpaina

Emakumearen garapenaren aldeko AIDOS erakundeak sustatutako kanpaina da, eta Nazio Batuen Biztanleriaren Funtzaren diru-laguntza jasotzen du.

www.stopfgmc.org/default.aspx





Pertsonak sexu-esplotaziorako saleroskea da merkatuaren adierazpiderik larriena sistema kapitalista eta patriarkal honetan; emakume askok ez dute aukerarik migrazio-bidaia duin bati ekiteko, eta horren ondorioz, egoera lazgarriaz jasan behar izaten dituzte, infernu bat bizi behar izaten dute.

Giza eskubideen urraketa larrienetako bat da, eta esklabotza modernotzat jo daiteke. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) arabera, Espainiar estatua da pertsonen salerosketa-sareen helmuga edo pasabide diren herrialde nagusietako bat; errealitate horren isla, urtez urte gero eta gehiago dira arrazoi hori dela eta asilo-eskaera egiten duten atzerriko (batez ere, Nigeriako) emakumeak. Pertsonen salerosketa izan da genero-arrazoiengatik egin dituzten asilo-eskaeretakako argudio nagusia¹⁵. Pertsonen salerosketaren aurkako Espainiako sarearen arabera, estatuan 40.000 eta 50.000 emakume artean esplotatzen dituzte sexu-helburuetarako.

Errealitate horretatik abiatuz, eta emakumeek *Hegoaldeko muga* deritzen eremutik pasatzean jasan behar izaten duten indarkeria kontuan hartuta, atal honetan sexu-esplotaziorako salerosketen sareak izango ditugu aztergai, Afrikatik abiatu eta Europa helmugatzen dutenak.

Lerro hauek idazten ari garen unean bertan, Espainiako gobernuak lehen aldiz aitortu die errefuxiatu-izaera pertsonen salerosketaren biktime izan den emakume nigeriar bati eta haren alabari. Gertaera hori aurrerapen garrantzitsua izan da biktimak nazioartean babesteko mekanismotzat asilo-eskubidea aitortzearen aldeko borrokan; beraz, espero dezagun gertaera horrek

aurrekari bat ezartzea, eta aurrerantzean, pertsonen salerosketa asilo-eskubidea izateko arrazoitzat hartzea. Izan ere, asilo-eskubidearen ukapen hori legediaren, ACNURen jarraibideen eta inguruko ia herrialde guztien irizpideen aurka doa.

Hurrengo orrietan, errealitate hori gertutik ezagutuko dugu, hainbat emakumeren lekukotasunei esker. Hain zuzen ere, emakume horietako bakar bati ere ez diete onartu errefuxiatu-izaera Espainiar estatuan; Charlottek eta Preciousek, gainera, ez zuten lortu bertara iristea, ez eta babesa jasotzeko eskubideaz baliatzea ere. Charlotte Marokon dago harrapatuta, eta Precious itsasoan desagertu zen. Gainerakoei dagokienez, Naomi kanporatu eta bere jatorri-herrialdera bidali zuten; Hopek eta Dorcasek, berriz, lortu zuten Espainiar estatura iristea eta asilo-eskaera egitea, baina ezeztatu egin zieten.

Egunez egun biktimei laguntzen eta justizia aldarrikatzen dihardute Proyecto Esperanza taldeko eta Women's Link Worldwide fundazioko kideek; hain zuzen, haiek eman dizkigute bost emakume horien lekukotasunak. Emakume horien ahotsak elkarri lotuz doazen hariak dira, eta azkenean, duintasunaren aldarri bihurtzen dira, indarkeria-mota horren eta indarkeria-mota horren arduradunen aurkako aldarri.



Pertsonak
sexu
esplotaziorako
saleroskea

¹⁵ CEAR-Euskadik egin duen ikerketatik ondorioztatutako datuak dira; ikerketa horretan, CEAR erakunde zerbiztu juridikoek 2009 eta 2012 artean izapidetu dituzten genero-arrazoiengatik asilo-eskaerak aztertu dira. Datu horiek, gero, ACNURek eta Asilo eta Babeserako Bulegoak emandako datuekin kontrastatu dira.

} Zer da?

Pertsonen salerosketa, bereziki emakume eta haurren, prebenitu, zigortu eta zehatzeko Nazio Batuen protokoloa, **Palermo Protokoloa** deritzona, 2003. urtean berretsi zuen Espainiar estatuak. Protokolo horren arabera, pertsonen salerosketa esamoldeak hau adierazten du: *pertsonak biltzea, garraiatzea, lekualdatzea, babestea edo hartzea, horretarako baliatzen baldin bada mehatxuaz edo indarraz edo indarkeriaren beste forma batzuetaz edota bahiketaz, iruzurraz, engainuaz, botere abusuaz, ahultasun egoeraz edo ordainketak edo onurak emateaz edo hartzeaz pertsona baten adostasuna eskuratze-ko, pertsona horrek beste pertsona baten gaineko agintaritzak badu, betiere esplotazio helburuekin. Esplotazio horrek barneratzen ditu, gutxienez ere, inoren prostituzioaren esplotazioa eta sexu-esplotaziorako beste forma batzuk, derrigorrezko lan edo zerbitzuak, esklabotza edo esklabotzaren antzeko praktikak, morrontza edo organoak ateratzea.*

Pertsonen salerosketan, biktimaren baimena edo onespenera hutsala da, mehatxuak, engainua, indarra edo beste indarkeria-forma batzuk erabiltzen baitira esplotazio-helburua lortzeko. Bestalde, pertsonen salerosketa ez da pertsonen trafikoarekin nahasi behar.

} SALEROSKETA

- Engainua, esplotazioa, hertsadura edo mendean hartzea.
- Ez dago onespenerik, edota onspen hori ez da zuzena. Adingabeek ezin dute inoiz onspena eman.
- Egoera hori nazio barrukoa edo nazioz haraindikoa izan daiteke, biktima beste estatu batera eramaten den edo ez kontuan hartuta.
- Egoerak denbora luzean jarraitzen du.

} TRAFIKOA

- Ez dago engainurik, esplotaziorik, hertsadurarik edo mendean hartzerik.
- Onspena du.
- Beti da nazioz haraindikoa.
- Pertsona bere helmugara iristean amaitzen da.

Iturria: Women's Link Worldwide

Naomíri (Nigeria) familiako lagun batek eskaini zion Europa bidaiatzeko aukera, etxeko lanetan lan egin, ikasi eta bere etorkizuna landu zezan. Bere herrialdean inoiz izan ez zuen aukera zela iruditu zitzaion; hala, 2006an, Espainiar estatura iritsi zen. Tratulariak orduan esan zion 20.000 euroko zorra zuela berekin bidaia-gastuengatik, eta beraz, poligono batean gauez prostituzioan arituz ordaindu beharko ziola. Zerbitzua gehiago kobratu nahi izanez gero, sexu-harremanak babesik gabe izatera behartuta zegoen; horrenbestez, haurdun gelditu zen, baina abortarazi egin zioten. Sareak mehatxu egiten zion, etengabe, zorra ordain zezan.

Dorcasi (Kongoko Errepublika Demokratikoa) modelo gisa lan egiteko eskaintza egin zioten: *Kongon, bizimodu arrunta neraman: amarekin eta nebarekin bizi nintzen, ikasi egiten nuen eta arropa-dendetarako modelo-lanak egiten nituen. Egun batean, moda-desfile batean nengoela, emakume bat ezagutu nuen, eta hark Europara bidaiatu eta bertan modelo-lana egiteko aukera eskaini zidan, dirua irabazteko aukera. Baldintza bakarra nuen: ezin nion inori esan, ez nire amari, ez nire familiari. Inori ere ez. Nire amarengan pentsatu nuen, nire familiaren egoeran; ez genuen ezer, ez baliabide, ez lan... Azkenean, beraz, emakume hartan fidatu nintzen, eta ez nuen ezer esan.*

Salerosketa nazioz haraindikoa negoziatzea da, eta urtero, 7.000 milioi dolarreko irabaziak sortzen ditu pertsonen esplotazioaren bitartez. Munduan, dirua irabazteko dauden legez kanpoko negozioen artean, hirugarren lekuan dago, droga-trafikoaren eta arma-trafikoaren atzetik.

Jazarpena jatorriko herrialdean, bidean eta helmugako herrialdean

Datuen, estatistika ofizialen eta jarraipen-mekanismoen ga-bezia orokorra izan arren, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) arabera, munduan 2.500.000 pertsonari eragiten dio pertsonen salerosketak, emakumei eta neskei, batez ere. Drogaren eta Delituaren Aurkako Nazio Batuen Bulegoaren

arabera (UNODC ingeleseko siglak), estatuek hautemandako biktimen bi heren emakumeak dira, eta sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak, %79.

Bestalde, erakunde horren beraren arabera, 10.000 pertsona inguru (batez ere, emakumeak eta adingabeak) trafikoaren biktima dira urtero, eta Nigeriatik ateratzen dituzte eskualde horretako herrialdeetan (Benin, Boli Kosta eta Gabon), Europan (Italia, Espainia eta Erresuma Batua) edo Golkoko herrialdeetan (Arabia Saudi) esplotatzeko.

Hegoaldeko muga arriskutsua zeharkatuz Espainiar estatura iristea lortzen duten pertsona gehienak gizonak dira. 2012an, %6 soilik izan ziren emakumeak, eta %5, adingabeak. Emakumeek, ordea, indarkeria fisikoa eta sexu-indarkeria nagusi diren ihesaldia bizi behar izaten dute. Bidaiaren arriskugarritasuna eta gogortasuna areagotu egiten dira, eta atzemaile, pasatzaile, patroli edo *connection man* deritzenak dira aurrera egiteko aukera bakarra, bakarrik bidaiatzea ezinezkoa baita.

Precious (Nigeria) Europara lan egitera eramango zuen sare baten babesean irten zen bere herrialdetik. Bidaia luzea egin zuen. Beningo muga gurutzatu zuen, eta Bamakora (Mali) iritsi zen; han prostituitzera behartu zuten.

Bamakon igarotako unek oso txarrak izan ziren; han hasten da, hain zuzen, gerora Europan izango duzun bizimodua. Connection man deritzonak nahi duen gizon guztiekin oheratu behar izaten da, eta ez dago preserbatiborik; ez dago babestuko zaituen ezer, eta gaixotasuna, berriz, asko.

Bidean egindako etenaldi horren ondoren, Aljeria eta Mali arteko basamortua zeharkatu zuen kamioi batean, beste hogeita hamar emakumerekin batera, abereak bailiran. Emakumeetako batek haurtxo bat zeraman besoetan, baina ibilgailuak egiten zituen mugimendu bortitzak eta amaren nekea zirela-eta kamioitik behera erori zen haurtxoa. Kamioi-gidaria ez zen gelditu, eta haurtxoa urunean gelditu zen, basamortu erdian.

Aljeriara iristean, Maghnia eremuko baso batera eraman zuten Precious; etorkin ugari zeuden bertan bilduta. Han jakin zuen

hurrengo geldialdia Ceutako mugan izango zela, eta handik abiatuta, Espainiar estatua izango zela bere helmuga. Egoera hartatik ihes egitea pentsatu zuen; prostituzioan arituz 40.000 euroko zor bidegabea ordaintzea ez zen etorkizunerako zuen asmoa.

Emakume horietako askorentzat, Europara bidaiatzea pobrezia-tik eta bazterkeriatik ihes egiteko aukera bat da. Benin City hiria Edo State estatuko hiriburua da, eta Drogaren eta Delituaren Aurkako Nazio Batuen Bulegoaren arabera, bertakoak dira Europara sexu-esplotaziorako ekarritako emakume nigeriarren % 94; hain zuzen, Beninen, neska gazteen artean, hirutik batek jaso du Europara "lan egitera" etortzeko eskaintzaren bat.

Hoperi (Kongoko Errepublika Demokratikoa) ere modelo gisa lan egitera etortzeko eskaintza egin zioten: *Modelo gisa egiten nuen lan, eta asko gustatzen zitzaidan; orduan, berarengan uste osoa nuen neska batek elkarrekin Europara etor gintezkeela esan zidan. Oso ideia ona iruditu zitzaidan, dirua irabaziko nuela eta nire ama ekarri ahal izango nuela pentsatu bainuen. (...) nire herrialdean oztopo ugari daude lana aurkitzeko, eta oso zaila da Europara bidaiatzea. Halere, beldurra eman zidan inori ez niola kontatu behar esan zidanean; oso kezkatuta egon nintzen gai hori zela eta.*

Zenbait erakundek (esaterako, Women's Link Worldwide) informazio bildu dute Saharaz hegoaldeko Afrikako emakume askok beren jatorri-herrialdetik Marokora bidean (handik sartzen baitira Europara) egiten dituzten bidaia luze eta arriskutsuetan jasan behar izaten dituzten sexu-abusuei eta -indarkeriari buruz. Gehienek sexu-abusuak eta -indarkeria jasaten dituzte, hainbat eragileren aldetik: bidaia-lagunak, Marokoko, Aljeriako eta Espainiako segurtasun-indarrak, gaizkile arruntak eta pertsonen salerosketan jarduten duten sareetako kideak.

Charlotte (Kongoko Errepublika Demokratikoa) Marokon dago harrapatuta, eta honela kontatzen du bizi duen egoera: *Marokon nagoenetik, hiru aldiz deportatu naute, eta mugan derrigorrezkoa da Marokoko eta Aljeriako poliziaekin oheratzea. Alabaren aurrean bortxatu izan naute, eta mugako bortxaketa horietako baten ondorioz, berriro haurdun gelditu*

nintzen; nola edo hala, haurdunaldi hori eteten saiatu naiz. Ni ez naiz Marokoko edo Aljeriako polizien emaztea! Emakume askea izan nahi dut! Marokok ez gaitu errefuxiatutzat aitortu nahi, ez gaitu ikusi nahi. Mesedez, bilatu iezaguzue lasai bizi ahal izango dugun lekuren bat!.

Emakume asko beren jatorri-herrialdeetako salerosketa-sareek harrapatzen dituzte. Promesa faltsuak eginez eta gezurrezko lan-aukerak eskainiz engainatzen dituzte. Ez dakite prostituzioan aritzera behartuko dituztela, eta daki-tenek ere, ez dute jasan behar izango dituzten esplotazio-baldintza gogorren berririk; hau da, indarkeria, bortxa, familienganako mehatxuak... Sareek dirua, herrialdean sartzeko bideak eta dokumentazioa ematen dizkiete. Behin helmugako herrialdera iristen direnean, ordea, ikaragarriko zorraz izaten dituzte, sareen mende egotera behartzen dituztenak eta prostituzioan arituz ordaindu behar izaten dituztenak. Horrez gain, budismo-errituez eta tradizioko sorginkeriaz baliatzen dira emakumeak psikologikoki mendean hartzeko.

Dorcas *Nire etxeko helbidea eman nion, eta esan zidan eskolatik bueltatzean jasoko ninduela. Nik uniformea neraman jantzita, eta aldatzeko baimena eskatu nion, baina honela erantzun zidan: Ez, ez, ez. Horrela ongi zaude, ez da ezer gertatzen. Zu lasai, denetik erosiko dizut. Uste osoa nuen harengan; beraz, egun hartan bertan joan nintzen, soinean neraman guztia hartuta, nire eskolako gauzak eta guzti. Arropa erosi zidan, eta gero, hegazkinak ikusi nituenean, jabetu nintzen aireportuan geundela.*

Dena zuen prest: pasaporteak, hegazkineko txartelak... Pasaporteko argazkia, ordea, ez zen nirea, eta ez zen nire izena agertzen, nire datuak okerrak ziren. Hegazkina hartu genuen, eta honela esan zidan: "Ez dut nahi zuk ezer esaterik. Norbaitek zerbait galdetzen badizu, nik erantzungo dut. Zuk ez esan ezer, ezta hitzik ere".

Beste emakume batzuk bidean harrapatzen dituzte. Emakume horiek ihes egiten dute genero-arrazoiengatik beste jazarpen-egoera batzuk direla eta: etxe barruko indarkeria, behartutako ezkontzak edota emakumeen genitalak mozte-



ko mehatxua. Halaber, badira gerrako eta indarkeriako testuinguruetatik ihes egiten dutenak ere, beraien gorputzak borrokarako armatzat erabiltzen baitituzte; hala gertatzen da, esaterako, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Somaliar, Aljeriar, Konakryn eta Boli Kostan. Bidaia bakarrik edota beste emakume batzuekin hasten dutenez, bidean harrapatu egiten dituzte, eta sarean sartu.

Charlotte *2000. urtean egin nuen ihes nire herrialdetik. Ruandarrak sartu ziren etxean, nire senarra hil zuten, eta nire alaba zaharrena bortxatu zuten nire aurrean. Une horretan, nire seme-alabekin ezkutatzera joan nintzen. Eskubideak errespetatzen diren herrialde bat nahi dut, asilo-eskubidea onartzen duten Europa, giza eskubideen Europa.*

Bidea luzea eta zaila da. Hainbat herrialdetatik pasatu naiz: Kongo (Brazzaville), Kamerun, Nigeria, Benin, Mali, Aljeria eta Maroko. Eta bidean, denetarik gertatu zait: hainbat lanbidetan jardun dut (etxeko lanak egiten, ahuntzak zaintzen...), bortxatu egin ninduten, eta horren

ondorioz, haurdun gelditu nintzen. Erditu nuenean ere, ez nuen non lo egin.

Orbainez betetako emakumea naiz, basamortuko deportazioen ondoriozko orbainak, bidearen ondoriozkoak, bortxaketenak. Asko sufritu dut, eta hori nabari da bai nire gorputzean bai nire barrenean.

Emakume horiek guztiek estrategiak garatzen dituzte bidaian izaten dituzten arriskuetatik bizirauteko. “Bideko senarrak” deritzenak (sareko kideak), paradoxikoa bada ere, emakume horien “babesle” bihurtzen dira, betiere sexuaren eta etxeko lanen truke, eta haien gaineko kontrol osoa izanik.

} Arrazoiak

Pertsonak sexu-esplotaziorako salerostea ez da fenomeno berria, historian betidanik gertatu izan baita; munduan emakumeek bizi duten desberdintasun-egoeraren eta haien aurka egiten den indarkeriaren muturreko adierazpena da, egunerokoa, ikusezin bihurtu nahi izan dena.

Faktore askok eta askok eragin dute eta eragiten dute pertsonak Afrikatik Europara ekartzeko dauden salerosketasareak sortzea, ugaritzea eta finkatzea.

Hainbat herrialdetan (adibidez, Nigerian), pobrezia endemikoa dago, urte askotako ustelkeria eta hainbat gobernuak eta atzerriko enpresa multinazionalak egin duten baliabideen arpilatzea dela eta; horren ondorioz, pertsona askori (batez ere, gazteei) bizimodu duina eta segurua izateko eskubidea kendu diete, eta funtzionarioak, komunitateetako liderrak eta agintari politiko zein erlijiosoak biltzen dituzten sareak sortu dira. Sistema patriarkatuaren eta kapitalismoaren biktima nagusi diren emakumeei bereziki eragiten die pobrezia, bai eta pertsonak ikusezin bihurtzearekin eta haien salerosketarekin lotutako fenomenoek ere. Horregatik, askotan, emakumeek eurek ekiten diote migrazio-



bideari, familia eta komunitatea zaintzeko “berezko” ardura duten aldetik.

Bestalde, segurtasun-politikekin eta legez kanpoko immigrazioaren kontrako borrokarekin itsututa, Europak bere mugak itxi ditu antolaketa militar eta polizial zabal baten bidez, eta noski, horrek izugarri zailtzen du nazioarteko babesaren behar duten pertsonak bertara heltzea, ihesa bera ere indarkeria-mota berri bihurtu baitu (orain gutxi gertatu da naufragio handi bat, Lampedusaren itsas bazterrean). Europa gotorlekuaren errepresio-zirkuitua, gainera, gero eta sendoago bihurtu da Frontex¹⁶ agentziaren zabaltzearen, iragaitzako herrialdeekin izenpetutako akordioen, hirugarren herrialdeetan ezarritako atxilotaketazentrotan eta antzeko beste hainbat ekimenen ondorioz.

Espainiar estatuak, Europako Hegoaldeko muga den aldetik, migrazio-fluxuen ‘kontrol-sistema’ bat garatu du, bere jurisdikzioa estatuko lurraldearen mugetatik harago eramaten duena; horrenbestez, nazioarteko uretan eta iragaitzako he-

¹⁶ Europar Batasuneko estatu kideetako kanpo-mugetan lankidetzaren operatiboa kudeatzeko Europar Agentzia.

rialdeetan jarduten du, eta akordioak egiten ditu jatorriko herrialdeekin, haien kostaldeetatik irteten diren pertsonak kontrola ditzaten.

Migrazioarekin eta asiloarekin lotutako Europako legeak eta politikak etengabe gogortuz joateak pertsonen salerosketa-sareak indartzea eragin du; sare horiek gero eta profesionalagoak dira, eta hobeto antolatuta daude.

Azkenik, aipatu behar da pertsonen salerosketa ez dela kultura-, gizarte- eta politika-jatorriko errealitate bat soilik; hau da, horren guztiaren gainetik, merkatu-errealitate bat da. Kapitalismoaren eta sistema patriarkalaren ikuspegiaren arabera, merkatua gutxiengo batek irabazi gehiago izateko esparrua da, norberaren interesak gehiengoaren giza eskubideak errespetatzearen gainetik jartzen direna. Sare horiek izateko eta ugaritzeko arrazoietakoa bat da sexu-industria hazten ari dela helmugako herrialdeetan, batez ere Europan eta, bereziki, Espainiar estatuan.

Asilo-eskubidea, pertsonak sexu-esplotaziorako salerostearen aurrean

Pertsonen salerosketa Nazioarteko Zuzenbideak debekatutako delituzko ekintza da; horrenbestez, Espainiar estatuak ekintza horiek prebenitu eta horien aurka borrokatu behar du, bai eta ekintza horien biktimak babestu eta haiei lagundu ere. Lehen aipatutako Palermo Protokoloaz gain, nazioarteko komunitateak araudi bat ezarri erantzun dio errealitate horri; araudi horren arabera, pertsonen salerosketa giza eskubideen urraketa larria da, pertsonen bizitzaren, segurtasunaren, askatasunaren eta duintasunaren aurkako eraso bortitza.

Asiloaren Legea¹⁷ eta ACNURek arlo horretan emandako jarraibideak¹⁸ oinarri hartuta, lotura bat egin dezakegu pertsonak sexu-esplotaziorako salerostearen eta asilo-eskubidea onartzearen artean, nazioarteko babes-mekanismoztat.

} JAZARPEN-MODUAK: Emakumeak edo adingabeak sexu-esplotaziorako behartuta edo engainu bidez harrapatzea genero-arrazoiengatik indarkeria-modu bat da (fisikoa, psikikoa eta sexuala), heriotzara eraman dezakeena. Tortura-mota bat da, eta tratua ankerra, jasanezina edo iraingarria bultzatzen ditu; zirkulazio-askatasuna mugatu dezake, pertsonak bahitu, kartzelaratu edota pasaporteak eta bestelako nortasun-agiriak konfiskatu. Beraz, pertsonak sexu-esplotaziorako salerostea jazarpen-mota bat da.

Dorcac Egun batean, jaiki eta bidaiatu bat egin behar genuela esan zidan. Autobus bat hartu genuen, eta denbora luzean bidaiatu ondoren, etxe batera iritsi ginen. Bi neska aurkeztu zizkidan, bainugela zuen logela batean sartu ninduen, eta hantxe giltzapetu ninduen. Esan zidan prostituzioan aritzera etorri nintzela, gustatu edo ez. Eta noski, harekin eztabaidan hasi nintzen: 'Ez dut egingo —esan nion—, ez bainaiz horretara etorri'. Eta berak honela esan zidan: 'Ez baduzu egiten, ez duzu ezer jango'. 'Nahiago dut goseak egon, baina ez dut lan hori egingo' erantzun nion.

Hiru egun pasatu nituen jan gabe, eta jada ez nuen indarrik. Hurrengo egunean, nire logelan mutilak sartzen hasi ziren, babesik gabe, ezer gabe. Egun osoan. Jatekoa ekartzen zutenean soilik hartzen nuen atsedean apur bat. Ez nuen beste aukerarik, ezin nintzen irten, ezin nuen ezer egin. Eta mutilak gelatik irtetea, giltzaz ixten zidan atea.

Hope Beste zerbait egin nezakeen, salatu, esaterako; baina ez nuen xehetasunik, eta ezin izan dut horrelakorik egin. Ez naiz kalearen izenez gogoratzen, hiru hilabetez egon bai-

¹⁷ 12/2009 Lege Organikoa, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzeari buruzkoa.

¹⁸ Nazioarteko Babesari buruzko Artezipideak: genero-arrazoiengatik jazarpena, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Hitzarmenaren 1A(2) artikulua edota haren 1967ko Protokoloaren testuinguruan (ACNUR, 2002). Nazioarteko Babesari buruzko Artezipideak: 1951ko Hitzarmenaren 1A(2) artikulua edo Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1967ko Protokoloa aplikatzea, pertsonen salerosketaren biktimei eta biktima izateko arriskuan dauden pertsonen dagokienez (ACNUR, 2006).

nintzen logela hartan giltzapean, irten gabe. Ez nekien ezer. Ihes egitea lortu nuenean, korrika joan nintzen kale hartatik; ez nuen ezer buruan, ezta poliziarekin hitz egitea ere!.

} JAZARPENAREN ARRAZIOIAK: Asiloaren babesaren lortzeko, jazarpenak (edota jazarria izateko beldurrak) Genevako Konbentzioan zehaztutako motiboetako batekin edo gehiagorekin lotuta egon behar du. Pertsonen salerosketaren kasuan, emakumeak berezi egiten dituzten berezko ezaugarri bat duten *gizarte-talde jakintzat* hartzen dira, eta talde horretako kide izateagatik, jazarpenak dituzte.

} JAZARPEN-ERAGILEAK: Eragile askok eta askok, bai estatukoek bai estatukoak ez direnak, hartzen dute parte jazarpen-modu horretan: sareari lotutako pertsonak; jatorriko herrialdeko funtzionarioak eta agintari politiko eta erlijiosoak; jatorriko, bidean iragaitzak eta helmugako herrialdeetako segurtasun-indarrek; bidaia-lagunak, delitugile arruntek eta, zenbaitetan, baita familiako edo komunitateko kideak ere.

Estatuaren eginkizuna

Asilo-eskaerak aztertzean, jasandako jazarpen horretan Estatuak zer funtzio izan duen jakin behar da. Jatorriko herrialdean pertsonen salerosketa debekatzen duen lege bat izatea ez da nahikoa, baldin eta ez bada modu eraginkorrean aplikatzen, ez badaude administrazio-mekanismo egokiak biktimak babesteko eta haien laguntzeko, edota agintariak delituzko ekintza horiek de facto onartzen badituzte, edota are gehiago, Estatuak zenbait funtzionario ustekak bultzatzen badituzte. Horrelako egoeretan, jazarpen-eragilea Estatu bera izan daiteke, arduradun bihurtzen baita, ekintza gauzatzeagatik edota ezer ez egiteagatik.

Horrez gain, pertsonen salerosketarekin lotuta, bereziki garrantzitsua da Asiloaren Legeak “in situ sortutako nazioarteko babesaren premiak” deritzona; hau da, jatorriko herrialdeetik atera

eta gero izandako gertaerak eragindakoak direnak (esaterako, bidean harrapatzen dituzten emakumeen kasuak).

} ITZULTZEKO ARRISKUAK: Sarean sartuta egoteagatik jasandako jazarpenaz gain, jatorriko herrialdera itzultzea oso arriskutsua izan daiteke biktimentzat, berriro ere jazarriak izateko arrisku larria baitute. Emakumeek, besteak beste, egoera hauetara egin behar diete aurre:

- Sarearen errepresaliak, baita emakumearen familiako beste kideenganakoak ere. Askotan, errepresalia horiek zorraz ez ordaintzeak eragiten ditu.
- Berriro ere salerosketaren sarean erortzeko aukera handia.
- Ostrazismo larria, diskriminazio gogorra edota familiak, tokiko komunitateak edota agintariak eurek ezarritako zigorrak, prostituzioan aritu izanagatik.

Naomí Naomik ACNURen babesarekin eskatu zuen asilo-eskubidea. Hainbat erakundek Naomiren egoerari buruz egindako txostenetan, jatorriko herrialdera itzularazteak haren bizitzarako izan zezakeen arriskua aipatu zen, sareak berriro harrapatzeko benetako arriskua baitzegoen eta, berak behin eta berri errepikatzen zuenez, zorraren zati handi bat ordaintzeko baitzuen oraindik.

Hala ere, eta nahiz eta Espainiar estatuko agintariak zer gertatu zitzaion kontatu bera esplotatu zuen sarea ikertu ahal izateko, Naomiri asilo-eskaera ukatu zitoten.

2010eko martxoaren 17an, agintariak Naomí kanporatu egin zuten bere jatorriko herrialdera, hausnarketa-aldiaren eskaerari inolako erantzunik eman gabe¹⁹.

¹⁹ Berrezarpen- eta hausnarketa-aldiaren xedea da pertsonen salerosketaren biktimei aukera ematea fisikoki, psikologikoki eta emozionalki onera egiteko, tratularen eraginpetik ihes egiteko, eta ongi hausnartutako eta aztertutako erabaki bat hartu ahal izateko, delitugileak ikertzeko eta jazartzeko helburuz agintariarekin elkarlanean aritzeari dagokionez. Aldi horretan, ezin da biktima herrialdeetik kanporatu, eta behar dituen laguntza eta babesaren eman behar zaizkio.

Women's Link Worldwide erakundeak telefonozko elkarriketa baten bidez izan zuen haren berri azken aldiz, eta zituzten zantzuen arabera, sarearen kontrolpean jarraitzen zuen; gainera, haren osasuna ez zen ona.

Arrisku horien aurrean, Espainiar estatuak ez itzultzeko printzipioa bete behar du, pertsona bat haren bizitza edo askatasuna arriskuan jartzen diren edozein lekutara kanporatzea debekatzen duena, hain zuzen. Printzipio hori ez betetzeak nazioarteko babeserako inolako bermerik gabe uzten ditu emakume horiek.

Dorcas Nire herrialdera itzultzea gustatuko litzaidake, nire ama ikusteko. Ez nintzateke han geldituko, ez; hemen hobe-

to nago, eta seguruago sentitzen naiz. Beldur handia izan dut nire amari zer gerta zitzaiokeen pentsatuz. Egun batean, mutil bat joan zitzaion nitaz galdezka, eta hiltzeko mehatxua egin zion, baldin eta ez baninduen aurkitzen. Une horretan lan egiten nuenez, nire amari lagundu nion, beste komunitate batean etxea bilatu zezan.

Hope Nire prozesua [asilo-eskaera] administrazio-bidean dago une honetan. Ez da batere erraza. Gainera, oso urduri nago, ez baitakit zer erantzun emango didaten.

Txarrena da ezin izango dudala nire herrialdera inoiz itzuli; Espainian gelditu beharko dut, ez dakit noiz arte. Gaizki sen-





titzen naiz, ezin dudalako nire familiakoak berriro ikustera itzuli, baina bestalde, ez dut itzuli nahi, oso zail baitago lana bilatzea eta dirua lortzea. Eta gertatu zitzaidana eta gero... segurtasun falta handia dut. Ekarri ninduen emakumeak badaki non bizi naizen, dena daki; baina ez dakit zer nahi duen orain niregandik. Hemen seguru sentitzen naiz.

Asiloa nire egoera legeztatzeko bide egokia da, gertatu zaidana ikaragarria baita, eta orain, seguru sentitu behar dut. Horrela, gainera, bizimodu arrunta eraman ahal izango dut.

Laburbilduz, pertsonak sexu-esplotaziorako salerosketa biktima izatea nahikoa arrazoi da nazioarteko babesa lortzeko, jatorriko herrialdeak babestu ezin duenean edo babestu nahi ez duenean.

Muga

Asilo-eskubideak ematen duen babesa izateko, herrialde seguru batera iristea lortu behar da lehenbizi.

Salerosketen biktima diren emakumeek ezinbesteko bi baldintza hauek betetzea lortu behar dute, salbu egoiteko: bata, pertsonen salerosketaren biktimatzat eta pertsona errefuxiatutzat identifikatu ahal izatea, eta bestea, ez itzularaztea beren bizia arriskuan den inongo herrialdera. Espainiako Gobernuaren betebeharra da ez itzularazteko printzipioa betetzea bere jurisdikzioa indarrean den edozein lekutan eta unetan.

Precious

Marokon, Ceutaren mugan, Preciousen uste zuen Espainiara iristean ihes egin ahal izango zuela edota laguntza eskatu. Beraz, muga igerian zeharkatzeko salbamendujakarekin itsasora bota zutenean eta Guardia Zibilak erreskatatu zuenean, laguntza eskatu zuen, baina inork ez zion entzun, eta Marokora bidali zuten berriro. Preciousen kontatzen duenez, egun hura izan zen bere bizitzako egunik txarrenetako bat, jabetu baitzen ezingo zuela inoiz kartzela hartatik (hau da, salerosketa-saretik) ihes egin.

Bi baldintza horiek, ordea, sistematikoki urratzen dituzte Saharaz hegoaldeko Afrikatik Espainiar estatura sartzeko lekuetan: *Hegoaldeko mugako* itsas bideak, Madrilgo aireportua (Barajas) eta Atzeritarrak Barneratzeko Zentroetan (ABZ). Azken horiek Espainiar estatuaren barruan egon arren, muga baten funtzionamendua dute.

Hainbat erakundek dokumentatu eta salatu dugu, hainbat ikerketaren bidez, pertsonen salerosketaren biktima diren edo izan daitezkeen emakume asko eta asko ABZetan giltzaperatuta daudela. Leku horietan, gainera, tratulariek emakumeenganako kontrola izaten jarraitzen dute, bisiten, telefono-deien edota sareko kide diren beste emakume batzuen presioaren bitartez; horrez gain, zentro horietako polizia prestakuntza-gabezia larria dute salerosketen bikti-

mak identifikatzeari dagokionez. Bestalde, poliziaek jarraibide zorrotzak dituzte bertan dauden pertsonen asilo-eskubidea dutela ez esateko, horri buruzko informazioa eskatzen dutenean halakorik ez emateko, edota haiei izapideak egiteko asmoa burutik kentzeko. Zentro horietan giltzapetuta dauden pertsonen bizi-baldintzak ere behin eta berriz salatu ditugu giza eskubideen hainbat erakundek.

Horrenbestez, zaila da pentsatzea demokraziaren puntu beltz diren ABZetan emakumeek informazio koherentea, osoa eta fidagarria eman dezaketenik, funtsezkoa haien asilo-eskaerarako.

Identifikatzea

Pertsonen salerosketaren biktimak identifikatzea funtsezko urratsa da haiek babes- eta laguntza-mekanismo eraginkorrik izatea bermatzeko, eta herrialdetik kanporatu ez ditzaitez lortzeko.

Emakume horien bizitzan, indarkeria-egoera nabarmena da, eta une oro daude kontrolpean. Bizipen bakoitza desberdina izan arren, badira zenbait zantzu salerosketa-egoeren biktimak hautematen laguntzen dutenak, adibidez: dokumentaziorik (pasaporte) ez izatea; bizilekua (prostituzioan aritzera behartzen dituzten leku bera izan ohi da) eta beraiek hala nahi dutelako bizilekuz aldatzeko ezintasuna; erakundeetara joatean, normalean, itzultzaile-lanak²⁰ egiten dituzten eta beraien ordean erantzuten duten beste emakume batzuekin joatea; neke handia izatea, oso 'lanaldi' luzeak eta atsedenen gabeak izateagatik; komunikatzeko zailtasunak izatea, nahiz eta denbora daramaten estatuan bizitzen; batetik bestera mugitzeko zailtasunak izatea, eta libreki ezin komunikatu izatea, sareko kideak beti ondoan dituztelako; beldurra eta antsietatea erakustea; eta indarkeria eta sexu-abusuak jasan izanaren zantzuak izatea.

Pertsonen salerosketa asilo-eskubidea aitortzeko arrazoitzat baztertzea Espainiar estatuan

Pertsonen salerosketaren biktimek bi oztopo nagusi izan ohi dituzte Espainiar estatuan nazioarteko babesa jasotzeko.

Alde batetik, beraiek bizi duten egoera azaltzeko beldurra sentitzen dute, batez ere artean sarearen kontrolpean daudenean, eta horrenbestez, informazioa ezkutatu edota beren jatorriaz gezurra esaten dute, bai eta jazarpenaren arrazoiez ere. Horren ondorioz, haien eskaerak ez dituzte onartzen edota atzera botatzen dituzte, sinesgaitzak edota koherentziarik gabeak izateagatik. Ustezko sinesgarritasun falta hori balioestean, kontuan hartu behar dira aurrez adierazitako zantzuak, bai eta bizitako (edota oraindik bizitzen ari diren) esplotazio-egoera larria eta egoera horren ondorioak ere.

Precious

Basoan (Maghnia, Marokon) denbora luzean egon zen; aldi horretan, Feber bere alaba jaio zen, eta hesia pasatzeko saiakera ere egin zuen, arrakastarik gabe, ordea. Denbora luze haren ondoren, Precious laguntza-talde batek erreskatatu zuen, beste hainbat emakumerekin eta haurrekin batera. Zentro batera eramane zuten, eta han, ezkutuan egon ahal izan zuen hilabete batzuetan, eta atsedenean hartu. Segurtasun-arrazoiek zirela eta, ezin zuten kalera irten; halere, haien egunerokoak ez zuen, inondik ere, militarren sarekaden antziz, ez eta salerosketa-sareen mende bizi zuten egoeraren antziz ere.

Seguru sentitzen zen, eta saretik irteteko nahia hitzez adierazten hasi zen, poliki-poliki. Asilo-eskubideaz hitz egiten entzun zuen, eta saiakera egitea erabaki zuen, baina beldurra ematen zion egiaz zer gertatu zitzaion kontatzea. Ingelesekin hitz egiten den eta gatazka-egoeran dagoen herrialde bat bilatzea pentsatu zuen, eta hala, sudandar

²⁰ Askotan, beste emakume batekin batera joaten dira. Litekeena da emakume hori duela asko etorri izana Europara, eta urteetan sexu-esplotazioa pairatu ondoren, eta zorra ordaindu eta gero, biktima berriak kontrolatzen aritzea.

gisa eskatu zuen asiloa Espainiak Tangerren duen Kotsu-
latuan; baina ez zuen Sudan ezagutzen, eta ezin izan zion
istorio hari denbora luzean eutsi. Azkenean, beraz, Espai-
niako gobernua ez zuen eskaera onartu.

Gerora, GKE baten laguntzaz, Rabatera joan zen, eta asi-
lo-eskaera egin zuen ACNURek Marokon duen egoitzan.
Ordu asko egon zen itxaroten, eta Precious oso urduri ze-
goen. Nazio Batuetako funtzionarioarekin elkarrizketatzen
ari zela, ezin izan zion presioari eutsi eta negarrez hasi zen.
Bere asilo-eskaera ez zuten inoiz izapidetu.

Dorcas

*Nire amarekin hitz egin nuen lehen aldian, negar asko egin
zuen; izan ere, ez zekien non nengoen, eta denbora luzean
egon zen nire bila. Ez diot inoiz kontatu zer gertatu zitzaidan,
eta ez diot inoiz kontatuko; ezingo luke jasan.*

Hope

*CEARen esan zidaten nire herrialdean gertatu zitzaidan guz-
tia kontatu behar nuela: nola iritsi nintzen Espainiara, nork
lagundu ninduen bidaiari... Eta nik dena kontatu nien.*

*Abokatuak esan zidan asilo-eskaera egiteko gizon batekin
hitz egin behar nuela, eta zer gertatu zitzaidan kontatu. Ni-
retzat zaila izan zen asilo-eskaera egitea, ez baitzat gustat-
zen zer gertatu zaidan kontatzea, oso esperientzia zaila izan
da. Baina nire abokatua nuen ondoan, eta hark dena ondo
azaldu zidanez, kontatu egin nuen.*

*Asilo-eskaera egiteko bulegoan egindako elkarrizketan, oso
gaizki sentitu nintzen; gizon hura oso urduri zegoen, eta be-
hin eta berriz galdetzen zidan: 'zergatik?', 'zergatik?'. Azke-
nean negarrez amaitu nuen. Gertatu zaidana egia da, baina
gizon hark galdetzen zidan zergatik onartu nuen ezagutzen
ez nuen pertsona baten eskaintza.*

*Oso zaila da norberari gertatutakoa kontatzea, egia guztia,
baina beharrezkoa da.*

Hala eta guztiz ere, emakume hauen oztoporik handiena Es-
painiar gobernua da, ez baitu hartzen asilo-eskaera egiteko
arrazoizat pertsonak sexu-esplotaziorako salerostea. Asilo eta
Babes Bulegoaren (OAR²¹) arabera, jazarpen-mota hori ez da
sartzen 1951ko Genevako Konbentzioaren esparruan, hainbat
arrazoi direla eta: jazarpena ez duelako estatuak berak egiten
eta estatua ez delako tolerantea indarkeria-mota horrekin; es-
plotazio-egoera hirugarren herrialde batean gertatzen delako
(adibidez, Marokon edo Espainiar estatuan bertan), ez jatorriko
herrialdean; eta azkenik, pertsonen salerosketa jokabide krimi-
naltzat hartzen delako, ez talde jakin baten aurkako jazarpen-
modutzat.

Horrez gain, Bulegoaren iritziz, Espainiar estatuaren babes-
mekanismoa Atzerritarren Legearen²² 59. bis artikulua ezart-
zen du. Testuinguru horretan, beraz, biktimei babesa emateko
ezinbestekoa da haiek salaketa jartzea, batetik, eta esplotazio-
sareak desegiteko agintariekin elkarlanean aritzea, bestetik.

Bi baliabide horietako bakar bat ere ez da modu eraginkorrean
aplikatzen; beraz, emakumeak babesik gabe daude, eta beren
jatorriko herrialdera itzularazteko arriskua dute.

Testu honetan azaldu dugunez, hainbat arrazoi daude pertso-
nak sexu-esplotaziorako salerostearen biktimei diren emaku-
meei errefuxiatu-izaera aitortzeko:

} Pertsonen salerosketa jazarpen-mota bat da, oso jardue-
ra larria baita, eta horren ondorioz emakumeek esplotazio-
baldintza gogorak jasaten baitituzte.

} Emakumeek, haien berezko ezaugarriak direla eta, gizar-
te-talde jakin bat osatzen dute. Pertsonen salerosketari
dagokionez, emakumeak talde bereizitatzat hartzen dituzte

²¹ Asilo eta Babes Bulegoa (OAR), Barne Ministerioari atxikita dago, eta bere egitekoa da Espainiar estatuan aurkeztzen dituzten asilo-eskaerak izapidetzea.

²² 2/2009 Lege Organikoa, abenduaren 11koa, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, atzerritarren eskubideei eta askatasunei buruzkoa, aldatzen duena.

jazarpen-eragileek, eta horregatik jazartzen dituzte, hain zuzen.

} Asiloaren Legean zehazten den bezala, jazarpena estatuko eragileek eta estatukoak ez direnek egiten dute. Estatuak, bere egituren bitartez, inplikazio zuzena edo zeharkakoa du sareen jarduerarekin, edota ez da gai errealitate horren aurka egiteko eta biktimei babesera emateko.

} Beren jatorriko herrialdera itzularaziz gero, beren bizia eta segurtasuna arrisku larrian egon daitezke.

2009tik 2012ra bitartean, CEAREko zerbitzu juridikoek 40 asilo-eskaera izapidetu dituzte sexu-esplotaziorako salerosketen biktime izan diren emakumeei dagozkienak. 26 emakume Nigeriakoak dira, eta gainerakoak herrialde hauetakoak dira: Somalia, Kamerun, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Mali

edota Sudan. Bestalde, eskaera egin duten emakumeetako bakar batek ere ez du nazioarteko babesera.

2011ko apirilean, salerosketaren biktime izan zen Nigeriako adingabe bat hogeita hamar egun baino gehiago egon zen Madrilgo Barajas aireportuko ez-onartuen gelan. Polizia Nazionalak ez zion sartzen utzi, espainiar pasaporte faltua zermalako. 16 bat urteko neska hark salerosketa-sare baten biktime zela salatu zuen, eta prostituzioan aritzera behartu behar zutelako. Errumaniatik ateratako hegazkin batean iritsi zen, hara eramanez baitzuten Nigeriatik.

CEAREk asilo-eskaera egiten lagundu zion, eta ACNURek eta Herriaren Defendatzaileak ere babesera onartzeko eskaera egin zuten; OAREk, ordea, asilo-eskaera atzera botatu zuen, eta Auzitegi Nazionalak berretsi egin zuen erabakia •

} Gehiago jakiteko

Charlotte, Dorcas, Hope, Naomí eta Precious beren bizitzaren eta askatasunaren aurkako eraso larriak jasan dituzten emakumeak dira. Emakumeon hitzak feminizidioaren aurrean izandako erresistentziaren eredu dira; hain zuzen, bizirauteko eta bizimodu duina, indarkeriarik gabeko, izatea lortzeko egiten duten borroka hori nahikoa motibo da giza eskubideen aldeko erakundeek lan egiteko, ikusezintasunarekin eta fenomeno lazarri horren zigorgabetasunarekin amaitzearren.

Gaia ikertzeari, salaketak jartzeari eta biktimei laguntzeari esker, arazo hau nazioarteko komunitatean ezagutarazi da. Urrats garrantzitsuak eman dira araudiari, prebentzioari eta gaitz horren aurkako borroka dagoenez, baina oraindik gauza asko daude egiteko, eta hainbat esparrutan, nazioarteko babesaren esparruan, esaterako.

Giza-eskubideen aldeko erakundeak

CEAR: www.cear.es

Proyecto Esperanza: www.proyectoesperanza.org

Women's Link Worldwide: www.womenslinkworldwide.org

Pertsonen salerosketaren aurkako Espainiako sarea: <http://www.redcontralatrata.org/>





Karem: asilo-eskaera egiteko ibillidea



Hurrengo lerroetan, Karemek bizitzan egin duen ibillidea kontatuko dizuegu. Txilen hasitako ibillideak Espainiar estatura eraman du, eta bidean, asilo-eskaera bat, bere sexu-joerak eraginda.

Karem Txileko emakume bat da, Valparaísokoa, hain zuzen, bosgarren eskualdekoa. 33 urte ditu, eta erdi-mailako familia langile, katoliko eta kontserbadore batean sortu zen. Txilen, karabinero²³ izan zen. Orain, Madrilén bizi da, bere alabarekin; han egiten du lan, eta han borrokatzen du, bere administrazio-egoera legezatzeko. Izan ere, Espainiako gobernuak ezeztatu egin zion nazioarteko babeserako egindako eskaera.

Bihotzez eskertzen diogu Karemi, elkarrizketa hau egiteko erakutsi duen zintzotasuna, prestutasuna eta gogoa, ez baita erraza berarentzat ezezagun bati, beste behin, zer gertatu zitzaion kontatzea. Espero dugu, baita Karem berak ere, keinu hau baliagarria izatea, beste pertsona batzuek ez dezaten Karemek bizi izandakoa jasan beharrik izan.

LGTTBI kolektiboen testuinguru politikoa, soziala eta legala²⁴

1973ko apirilaren 23an, gertaera historiko bat izan zen Santiagon. Homosexualen integrazioarako eta askapenerako mugimenduak (MOVILH) manifestazio bat antolatu zuen Plaza de Armas plazan, eta berrogeita hamar bat lagun agertu ziren. Gayen mundu-mailako hirugarren deialdi politikoa izan zen, aurretik Stonewallen, AEBn (1969), eta Highbury Fieldsen, Londrestik gertu (1970), egin baitzen; horrenbestez, Txile borroka horien aitzindarietako bat bihurtu zen. Gayen manifestaldi haren aldarria, ordea, ahuldu egin zen urte hartako irailean gertatu zen estatu-kolpearen ondorioz²⁵.

Karem diktadura militarren garaian jaio zen, bete-betean, eta beste arlo batzuetan bezala, erailketak eta errepresiboa ziren nagusi sexu-aniztasunaren kolektiboen inguruan.

Txileko gizarte-testuinguruak baldintzatu zuen Karem bi-zitza; hain zuzen ere, oso argi azaltzen dute testuinguru hura Patricio Alwin garai hartako Txileko presidentek 1993an Suedian emandako prentsaurreko batean egin zituen adierazpenek: *“Txilen ez dago homosexualen aurkako diskriminaziorik. Kontua da txiletarroi ez zaizkigula homosexualak gus-tatzen”*²⁶.

Adierazpen horiek egin aurretik, gayen aurkako taldearen unitate batek bere gain hartu zuen Divina diskotekan izandako sutearen ardura; sute hartan, 16 pertsonak galdu zuten bizia. Gertaera hura mugarririk izan zen Txilen LGTTBI kolektiboen eskubideen aldeko borrokan.

Karem haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroaren lehen urteetan, legez debekatuta zeuden pertsona helduen arteko

harreman homosexual adostuak (Zigor Kodearen 365. artikulua); 541 egun eta 3 urte arteko kartzela-zigorrek zeuden.

1998an sodomia despenalizatu egin zuten. Dena den, LGTTBI kolektiboetako kideak atxilotuz eta zapalduz jarraitu zuten. *“Legean ez zen aipatzen homosexual bat edo lesbiana bat atxilotu zitekeenik, baina ‘lotsagabe’ jokatzeko gero, beste pertsona batzuei ‘gogait eraginez’, hala gertatzen zen. Arrazoia hauxe: morala eta jokabide egokiak iraintzea”*.

Egun, oraindik, badira jokabide homofoboak Txilen, Karem bizitzan hain gogor eragin zuten jokabideak; halere, LGTTBlenganako gizarteak duen ikuspegia aldatu egin da 90eko hamarkadaren erdialdetik hona. Aldaketa horrek eragina izan du prozesu politikoetan, behartuta sentitu baitira gaiari arreta jartzera eta baliabideak ematera. Michelle Bacheleten gobernu-programan (2006-2010) sartu zituzten, lehenengo aldiz, LGTTBlen aldarrikapenak.

2003an hasi ziren LGTTBlen bikoteei buruz publikoki eztabaidatzen, MOVILH mugimenduak *Diskriminaziorik eza eta sexu bereko pertsonen arteko legezko lotura zibilak sustatzeko lege-proiektua* aurkeztu zuenean. Gorabehera askoren ondoren, testua 2009ko urrian sartu zen parlamentu-tramitazioan. 2012ko martxoan, neonazien talde batek Daniel Zamudio gazte gaya erail zuen; gertaera haren ondotik, Kongresuko kamerekin proiektuaren inguruan zituzten desberdintasunak konpondu zituzten, eta urte hartako maiatzean proiektua onartzeko adostasuna lortu zuten. Orduetik dago indarrean Txilen Diskriminazioaren aurkako lehen Legea, *Zamudio Legea* deritzona.

Sexu bereko pertsonen arteko lotura zibilari dagokionez, eztabaidatzen jarraitzen dute Txileko parlamentuan.

²³ Txileko karabineroen erakundea polizia uniformedunaren talde bat da, militarra. 1927an sortu zen, eta karabina deritzon arma bat zeramaten zalditeria-taldeetatik dator kio izena.

²⁴ Lesbianek, gayek, transexualek, bisexualek eta intersexualek osatutako kolektiboek erreferentzia egiten dieten siglak.

²⁵ Luchas Maricas y Derechos Humanos en América latina. 2011. Juan Olivier Gómez Meza, 54. or.

²⁶ ICCHRLaren txosten bereziko aipamen bat, 1996, 12. or. Webgune honetan kontsulta daiteke: www.choike.org/documentos/gays_violencia.pdf

Beste emakumeenganako erakarpenaz jabetzen

Karem sortu, hazi eta hezi zen testuinguru horretan, halako batean, bere bizitzako une batean, lesbiana zela jabetu zen, emakumeak gustatzen zitzaizkiola.

Oro har, gizarte-testuinguru heteronormatibo eta zapaltzaileetan, norberaren homosexualtasuna onartzeko bidea ez da erraza, eta ezjakintasuna, erreferentziarik eza eta norberaren zalantzak edota nahasmena izaten dira nagusi. Beste emakumeenganako erakarpena ez zen sartzen Karemek bere sexualitatearekin lotuta zituen asmoen artean.

19 urte zituela, haurdun gelditu zen, eta aitortzen duenez, bere alabaren aitaz guztiz maiteminduta zegoen. Une hartan ez zuen oso argi bere sexu-joera. *“Joera bat sentitzen nuen, baina ez nekien ongi zer zen. Nire lehen mutil-lagunarekin iriteten hasiberria nintzen, eta gogo biziz nengoen, baina bazen beste zerbañt sentiarazten zidan neska bat; ikaragarri gustatzen zitzaidan harekin egotea, beste emozio batzuk sorrarazten zitzaidan”*.

LGTTBI kolektiboen erreferentziak urriak, aurreiritziz beteak eta nahiko negatiboak ziren garai hartan, eta ez zegoen sexualiztasunaren hezkuntzarik; ildo horretan, Karemi ez zaio sekula ahaztuko 10 urte eskasekin bizi izan zuen gertaera. *“Trenean gindoazen. Gure ama izebaren ondoan zegoen eserita, eta ni bi eserleku atzerago. Amak lekuz aldatzeko esaten zidan, gertatzen ari zena ikus ez nezan. Eta bagoi guztia marmarrean: ‘Nazkagarri horiek! Bi emakume elkarri musu ematen!’ . Eta nire amak ez zidan besterik esaten... ‘Ez begiratu!’ . Baina, noski, nik jakin-mina nuen eta zer gertatzen zen ikusi nahi nuen; amak, ordea, ez zidan uzten”*.

Ez da harritzekoa, beraz, gertaera haren ondoren Karemek lotsa sentitzea emakumeenganako sentitzen zuen erakarpenaz; lotsa, lotsa... Txiletik ihes egin ondoren ere, artean, barruan zeraman sentimendua. *“[Espainiar estatura] iritsi nintzenetik, bi urte behar izan nituen nire bikoteari kalean eskua ematera*

ausartzeko, eta noski, hura haserretu egiten zitzaidan, eskua kentzen niolako”.

Lesbofobiaren ondorioetako bat da jendaurrean lotsa sentitzea; sentimendu horrek, gainera, nork bere burua gutxiestea dakar, ahalmenik ez duela sentitzea, eta une oro, jendearen begiradapean sentitzea eta, ondorioz, ezkutatzeko nahia izatea.

Norberaren sexualitateari lotuta sortzen diren sentimenduen multzo horretan, lotsak beldurrari bide ematen dio. *“17 urte nituela ezagutu nuen nire arreña piztu zuen lehen neska. Gutun bat idatzi nion, baina nire amak irakurri zuen. Neska bantentzat zela ondorioztatu zuenean, sekulako iskanbila sortu zen etxean. Eta gezurra esan nien, beste zerbañt zela. Beraz, emakume batenganako lehen erakarpen hura errotik moztu zen; beldurtu egin nintzen, eta nire buruak guztiz baztertu zuen sentimendu hura. Handik urtebetera, nire alabaren aitarekin hasi nintzen berriro, eta etxean, giroa baretu egin zen. Hau da, gertatutakoa akats bat baino ez zen izan, eta berriro bide onean ginen”*.

Beldurraz eta lotsaz gain, errudun-sentimendua sortzen da; hala, Karemek lesbiana izateaz zuen ideia negatiboan multzoa osatu egin zen. *“Gizonak bezalakoak zirela pentsatzen nuen, futboleak jokatzen zutela... Nik ez nuen horrela bizi nahi, ni neu izan nahi nuen, betikoa. Beldurtuta nengoen, sentimendu hura txarra zela pentsatzen bainuen; nire alabari min egiteak beldurtzen ninduen”*.

Karemek emakume lesbianeñ buruzko irudi bat egin zuen, eta horrek bere bizitza pertsonalean eragin zuen. *“Andrearekin [bikote bat] nengoenean, oso gustura egoten nintzen, baina etxera alabarengana itzultzean, oso gaizki sentitzen nintzen. Oka egiten nuen, jateari utzi nion, eta nire buruari kalte egiten hasi nintzen. Hainbeste maite dudana alabari pixoihala aldatzean, eta hura biluzik ikustean, zikin sentitzen nintzen. Baina, poliki-poliki, sentipen txar hura gaindituz joan nintzen. Bi urte behar izan nituen neure buruari aitortzeko ez niola nire alabari ezer txarrik egiten, ezta nire amari eta amonari ere”*.

Lesbofobiak erruduntasun-sentimendua sortzen du, tentsioa, atsekabea, harra eta jokabide desegokitzat hartzen denak eragindako kaltea konpontzeko nahia. Lesbiana askoren bizitzan, oso ohikoa da errudun sentitzea, uste baitute ingurukoek ezin-go dutela lesbianismoa onartu; haiei aitortuko diena hain gogorra izanik, pentsatzen dute hobe dela ezer ez esatea. Erruduntasun-sentimendua dela eta, oraindik ere, emakume askok isilean eta ezkutuan bizi dute lesbianismoa beren bizitzaren zati handi batean.

Beraz, isilean eta ezkutuan ibiltzean, eta lesbianismoaren erreferentzia negatiboak izatean, oso garrantzitsua da beste lesbiana batzuk ezagutzea eta haiekin harremanak izatea; Karemek dionez, “*mirari baten parekoa*”.

} Familiaren erantzuna

Lesbiana asko elkartzen dituen gaietako bat da lesbianismoak haien familietan eragin dituen eta egun oraindik eragiten dituen askotariko gatazkak. Denek jaso dute familia heterosexual baten mitoa. Denek dituzte familia batek zer-nolakoa izan behar duen zehazten duen ideari buruzko zenbait kultura-sinesmen; funtsean, pertsona heterosexualak elkartzu eta elkarrekin haurrak ekarri soilik lor daitekeela zorientasuna eta bizitza positiboa. Hasiara batean, beraz, Karemen senideek beldurra, lotsa, kezka eta kontrako jarrera agertu zituzten Karemen lesbiana zela jakin zutenean.

Karem Txileko karabineroen erakundean sartu zen 16 urte zituela. Adingabea izanik, gurasoen baimena behar zuen akademian sartzeko. Gustuko zuen karabinero izatea, eta motibazio handia eragiten zion. Etorkizun bikaina zuen taldean. “Polizia izan nahi nuen. Institutuan, ez nintzen oso ona ikasten; polizia izateko ikasten hasi nintzenean, ostera, narkotikoen aurkako brigadaren eta sexu-delituen aurkako brigadaren ikasketak egin nituen, eta poliziako inteligentzia-zerbitzuen ikastaroa ere gainditu nuen. Garai hartan, polizia gutxi

batzuek baino ez zuten; maila hori lortu zuen nire promozioko lehena izan nintzen”.

Sexu-gehiegikerien salaketak jartzen zituzten kuartel batean guardian zegoela ezagutu zuen Andrea. Andreak 17 urte zituen, eta amarekin joan zen koartelera, neskalagunaren (adinez nagusia) aurkako salaketa jartzera, nahiz bera ez zegoen ados.

Gertaera haren ondorioz ezagutu zuten elkar Karemek eta Andreak; bikote egin ziren, eta Karem jabetzen hasi zen bere bizitzaren alderdi hura aintzat hartu behar zuela. “*Beste neska batekin sexu-bizitza izatea eta harekin bizitzea zer zen jakin nuenean, neure buruari esan nion ez zegoela atzerabiderik, hori zela nik nahi nuena, beti gustatu izan zitzaidana*”.

Karem eta Andrea lau urtez elkarrekin egon ziren, baina lehenengo bi urteetan, ez zieten harremanaren berri eman familiei. Oso lagun onak zirela esaten zuten, ahizpak izango balira bezala, eta dena elkarrekin egiten zutela; egun, oraindik, horrela aurkezten dira lesbianen hainbat bikote.

Urte askoan, lesbianismoarekiko gizarteak permisibitate handiagoa izan duela adierazi izan da; lesbianak gayak baino hobeto bizi izan diren ustea dago, lesbianak lagun modura kamuflatu baitaitezke, inongo susmorik piztu gabe. Ez da kontuan hartzen, ordea, betidanik, haiekiko axolagabekeriak eta gizartearen nahiz legearen aitortzarik ez izateak eraginda, lesbianak ikusezin egon direla; ezaugarri espezifiko hori lesbofobiari lotuta dago, ez gayfobiari, guztiz kontrakoa gertatzen baita. Kamuflatze horren ildotik, ezin da esan gizarteak lesbianismoarekiko tolerantzia handiagoa izan duenik; alderantziz, jarrera askoz ere mespretxuzkoagoa adierazten du, jarrera misoginoaren²⁷ ondorio zuzena izan baita. Hau da, emakumeen sexualitatea gizonen nahien isla bihurtu izan denez, pentsaezintzat hartu izan dira emakumeen arteko harreman erotikoak eta afektiboak.

Empar Pineda militante feminista eta lesbiana historikoak go-

²⁷ f. Emakumeenganako ezinikusia edo gorrotoa.



gorarazten duenez, lesbianak ingurukoen artean oharkabeen pasatzeak aukera ematen du nor bere gisara ibiltzeko, baina horrez gain, gizarte-kostu handia eragiten du. Mugak hausten ez diren artean (muga horietatik harago ez baitago nahasteko aukerarik), oharkabeen pasatzen den bitartean, lasai samar bizi daiteke. Inork ez du susmatuko lesbiana zarela. Baina, zeren truke egin behar da hori guztia? Guztiz ikusezina bihurtzen zara, ez zara inor.

“Nire aitona-amonak ohartu ziren arraro jokatzeko nuela, eta gezur asko esaten nuela, nire bikotearekin egon ahal izateko. Ezin nien esan zinemara edo dantzatzera joateko neska batekin gelditu nintzela, ez baitzitzaion ondo irudituko. Hiru urte eta erdi ibili nintzen horrela”.

Azkenean, Karemek erabaki zuen familiakoei egia esatea. Aitona-amonen etxea utzi, eta Andrearekin bizitzera joan zen. Lehenik eta behin, amarekin hitz egin zuen. *“Amari zer nintzen esan nion, zer sentitzen nuen. Lehen aldiz zer nintzen esan nionean, amak esan zidan ez nuela merezi bere etxean gehiago sartzea, ezin zuela harremanik izan horrelako emakume batekin”.*

Familiako gainerako kideek ere erantzun hori izan zuten hasieran, eta alaba kentzeko nahia agertu zuten. *“Ez zuten nire alaba nirekin egoterik nahi, beraiek hezi nahi zuten. Nire funtzioa ekonomikoa zen, alaba hazteko dirua jartzea”.* Betidanik, Karem alaba mimatua izan zen, alaba bakarra, eta ez zuen uste

inolako arazorik izango zuenik beste emakume batekin harremana zuela kontatzen zuenean. Berak lesbiana zela onartu ahal izan zuen, eta beraz, bere familiak ere ez zuen inolako arazorik izango. *“Baina urtebete behar izan zuten egoera lehenera bueltatzeko”.*

Urte oso bat behar izan zuen ez zela neska galdu edo degeneratu bat erakusteko, oker zeudela ikusarazteko; hau da, betiko pertsona izaten jarraitzen zuela, eta pertsona heterosexual bat bezain arduratsua. *“Emakume batekin ibiltzeak ez zuen nire izaera, funtsa, aldaraziko, ez eta nire balioak ere; eta noski, ez nion nire alabari esango erretzeko, edateko edo drogak hartzeko, lanik ez egiteko edota ez ikasteko. Nire familiaren balioak, nireak, erakutsi nizkion nire albari. Ez nintzen aldatuko emakume bat gustuko nuelako”.*

Karemek familiaren itsuskeriak eta mespretxuak jasan behar izan zituen urtebete luzean. *“Ez zidaten uzten alaba etxetik ateratzen, eta hala eginez gero, salaketa jarriko zidatela mehatxu egiten zidaten. Alaba kenduko zidaten beldur nintzen, eta hura ikusteko aitona-amonen etxera joaten nintzen bisitan”.*

Azkenean, familiari ulertarazi zion emakume batekin egoteko erabakia behin betikoa zela, eta orduan, alaba berarekin eramatea lortu zuen. *“Ulertu zutenean, esan nien nire alaba nirea zela, nik eman niola bizia, eta nirekin neramala, haren beharra nuelako. Goizean esnatu eta hura ikusi nahi nuen. Oso gaizki pasatzen ari nintzen, eta horrez gain, alaba nirekin ez izatea...”*

gehiagi zen. Beraz, nirekin eraman nuen. Eta poliki-poliki, nire familiak ulertu zuen ez zegoela atzerabiderik”.

Prozesu horretan guztian, Karemek arriskuan ikusi zuen bere lanbidea. Isilean gorde zuen bere harremana, eta ez zien bizi-lagunei eta lagunei ezer esan. Karabineroa zen, eta ongi zekien egia jakiteak poliziarrekiko zuen lotura amaitzea eragingo zuela.

Harremanak beste lesbianekin

Zen bezalakoa onar zezaten familiarekin borrokan zebilen aldi berean, beste emakumeekin sozializatzen eta haiekin bikote-harremanak izaten jarraitu zuen. Karem karabinero izateak, ordea, guztiz baldintzatzen zituen haren harremanak; ezkutuan eta isilean bizi zituen harreman haiek, eta neurri batean, bi bizitza zeramatzan. Bi bizitza izateak dakarren isolamendu-egoeraren ondorioz, emakume lesbianek ezin dute senideen eta lagunaren babesaz gozatu, ez eta gizarteko hainbat baliabidez ere.

“Egunez, polizia arrunta nintzen, langilea, serioa eta formala. Gaua iristean, ordea, arropaz aldatu, norbaitekin leku batean gelditu, eta nire sexu-joera bereko jendea elkartzen zen txoko eskusibora joaten nintzen. Txoko hartan, neuk bakarrik nekien han sartu nintzela, ez beste inork. Nik ez nuen inor ezagutzen, eta inork ez ninduen ni ezagutzen. Atzeko atetik irteten nintzen, sarreran polizia egoten baitzen nortasun-agiriak eskatzen eta izenak aztertzen. Oso polizia erasokorra zen; ‘mari-mutil zikinak’ esaten ziguten. Ni polizia izanik, denek ezagutzen ninduten, ezin nintzen sarrerako atetik irten. Ezin nuen arriskatu”.

Denboraldi bat pasatu eta gero, erabaki zuen ezin zuela leku hartara joaten jarraitu; izan ere, neska bati eskutik emanda zer-bait hartzeko diskrezioa eta lasaitasuna bermatu arren, beste inork baino ondorio handiagoak izan zitzaizkeen. Beraz, beste emakume batzuekin elkartzen hasi zen, etxe partikularretan.

“Ezagunen etxeetan gelditzen hasi ginen, eta taldetxo bat osatu genuen; denok ginen poliziak, eta lanetik irten ondoren elkartzen ginen. Elkartu, festak antolatu... primeran pasatzen genuen, baina dena zen ezkutua. Gau guztia errezelak itxita pasatzen genuen, eta musika baxu jarrita, bizilagunek poliziari dei ez ziezaioten. Beti pribatuan, oso pribatuan. Ez ginen taldean irteten kalera, zinera... Batere ez. Oso lagun onak ginen, eta ez zen taldean jende berririk sartzen; beti ginen berdinak, ez genuen arriskatzen, ez baikenekien nor hitz egin zezakeen behar baino gehiago”.

Egun, laguntasun horri eusten diote. “Harremana izaten jarraitzen dugu. Ez gara lagunak Facebooken, baina harremana dugu telefono bidez. Haiek badakite zer gertatu zitzaidan, eta babesa ematen didate. Erakunde jarraitzen dute, eta beraz, ez diet bizitza hondatuko, nire lagunak baitira. Ni jazarri egin ninduten, eta Txilen pertsona lizuntzat naukate. Kontu handiz ibiltzen dira, nirekin lotu ez ditzaten”.

Karabineroak eta haien borroka lesbianen aurka

Txileko karabineroen 11. erregelamenduak erakundeko pertsona orok izan behar duen jokabidea deskribatzen du, erakunde sartu aurretik onartu eta sinatu behar duena.



“Egin dezakezun eta egin ezin duzun oro deskribatzen du, nora joan zaitezkeen eta nora ez, norekin egon zaitezkeen eta norekin ez... Ezin zara ospe zalantzarria duten lekue-tara joan, zure inguruko pertsonekin ibili behar duzu, jende uniformedunarekin, armadakoekin, poliziekin. Ez du aipatzen LGTTBekin egon ezin zaitezkeenik, baina LGTTBlek fama txarra dute. Norberaren bizitzak eta erakunde-bizitzak ez du hutsik izan behar; eredu izan behar da. Horren haritik, urtero azterketa psikoanalitiko bat egiten da”.

11. erregelamendu horretan, karabineroen bizitzaren kontrol zorrotza dakarten egoera ugari zehazten dira. *“Karabinero bat zibil batekin ezkontzera doanean, pertsona hori ikertzen dute, aldi batez. Goi-karguek onartu egin behar dute; bestela, ezin zara ezkondu”.*

Barne-araudi horren ondorioz, erakundeko kide izan arren moralitate-arauen arabera jokatzeko ez duen pertsona oro jazartzen da. 11. erregelamendua etengabeko mehatxua da, eta inolako zigorrik gabe, bide ematen du erakundeko jendea beldurtzeko, gehiegikeriak egiteko eta eragozteko. Argi eta garbi urratzen du diskriminatua ez izateko eskubidea, bai eta adierazpen-askatasunerako eta pertsonaren pribatutasunerako eskubideak ere.

Erakundeak Karem ikertu aurretik, entzunda zuen norbait kalera bota zutela, mari-mutila izateagatik. *“Egun batean, zaintza-itzulia egiten ari nintzela, auto batean pasatu zen, eta nire lankideak honela esan zidan: ‘Kontuz ibili horrekin, mari-mutila da eta. Laugarrenean egiten zuen lan, motor-zalea zen, eta mari-mutila izateagatik kaleratu zuten’. Ez zioten izenez edo abizenez deitzen, mari-mutil esaten zioten, Valparaísoko ardi beltza. Nik horrela ezagutzen nuen. Sona handia izan zuen hari gertatutakoak”.* Irving Goffmanek identitate estigmatizatuarekin berdintzen du homosexualitatea²⁸; batez ere, tasun horrek izena galtzea eragiten duenean, Nicoleri, Karemek aipatutako karabineroari, gertatu bezala.

²⁸ En Estigma. La identidad deteriorada. Buenos Aires. Ed. Amorrortu. 1971.



Nicole 39 urteko lesbiana da, eta Karem bezala, Valparaísokoa da. Biek karabineroen erakundean ezagutu zuten elkar, eta bizitza berri bat hasi zuten elkarrekin, beren herrialdetik ihes egitera eraman zituen. Eskerrak eman nahi dizkiogu Nicoleri ere, bere testigantza emateagatik.

Nicole karabineroen erakundetik botatzea eragin zuten gertaerak Txileko iparraldean hasi ziren. “Iparraldeko neska batekin irteten hasi nintzen. Jarraika ibili zitzaizkidan, eta azkenean, hamabost eguneko atxilotzearekin zigortu ninduten, neska bati musu emateagatik” adierazi digu.

Handik Valparaísora eraman zuten, eta han goi-kargu baten aholkua jaso zuten. “Jeneral bat zen, nahiko abegitsua; esan zidan berak ulertzen zuela, baina ez geundela egoera hura ongi eraman ahal izango nuen herrialde batean. Bizitza jasanezina egingo zidatela, zigortu egingo nindutela, eta hobe nuela inori ez esatea; behin zigortu nindutela, eta ez neza-la berriro egin. Mutil batekin ezkontzeko aholkatu zidan”. Gertaera horrek gure herrialdean ustez aspaldi gertatzen ziren egoerak gogorarazten dizkigu; egun, ordea, horrelako egoerak gertatzen dira zenbait gizarte-sektoretan, aniztasunarekin oro har eta sexu-aniztasunarekin bereziki oso jarrera gogorra duten erlijio eta ideologia batzuei lotutako sektoreetan, hain zuzen.

Valparaíso, Nicole diskoteketara joaten hasi zen, bera baino gazteagoak ziren beste promozio batzuetako lankideekin; haiek ere lesbianak ziren. Neska bat ezagutu zuen, eta hark karabineroen erakundean salatu zuen. “Neska harekin harremana bukatu nuen, eta horren ondorioz, salatu egin ninduen. Salaketaren ondoren, beraz, ni ikertzen hasi ziren, eta urtebetez izan nituen atzetik. Galdeketa egiten zizkidaten goizeko hirurak edo laurak arte; telefonoak kontrolatu zizkidaten, baita polizia-etxeak ere. Lankide batek aipatu zidan barne-arazoetako kideak zetozela Santiagotik; beraz, oso egoera larrian nengoen”. Nicoleren hitz horiek argi erakusten dute poliziek erakunde horretako pertsonen joera homosexual oro desagerrarazteko duten obsesioa. Homofobiaren funtzioetako bat da gizarte heteronormatibo bat babestea, sexu-aniztasunak adierazten duen mehatxuaren aurka.

Xantaia emozionala

Ikerketa-prozesuak ez du mugarik, eta neke eta higadura handia eragin zituen Nicoleren. “Idatzi bat egin nuen nire burua defendatzeko, inoiz ere ez bainuen ezer esateko aukerarik izan. Bota egin behar ninduten, eta nire etxeak ez zekiten ezer. Nola azalduko nien zer gertatzen ari zitzaidan? Egoera hura bakar-bakarrik bizi izan nuen, ezin bainion inori ezer esan”.

Ikerkuntza Nicoleren ikusezintasunaz baliatu zen, neurri handi batean. Ikusezintasun horrek isolatu zuen bestela izan zitzakeen babes emozional eta pertsonaletatik. Hori da, hain zuzen, beren afektibitate- edo sexu-joerak pertsona batzuei jasanarazten dien estigma, eta askotan, estigma horretaz baliatzen dira jokabide homofobia dutenak, pertsona horiek ahultzeko. “Ikerketek aurrera jarraitzen zuten aldi hartan; *teniente bat nire etxera joan zen, eta amari esan zion arazo batean sartuta zegoela. Zintzo jokatzeko eskatu zion; alaba lesbiana zen jakin nahi zuela, eta noiztik. Gure ama shock egoeran gelditu zen, ez baitzekien ezer. Tenienteak etxera sartu nahi izan zuen, frogak bilatzera, nire argazkiak beste neska batzuekin... Baina amak alde egiteko esan zion*”.

Norberaren homosexualtasunaz lotsa, errudun-sentimendua edo beldurra sentitzen denean, anonimatuak ateratzeko beldurra etengabea da; zure sekretua jakiteko edo zure joera ageriko egiteko beldurra modu berezi batean bizi da, buru gainean ezpata bat izango bazenu bezala.

Barne-kontrola sustatzea

Nicole Valparaíso iritsi zenean, karabineroen erakundea uzteko erabakia hartu zuen. “*Tenienteari esan nion nire plaka uzten nuela eta banindoala. Ezetz esan zidan, berak lesbiana nintzen jakin nahi zuela. Esan nion ez nekiela zer nintzen, lesbiana, bisexuala edo beste zerbait; uste nuen nire plaka uztean dena amaituko zela. Baina ez zidan hartu, eta idatzi bat egin zuen; bertan jarri zuen atxilotuta nengoela, delitu bat egin nuelako. 1997. urtea zen. Hamabost egunez egon nintzen atxilotuta kuarteleko gela batean. Ikertzen jarraitu zuten, eta aurrez aurrekoak egiten salatu ninduen neskarekin. Zertarako jarraitzen zuten nik jada nire plaka entregatu banuen?*”.

Karabineroen erakundearen helburua Nicoleren kasuaz harago zegoen; lesbianen aurkako gurutzada bat egin nahi zuten, eta garbiketa bat egin, salaketez eta traizioaz baliatuz. “*Erakundetik bota aurretik, hau esaten zidaten: ‘Zuk hemen jarraituko duzu, baina horretarako, aurrez, polizia lesbiana guztien izenak emango dizkiguzu’.* Izen guztiak aipatu zizkidaten, *tenientearena, kaboarena, sarjentuarena... denena. Kontua erraza zen; nik nire lanbideari eutsi niezaiokeen, baldin eta besteak salatzen banituen. Ezagutzen nituen, baina esan nien kaleratu nahi baninduten, kaleratzeko, baina ez nuela inoren izena esango. Ikertu nahi bazituzten, ikertu zitzatela; ez bazuten ezer aurkitzen, ezer ez zegoen seinale*”.

Zortzi urtez lanean jardun eta gero, 1999ko irailaren 16an, Nicolek kaleratze-gutuna jaso zuen. Horrelako kasuetan, normalean, dokumentu-mota horiek erre egiten dituzte; ikerkuntza-idazkariak, ordea, kopia bat atera zion gordetzeko, “*baldin eta gerora salaketa jarri nahi izanez gero*”. Kopia hori Espainiar estatuan asilo-eskaera egiteko espedientean eranskintzat sartu zen.

Gizarte-estigma

Ingurukoek gure sexualitateaz eta afektibotasunaz zer definizio egiten dituzten kontuan hartuz bizi ditugu guk. Gure sexualitatea eta, askotan, gure pertsona-izaera onartzeko, definizio horiek hartzen ditugu kontuan.

Nicolek, beraz, positiboki balioetsi behar zuen bere sexualitatea, nahiz eta bere ingurukoek lesbianismoaz definizio negatiboak izan. Definizio horiek gutxiagotasun-ustea sortu zuten berarengan, eta gizatasuna kendu; izan ere, bizitako prozesuaren ondorioz, Valparaísoko ardi beltza bihurtu zen, edota beste modu batean esanda, hiriko mari-mutil ofiziala, poliziaren xedeetarako. Prozesu luzea, konplexua eta zaila izan zen, bere burua lesbiana zela onartu behar izateaz gain, gizarte-estigma horrek bere familiakoengan ere ondorio zuzenak izan baitzituen. *“Orduan hutsune handi bat sentitu nuen. Nire familiarengandik urruntzea ekarri zuen. Nire neba ere polizia zen, eta ni baino urte gehiago zeramatzan karabineroen erakundean, baina azkenean, utzi egin behar izan zuen, ezin izan baitzien presioei aurre egin”.*

Karem eta Nicole (jada, karabineroen erakundetik kanpo zegoen) lagun-talde berean ibiltzen ziren, eta azkenean, inguruabar horretan, bikote egin ziren. Horrenbestez, Karem *“pertsona susmagarri”* bihurtu zen, jomuga. *“Polizia batek Nicole ezagutu zuen lan egiten nuen polizia-etxera bila joan zitzaidan batean. Honela esan zidan: ‘Aizu, zer egiten duzu horrekin?’. Lagun bat zela esan nion, eta hauxe erantzun zidan: ‘Ba al dakizu mari-mutila izateagatik kaleratu zutela?’. Oharkabea, zerbait hartzen egon ginela esan nion; une horretan bertan jabetu nintzen hanka sartu nuela, lankidearen aurpegia ikusi nuen... Akats bat izan zen. Handik bi egunera, DIPOLCAREko²⁹ kideak ikusi nituen niri jarraitzen, Nicolerekin argazkiak ateratzeko eta hala ni kaleratzeko arrazoiak izateko”.*

Atzetik jarraitzeaz gain, zenbait lankideren (gizonezko nahiz emakumezko) mespretxuak eta indarkeriak jasan behar izan zituen. *“Casinoan [jantokian] nengoenean, zerbitzariak ez nin-*

duen zerbitzatzen. Zerbait jartzeko esan, eta ez zidan jartzen, janariaren gainera tu egiten zidan... Jateko orduan, lagun handien mahaira esertzera joan, eta han esertzen banintzen alde egingo zutela esan zidaten, ez zutela mari-mutilekin egon nahi... Ni, burugogorra izanik, eseri egiten nintzen, eta han gelditzen nintzen, bakarrik. Horrelako egoerak bizi behar izan nituen. Armairua, uniformeak... lexiaz bustita aurkitzen nituen, eta ohar txoak idazten zizkidaten ‘Mari-mutilek lexia usaina izan dezatela!’”

Karabineroen erakundea uzteko erabakia

Nicoleri gertatu bezala, egoera hark estres handia eragin zion Karem, baina erabaki zuen erakundeari aurre egitea. Erabaki horren ondorioz, agintarien aurrera *agertzera*³⁰ behartu zuten. Ordurako, jada erabakita zuen erakundea uztea, eta erakundeak indarkeriaz erantzun zuen; iraindu, eta mehatxu ugari egin zizkioten.

“Uniformea jantzita aurkeztu behar nuen, agintari baten aurrean egon behar bainuen, baina ni zibilez jantzita azaldu nintzen. Nire plaka eta errebolberra eman nizkion. Oso haserre jarri zen, eta esan zidan karabineroen erakundean egin nuen ibilbidea eginda, eta nigan jarri zuten konfiantza eta gero, mari-mutila [Nicole] utzi egin behar nuela. Nire alabarengatik, nire alabaren aitarengatik...

Nire aitona-amonei buruz hitz egiten hasi zitzaidan, beldurrarazten. Esan zidan, zer nintzen aitortuz gero, beste leku batera eramango nindutela; karabinero ona nintzela, gaitasun handikoa, eta ez izateko tuntuna, bestela gaizki pasatuko nuela eta. Presio handia egin eta mehatxuak jaso arren, inoiz ere ez nuen aitortu nire sexu-joera. Nire alabaren aitari esango ziotela mehatxu egin zidaten, hark alabaren zaintza eska zezan. Orduan, galtzetako kremailera jaitsi, eta zakila atera zuen; mahai gainean jarri, eta honela esan zidan: ‘Ez al zaizu, bada, hau gustatzen?’. Une horretan neure buruari esan nion baietz, utzi egiten nuela. ‘Banoa, hemen nire plaka eta arma’ esan nion”.

²⁹ Karabineroen poliziako inteligentzia-zerbitzuen zuzendaritza, karabineroen erakundeko barne-brigada, polizia jarraipena egiteko eta haiek ikertzeko sortua.

³⁰ Barne-prozedura bat da; bertan, zigor baten berri ematen diote poliziari, eta espedienteetan jasotzen da.

Bizitza bikoitza eta horrek dituen ondorioak

Homofobiak eta gizarte-transfobiak pertsoneri etengabe gogorarazten die arauak agintzen duten moduan jokatu behar dutela, edo bestela, talde estigmatizatuan sartuko direla, horrek dituen ondorio guztiekin. Ildo horretan, aurreiritziak oso eragozleak eta eraginkorrak dira, beldurra eta ikara sortzen baitute, eta beldur hori nekez kudeatzen da. Aurre egiteko moduak askotarikoak izan daitezke; horietako bat da, hain zuzen, bizitza bikoitza egitea, egun oraindik oso ohikoa dena.

Karabineroen erakundeko lesbiana askok heterosexualak diren itxura egiten dute, estrategia modura; asko beste polizia batekin ezkontzera iristen dira. *“Nire estrategia zen nire lana ahalik ondoen betetzea, inoiz nitaz susma ez zezaten. Erakundean nengoela lesbiana nintzela jakin zenean, banekien zer ondorio izango zituen, zer gertatzen zen. Orain, erretiroa hartuta egon nintekeen, bizitza paraleloa eta ezkutukoa eraman ez”*.

Karemek, ordea, ezin zituen jasan bizitza bikoitza eramateak eragiten zituen presioak eta baldintzak. *“Gaixotu egin nintzen; ospitalera joan behar izan nuen, estresak eragindako gastroenteritisa zela eta. Bizitza bikoitza izateak neke psikologiko handia eragiten du. Egunduz azpajokoa... ‘Zer aitzakia jarriko dut? Nori esango diot hau edo hura?’ Denbora horretan guztian, gezurra nire bizitzako parte zen”*.

Familiako babesaren garrantzia

Hasierako erreakzioak bestelakoak izan arren, Karemen etxe-koek ulertu zuten polizia uztea erabaki izana. *“Nire amonak besarkatu egin ninduen, negarrez hasi zen, eta galdetu zidan ea zer egingo nuen aurrerantzean. Esan nion aurrera jarraituko nuela nire bizitzarekin, lana bilatu, bizimodua atera... Ulertu zuen, eta babesaren agertu zidan”*.

Bizitzako une horretan, Karemek familiaren babesaren izan zuten, funtsezkoa gogo-aldartearen onera itzultzeko, baita bere etorkizunerako ere. Babes hori galtzearen ondorioz, LGTTBI kolektiboetako pertsona askok ezin izaten dute zorientu izan, ez eta garapen pertsonalean, maila guztietan (ekonomikoa, laborala, afektiboa...), aurrera egin ere.

Eguneroko bizitza berregitea ezinezkoa da

Bizi duten egoera salatzen beldurra

2005ean, Karemek karabineroen erakundea utzi zuenean, abokatu batengana joatea aztertu zuen, Nicolerekin batera, ‘zer egin zitekeen ikusteko’. Abokatuak erantzun zien ezin zela ezer egin, Estatuari epaiketa bat irabaztea ezinezkoa zelako, eta esan zien beraien kasua bezalako beste 20 batzeari bertan, agian, ‘zerbait’ egin zitekeela.

Karem eta Nicole ez dira jazarpen eta zirikatzeko sistematikoaren egoera horretan egon diren LGTTBI kolektiboetako karabinero ohi bakarrak. 2009an, bi polizia ohi homosexualak Txileko estatuari salaketa jarri zioten, diskriminazioagatik. Legezko ekintza hark MOVILHren babesaren jaso zuten, eta salaketaren helburua zen 2007an haien bajak eta erakundea borondatez uzteko ekintzak eragin zituzten ebazpenak baliogabetzea. Txileko poliziak funtzionario homosexualen aurka bultzatzen duen diskriminazioa, jazarpena, xaxatze-ekintzak eta zigorrak salatzen auzartu ziren lehenengoak izan ziren³¹.

Giza-eskubideen urraketak jasaten dituzten LGTTBI askorentzat, salaketa ez da babes-tresna bat, polizia-erakunde asko baitira jasaten ari diren jazarpen horren eragile aktiboak. Legeak aldeko izan arren, ezin dute salaketarik jarri. *“Ezin zen presiorik egin, garai hartan ezin baitzen horrelakorik”*

³¹ Iturria: <http://www.gaymagazine.cl/psicologiasociedad/?contenido=2486>

egin; bazter batean hilda ager zintezkeen, edota desagerrarazi egin zintzaketen”.

Herralde batek dituen lege-baliabideen eta pertsonen gizar-tean bizi duten jazarpen-giroaren arteko desoreka bereziki aipagarria da nazioartean genero-arrazoiengatiko babesaren lortzeko. Aurrerago Karem eta Nicoleren asilo-prozeduraren garapenean ikusiko dugun bezala, Espainiar estatuaren arabera LGTTBlen aldeko legedia egotea nahikoa baldintza da pertsona horiek beren herrialdean babesaren izateko. Eta askotan, ustezko lege-babes hori asiloa ukatzeko arrazoi izan daiteke.

Horrez gain, Estatuaren segurtasun-indarren eta -zerbitzuen aurrean beren egoera salatu izana eskatzen zaie jasandako jazarpenaren frogaren gisa, nahiz eta testuinguru homofobo edo lesbofobo horretan salaketa jartzea ezinezkoa izan. Praktika horrek jarraitu egiten du, Auzitegi Gorenak berak onartu arren salaketarik ez jartzea ekintza horrek izan ditzakeen ondorioen beldurra eragiten duela askotan³².

Pobretze ekonomikoa

Karabineroen erakundetik kanpo, Karemek eta Nicolek beren bizitzarekin aurrera jarraitu behar zuten; eta lehen ondorioa pobretze ekonomikoa izan zen. *“Gure bizitzak erabat aldatu ziren. Karabinero ginenean ongi irabazten genuen, baina hutsetik hasi behar izan genuen, behin eta berriz. Nire amonak kreditua atera zigun, Nicoleren aitak beste bat... Ohartu ziren dena gaizki ateratzen zitzaigula, lan asko egin arren”.*

Karemek ez zuen arazorik izan lantegi batean lana aurkitzeko, baina Nicolek lan-munduko ate guztiak ixten zitzaizkiola ikusi zuen, bere lan-bizitzaren agirian karabineroen erakundetik zergatik kaleratu zuten agertzen baitzen.

Gizarte-ehunaren garrantzia

Nicolek zenbait lan lortu zituen, karabinero jarraitzen zuten lagun batzuen babesari esker, baina lan haiek gutxi irauten zioten. *“Inguru hartan lan egiten zuen lagun bati esker kontratu ninduten, eta ez zidaten lan-bizitzaren agiria eskatu; baina egun batean, ni ikertzen jardun zuen karabinero batek ezagutu ninduen, hark nagusiekin hitz egin, eta kalera bota ninduten. Amak esan zidan negozioren bat jartzeko, nire kontura”.*

Arropa saltzen hastea erabaki zuten, eta poliki-poliki, egoera ekonomiko hobea lortu zuten. Nicoleren amaren auzoan zuten etxea, eta han, jendeak bazekien bikote zirela. *“Auzoko jendeak maite gintuen; gazteenak ginen, eta auzotarrak oso pozik zeuden gurekin, ez genuen inongo arazorik haiekin”.* Ingurukoaren babesaren funtsezkoa izan zen bien gogo-aldartearen onera itzultzeko.

Estigmak eta poliziaren jazarpenak jarraitu egin zuten

“Valparaíso bizitza jasanezina egin ziguten. Bikote ginen, eta denek zekiten zergatik utzi genion polizia izateari. Kontrol pila bat jartzen zizkiguten, eta askotariko segadak egiten zizkiguten. Behin, kalean CD bat erosten ari ginela, polizia etorri eta atxilotuta eraman ninduten; CDak saltzen ari zen gizona libre utzi zuten, baina ni atxilotu egin ninduten, jabetza intelektualaren legea urratzeagatik, salgaiak saltzea niri egotzi baitzidaten. 24 orduz izan ninduten atxilotuta leihotxiki bat zuen ziega itxi batean, baldintza kaskarretan; barra bati lotu ninduten eskuburdinekin. Oihu egiten zidaten, iraindu: ‘mari-mutil’, ‘hemen daude bolloak’, ‘hortaz, paca izan zinen [Txilen poliziari horrela esaten zaio mespretxuz]. Nicolek jatekoa eramaten zidan, baina ez zidaten hura ikusten uzten. Nire alabak dena ikusi zuen, eta sei urte baino ez zituen”. 2006. urtean gertatu zen.

³² AGE, 2006ko otsailaren 28koa, 735/2003 errekurtsioari buruzkoa, behartutako ezkontza kasu batean.

Herrialde barruan lekuz aldatzea

Poliziaren jazarpena zela eta, Santiagora, Txileko hiriburura, joatea erabaki zuten, beren bizitzak berreskuratzen saiatzeko; lekuz aldatze horren ondorioz, ordea, ingurukoen babesa galdu zuten. Santiagon, gainera, jazarpenak jarraitu egin zuen. *“Beste hiri batera joan ginen, baina jazarpenak jarraitu egin zuen. Polizia gure negozioaren aurrean egoten zen, egun batean, hurrengoan... Isunak jarri eta jarri, besterik ez ziguten egiten, eta beraz, haiek ordaintzeko lan asko egin behar izaten genuen. Auzotarrek, poliki-poliki, gure egoeraren berri izan zuten, eta gure ondotik pasatzean, oihu egiten ziguten; ziur asko, poliziak gure aurka jarri zituzten”.*

Ez zioten inori eman jasaten ari ziren egoeraren berri, ez familiari, ez lagunei. Hiru urtez jarraitu zuten jazarpen-egoera horretan. *“Pribatuan jasan genuen, ahaztu nahi genuelako; gainera, alaba bat genuen, eta lan egin behar zen, aurrera egin”.*



} Ihesa

Negozioa alokairuan zegoen, eta jabeak, egun batetik bestera, lokala eskatu zien. *“Negozioa itxi, eta berriro hutsetik hasi behar genuen. Ahumada pasealekuan oinez gindoazela, geure buruari esan genion: ‘goazen, goazen hemendik...’. Baina nora? Ez genekien. Bidean gindoazela erabaki genuen. Suntsituta geunden, eta geuregan pentsatzen genuen: ‘Zer gehiago gertatu behar zaigu? Bazter batean desagertu?...’.*

Espainiar estatura iristea

Karemek familia du Espainian, eta beraz, herrialde horretara ihes egitea erabaki zuten. Hiru hilabeteko turista-bisa esku artean, 4.000 euro poltsikoan eta Txiletik ihes egiteko benetakoa arrazoiak inori aipatu gabe, Espainiar estatura iritsi ziren. Buruan oraindik ez zuten asilo-eskaera egiteko ideia.

Karemen familiak ez zien babestu lehen urratsak ematen. *“Madrilera iritsi ginen. Nik izebak eta lehengusuak nituen, egoera onean, baina noski, Karem zetorren, ‘lesbiana’, ‘bere bikote mari-mutilarekin’. Eta inor ez zen azaldu aireportura, gure bila”.*

Askotan, bizitza berri bati ekiteko Espainiar estatura iristen diren pertsonen familiaren eta ingurukoen babesa galtzen dute, LGTTBI izanik hain funtsezkoa dena harrera-herrialdean txoko bat egiteko. Eta noski, Karem, haren alaba eta Nicole ez dira salbuespena.

Hamabost egunera, pisu bat alokatu zuten. Geriatriako ikastaro bat egin zuten, eta lana aurkitu zuten egoitza batean. Egokitzapeneko lehen hilabeteak ez ziren errazak izan. *“Asko kostatu zitzaigun, inoiz ez baikenuen geriatriko batean lan egin; desberdintasun ugari hauteman genituen, asko kostatzen zitzaigun hizkuntzaren kontua, ez genuen ezer ulertzen”.*

Berriro ere “neska zintzoak” zirela frogatu behar zuten. *“Gure senideak harrituta gelditu ziren, uste baitzuten lesbiana izatea beste gauza bat zela: askatasuna, festak, drogak, alkohola eta*

gezurrak. Ikusi zutenean bikote arrunt bat ginela, gure alaba eskolara joaten zela bere orduetan, etxea txukun zegoela... bar-bakoak egitera gonbidatzen hasi ziren, kartetan jokatzera... eta poliki-poliki, haien konfiantza lortu genuen”.

Irregularitasun-egoera: hara itzularazteko arriskua

Turista-bisak baimendutako hiru hilabeteak pasatu ondoren, administrazio-egoera irregularrean gelditu ziren; ‘paperik gabe’ ez zuten lan-kontraturik lortzen, ez eta Espainiar estatuan legezko egoeran gelditzeko aukerarik ere. Karemen familiak etxe-aldaketako enpresa bat du, baina lan-eskaintza bat egiteko aukera izan arren, ez zieten horrelakorik egin.

Beraz, hain egoera larrian, indarra hartu zuen Txilen bizitako gertaerakin ‘zerbait’ egiteko ideiak; horrenbestez, Karemen lehen-gusuari aipatu zioten.

Asilo-eskubidea, babesa eta aitortza

Kontzientzia hartzea

Karemen eta Nicole Espainiar estatua iritsi zirenean, beraien xedea ez zen asilo-eskaera egitea, ‘aurrera egitea’ baizik, Txilen ez zuten segurtasunarekin eta lasaitasunarekin bizi ahal izatea. Egun oraindik, ez dira jabetzen oinarritzko eskubideen urraketa larria bizi izan zutela: berdintasunerako eta diskriminazio ezerako eskubidea, intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea, nahi duten familia osatzeko eskubidea, elkartzeko eskatasunerakoa...

Lehenengo aldiz, zer gertatu zitzaizen kontatzen hasi ziren, gertatutakoaren azaleko kontakizuna baino ez. “Nire lehengu-

suari eta izebari kontatuz hasi ginen. Zur eta lur gelditu ziren, eta uste dut lehenengo aldiz ulertu zutela zerbait; jabetu ziren gaizki pasatu genuela, eta askatasuna eskatzen genuela. Nire lehengusuak esan zuen zerbait egin behar genuela; oso haserre zegoen. ‘Neskak, egin ezazue zerbait, joan erakunderen batera’ esan zigun. Aipatu zigun Espainian LGTBI kolektiboaren erakunderen bat egongo zela, ziurrenik, eta erakunde hark zerbait egin behar zuela; zer gertatu zitzaigun kontatzeko esaten zigun. Azkenean, beraz, hala egitea erabaki genuen”.

Madrilgo erkidegoko homosexualen eta transexualen informazio-erakunde eta arretarako programara jo zuten. Eta handik CEARera jotzeko esan zieten. “Ez genuen uste guk bizitakoa salatzen modukoa zenik; garrantzia ematen hasi ginen, LGTBI kolektiboaren zerbitzura joan ginenean. Paperak erakutsi genizkion hitz egin genuen pertsonari, paper originalak, zigilu eta guzti. Hartu gintuzten pertsonak zer esan ez zekitela gelditu ziren, eta CEARera bidali gintuzten”.

Asilo-eskaera egiteko lehen urratsak

Lehen urratsak nekezak egin zitzaizkien. CEAREN bulegoetara joan zirenean, lekuz kanpo sentitu ziren; oraindik ez zeuden oso ziur beraiei gertatutakoa nazioarteko babesaren esparruan jazarpenzat har zitekeen. “Zertan gaude hemen? Oraindik ez geunden ziur zer egitera gindoazen, baina zer gertatu zitzaigun kontatzea lortu genuen”.

CEAR-Madrilen laguntzaz, asilo-eskaera egin zuten 2008ko apirilaren 14an, Asilo eta Babeserako Bulegoan (OAR³³).

Aurrez inoiz kontatu ez den zerbait kontatzea zaila da. “Amorrua sentitzen duzu. Ahaztu nahi duzu, baina aldi berean, ez duzu nahi berriro gertatzerik, Txilen jarraitzen duten beste pertsona batzuen mesederako izatea nahi duzu. Dena kontatu genuen, jazarpenak... eta bakarrik sufritu genuela; hori da tristeena, familiaren babesik ez izatea, elkarri ematen genion babesa baino ez”.

³³ Asilo eta Babeserako Bulegoa Barne Ministerioari atxikita dago, eta lehen auzialdiko asilo-eskaerak bideratzeaz arduratzen da (administrazio-bidea).

Prozesu horri esker, bizitakoari beste esanahi bat eman zioten. *“Bizitakoa normala zela nion nik, lesbianak ginela eta hala zegokigula; azken batean, gure zigorraren partetzat hartzen genuen. Gure bizipenak kontatzen hasi ginean jabetu ginen zer gertatu zitzaigun; geure buruari esaten genion, ‘baina hau niri gertatu zait? Bai, niri gertatu zait, eta ezin du horrela gelditu’. Barren-barrean gordeta zegoen”.*

“Zuri gertatutakoa kontatzen hasten zarenean, zer garrantzi duen jabetzen hasten zara”. Prozesu hori baliagarria egin zitzaion beste gai batzuetan pentsatzeko ere. Esaterako, karabineroen erakundean berriro onartuko balituzte zer egingo luketen galdetuta, Nicolek irmo erantzuten du: *“Ez, ez nintzateke itzuliko”.*

Itxaronaldia

Asilo-eskaeraren ebazpenaren prozesua oso luzea izan da, eta ugari izan dira arretarik jaso ez dugun egoerak eta frustrazio-uneak. Inongo justifikaziorik gabeko itxaronaldi luzea izan da, bost urtekoa, CEAREko abokatuak adierazi duenez.

Asilo-eskaerari ezezkia ematea

2012ko ekainean, CEAR-Madrileko abokatuak jakinarazi zieten asilo-estatutua onartu zietela, eta Barne Ministerioi idazkariordearen sinadura baino ez zela falta. Baina sinadura ez zen iristen. Handik gutxira, OARen gutun urgente bat jaso zuten. Karemek uste zuen asiloa onartu zietela, baina *“egiaz, bertan adierazten zuen hamar eguneko epea genu-*

la, helegitea jartzeko. Abokatuarekin hitz egin nuen, eta esan zidan ez zuela gertaera horren berririk, eta ez zela ohikoa”.

Karem eta Nicoleren kasuan izan den administrazio-prozedura irregularrak ez du aurrekaririk.

CEAR-Madrilen talde juridikoak asilo-eskaeraren onarpena sostengatzeko txostenak aurkeztu zituen 2010eko maiatzaren 27an, eta bai OAREk bai ACNURek³⁴ baimena ematearen aldeko txostenak egin zituzten. Azkenean, Asilo eta Babeserako Ministerioarteko Batzordeak (CIAR³⁵) eskatzaileak errefuxiatutzat aitortzea onartu zuen 2012ko maiatzaren 3an, eta aldeko proposamena igorri zuen Barne Ministeriora, asilo estatusa baimentzeko.

Ministerioak, ordea, izapidea geldiarazi zuen, eta bere zerbitzu juridikoei eskatu zien nazioarteko babesa ukatzea arrazoitzen zuen txosten bat egiteko. Estatuko abokatuak hori arrazoitzen zuen txosten bat egin zuen, aurrez aipatutako *Zamudio Legearen*³⁶ —diskriminazioaren aurkakoa— onarpena arrazoitzat hartuz, ondorioztatzen baitu *“jatorriko herrialdeko baldintzak nabarmen”* aldatu direla.

Entzuteko izapidea ireki zenean, CEAREko abokatuak txosten bat aurkeztu zuen izapide horri erantzuteko; bertan, Estatuko abokatuaren argudioak ezeztatu zituen, eta eskatzaileei asilo-estatutua baimendu izana hartu zuen oinarri. OAREk eta ACNURek hasieran emandako aldeko txostenari eutsi zioten. CIAREk, bestalde, irizpidez aldatzea erabaki zuen.

³⁴ Espainiar estatuan, Iheslarietzako Nazio Batuen Goi Mandataria (UNHCR) asilo-eskaerak baimentzeko kontsulta-organoa da. Eskaera guztien berri ematen diote, izapidea onartzearen aldeko edo kontrako txostena egin dezan. Horrez gain, UNHCRko ordezkari batek parte hartzen du, hitzarekin baina botorik gabe, Asilo eta Babeserako Ministerioarteko Batzordearen (CIAR) saioretan; batzorde horrek, hain zuzen, ebazpen-proposamen bat igortzen dio Barne Ministerioari. 2009an Asilo-lege berria onartu zenean, beste hainbat gai larriren artean, mugan zuen funtzioaren balioa gutxitu egin zen. Aurreko legediak aukera ematen zuen, mugan, eskaeraren tramitazioa onartzen ez zitzaion pertsona bati Espainiar estatuan sar zedin, baldin eta UNHCRk haren eskaera berraztertzearen aldeko irizpena ematen bazuen eta administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkezten bazen. Lege berriaren arabera, jada ez dago mugan onartu ez den pertsona bat herrialde jazarlara itzularazteko asmoetan atzera egiteko aukerarik.

³⁵ Asilo eta Babeserako Ministerioarteko Batzordea Barne Ministerioari atxikitako kide anitzeko organoa da; zehazki, gai hauetan eskumena duten departamentuetako kide banak osatzen dute: kanpo- eta barne-politika, justizia, immigrazioa, eta asilo-eskaerak hartzea. Asilo-eskaera bakoitzaren ebazpena proposatzen du, eta batzorde horren saioretan, UNHCRko ordezkari batek esku hartzen du, hitzarekin baina botorik gabe. Egiten dituen ebazpen-proposamenen oinarriak izapidetzeko onartutako asilo-eskaerei dagokienez OAREk igorritako aldeko edo kontrako txostenak eta irizpideak dira. CIARen ebazpen-proposamena, gero, Barne Ministerioari igortzen zaio.

2013ko otsailean, Karem eta Nicolek beren asilo-eskaera ezeztatzen zuen ebazpena jaso zuten. Estatuko abokatuaren txostenean, *Zamudio Legea*³⁷ aipatu zen eskaera ezeztatzea aholkatzeko premisa bakartzat, eta gaineratu zuen biak itzul zitezkeela beren herrialdera, babes-baldintza egoiak daudela argudiatuz; horrez gain, gogorarazi zien Espainiar estatutik irten behar zutela, ezinbestean.

Karem eta Nicolek badakite zer eragin izan duen lege horrek beren asilo-eskaeraren prozesuan. *“Ez dute guri gertatutakoa zalantzan jarri, baina orain, Txilen, lege hori dagoenez, badirudi herrialdea ondo dagoela; baina ez, Txile ez da beraiek adierazten duten bezalako, jendea hiltzen jarraitzen dute, lesbiana izateagatik kalera botatzen dituzte... Ondo dago sexu-joera desberdina izateagatik inor ezin dela diskriminatu agintzen duen lege bat izatea, baina ez dituzte gauzak argi utzi. Lesbiana edo gay baten eguneroko bizitza bizi egin behar da, eta eguna joan guna etorri horrela bizitzea ezinezkoa da*³⁸”.

Txilera ez bueltatzeko erabakia

Asilo-eskaera ezeztatu ondoren, Karem eta Nicole legez kanpoko egoeran eta babesik gabe gelditu ziren berriro. Badiutuzte beste bide batzuk ere, Auzitegi Nagusi eskumendunen

aurrean ezeztatzeari helegitea jartzea edota salaketa publikoa egitea; baina, batez ere, eustea, errotze-eskubidearen³⁹ bidez egoera legeztatzea lortu arte.

“Hemen oso gaizki gaude diruz, eta horregatik, zenbaitetan hara itzultzea pentsatzen dugu, Txileko egoera ekonomikoa ona baita gaur egun; baina ez, han saminez eta ezkutuan bizitzea baino nahiago dugu hemen gelditu. Ongi hartu gaituzte, gustura gaude, eta aurrera egingo dugu, nola edo hala” adierazi du Karemek.

Nahiago dute zorionsuago, lasaiago eta seguruago moldatzen ikasi duten herrialde batean bizitzea. *“Ez diezagutela gure herrialdera itzultzeko eskatu; sei urte daramatzagu hemen, eta bai guk bai gure alabak bizimodua antolatuta dugu. Gainera, segurtasun-arrazoiak tarteko, ez dugu hara itzuli nahi. Erabakia hartuta dugu; hemen gelditzen gara”*.

Bada pisuzko beste arrazoi bat ere, Txilera itzuliz gero errepre-salia jasateko beldurra, hain zuzen. Izan ere, 2012ko urrian, presioa egiteko, Txileko egunkari batean elkarrizketa bat egitea onartu zuten, eta egunkariaren azalean⁴⁰ agertu ziren. *“Ale guztiak amaitu ziren; hiri osoan erosi zituzten. Amak esan zidan ez itzultzeko hara, itxaroteko albistearen oihartzuna baretu arte”*.

Karem eta Nicolek ezkutatu gabe bizitzea lortu dute: *“Presio ikaragarriarekin iritsi ginen, eta denborak aurrera egin ahala, gero eta askeago sentitu gara”* •

³⁶ Kontakizun honen hasieran aipatutakoa.

³⁷ Zamudio Legea arau eskas samarra da, ez baitu aintzat hartzen modu orokor eta eraginkor batean Txilen bizi den diskriminazio-egoera larria. Araudi laburra da, 18 artikulua baino ez ditu, eta bertan ez da inolako prebentzio-neuririk zehazten; funtsean, erreklamazioak egiteko prozedura bat ezartzeari buruzkoa da. Araudi horrek ez du baliogabetu Zigor Kodearen 373. artikulua, moralala eta jardunbide egokiak zehazten dituena eta LGTTBI kolektiboko kideak atxilotzea arrazoitzeko oinarritzat hartu ohi dena. “Diskriminazioa” deskribatzean “hautazko” adjektiboa erabiltzen du; horrenbestez, aditzera ematen du “diskriminazio ez-hautazkoa” egin daitekeela, “bereizkeriak, bazterketak edo murrizketak” arrazoitzen dituzten irizpide objektiboak oinarri hartuta. Testuan sektore kontserbadoreen sartutako ezaugarri horrek argi eta garbi erakusten du Txileko gizartean bizi den diskriminazioa egiturazkoa dela.

³⁸ Jorge Contesse Txileko Giza Eskubideen Nazio Erakundeko aholkulariak lege hori aztertzen du hemen: <http://ciperchile.cl/2012/07/13/dudas-sobrela-efectividad-de-la-nueva-ley-antidiscriminacion/>

³⁹ GIZARTEAN ERROTZEA: baimen hori eskuratu dezakete Espainiar estatuan gutxienez hiru urte daramatzatela egiaztatzen dutenek, betiere langileak eta enpresaburuak sinatutako urtebeteko lan-kontratua badute eskaera egiteko ulean, eta ez badute aurrekari penalik, ez Espainiar estatuan ez jatorriko herrialdean. Horrez gain, bertan bizi diren beste atzerritar batzuekin familia-loturak dituztela egiaztatzen behar dute, edo horren faltan, bizi diren udalerriko Udalak igorritako txosten bat aurkeztu, herrian ondo integratuta daudela egiaztatzen duena.

⁴⁰ Ikus: <http://www.puranoticia.cl/front/contenido/2012/11/13/noticia-56013.php>



Munduko leku asko eta askotan, LGTTBI pertsonak jazarri eta diskriminatu egiten dituzte. Gilbert, Serge, Omar eta Alexandraren lekukotasunak ere egunegun aurrera egiteko ahaleginaren adierazgarri dira, eta pertsona bakoitzak bere identitatea, nahia, maitasuna, familia-harremanak eta bizitza segurtasunez eta askatasunez bizitzeko eskubidea aldarrikatzen dute.



Aurrez aipatu bezala, asilo-eskubidearen esparruan, garrantzitsua da jakitea ea jazarpenaren eragileak talde jakin bateko kide zatitza identifikatzen duen pertsona bat, eta ez pertsona horrek bere burua talde horretako kide zatitza hartzen duen.

Gilbertek adierazi digu homosexualitatea tabua dela Kuban. Berari laguntzen saiatzen zen pertsona oro *izorratzen* zuen erregimenak, eta beraz, ez zuen inongo laguntzarik izan. *Maritutzat* hartzen zuten, baita bere sexu-joera artean finkatu gabe izanda ere. Hori guztia oso zaila egin zitzaion.

} Jazarpen-moduak

Gaiari buruzko artezpideetan, ACNURek pertsonenganako zer jazarpen-modu dauden zerrendatu du. Besteak beste, jazarpen-modu hauek aipatzen dira bertan: sexu- eta genero-indarkeria, eraso fisiko eta psikologikoak, estatuko eragileek edo komunitateko nahiz familiako kideek eragindako tortura eta erailketa, poliziaren babes falta, atxiloketa bidegabeak, jokabide ez-moralaren edo desegokiaren salaketak, estortsioa eta heriotza-zigorra. Horiez guztiez gain, biltzeko, adierazteko eta informatzeko eskubidearen ukapena aipatzen du, bai eta osasun-, hezkuntza- eta enplegu-zerbitzueterako nahiz bestelako gizarte-zerbitzueterako aukeretan izaten den diskriminazioa ere.

Gizarte askotan, egun, oraindik, 'sendatu' beharreko gaixotasuntzat hartzen dira homosexualitatea, bisexualitatea, transexualitatea, intersexualitatea eta transgenerismoa. Helburu horrekin, beraz, pertsona baten sexu-joera edo identitatea

aldarazteko saiakerak egiten dira, indarrez edo bortxaz; adibidez, torturatzea edota tratu krudela nahiz umiliagarria ematea aipa ditzakegu. Giza eskubideen beste zenbait urraketa larri ere eragin ditzakete.

Sargerren amak ez zuen nahi semea gaya izatea, ez zuen onartzen. Erritu tradizionalak egin zizkion, eta medikuarengana eraman zuen, burutik ideia hura kendu nahian.

Oro har, ez zaigu gustatzen diskriminazio batukarien ideia ziurtat jotzea (hau da, diskriminazio bikoitza: lesbiana izateagatik eta emakumea izateagatik, etab.), azterketa konplexuagoak egin behar direla uste baitugu; hala ere, ezin dugu ahaztu lesbianek eta emakume transexualek, gizarteko genero-desberdintasunak direla eta, ondorio larriagoak bizi dituztela, haien gizarte- eta ekonomia-egoera prekarioagoak izan ohi direlako.

Emakume transexualak jazarri egiten dituzte estatuko agenteek eta estatukoak ez direnek, ez dituztelako betetzen gizona edo emakumea izateari dagokionez gizartean onartuta dauden arauak; eta horregatik, gizarte-arauetarako eta -balioetarako mehatxutza hartzen dituzte batzuek. Indarkeria fisiko, psikologiko edo sexual larria jasaten dute. Familiaren babesik, enplegurik eta etxerik gabe, egoera horrek, askotan, prostituzioan aritzera behartzen ditu, eta horrenbestez, are eta ahulago bihurtzen dira; horrez gain, giza eskubideen urraketa asko ohiko indarkeriatzat hartzen dira —nahita, neu-

rri batean—, eta hala, haien aurkako krimenak zigorgabe gelditzen dira.

Bestalde, pertsona intersexualak jazarri egin ditzakete, haien anatomia atipikoa dela eta; zenbait herrialdetan, gainera, sorginkeriarekin lotzen dituzte.

LGTTBI pertsonak oso baztertuta egon ohi dira gizartean, eta beren komunitate nahiz familietatik isolatuta. Komunitateko ostrazismoak gizarte-aukerak galtzea eragin dezake, gehien maite dituzten pertsonen eta gertukoenen baliabideak eta babesak galtzea. Buruko osasunean ere kalteak eragin ditzake; batez ere, denbora luzean egon bada egoera horretan, eta ez bada inor zigortzen arrazoi horregatik.

Gilbertek haurtzaroan trauma bat bizi izan zuen, eskolako lagun batzuek, baita zenbait irakaslek ere, berarekin izan zuten jokabidea zela eta; horregatik, garai hura bere bizitzako gogorrenetakoa dela dio. 12 urte baino ez zituen.

Pertsona horiek beren buruaz duten iritzia gizarte-irudikapenak ezartzen dizkieten ezaugarriek baldintzatzen dute, neurri handi batean, eta horrek, askotan, gutxiespen-sentimenduak, autozentsura eta autosuntsipena eragiten dizkie. Horrez gain, pertsona diskriminatuak direla onartzea eragozten die, eta ez zaie iruditzen gainerakoek dituzten eskubide berak dituztenik. Horrenbestez, errepresio- eta autozentsura-kasuak gertatzen dira, norberaren baitakoak nahiz taldekoak.

Alexandraren esperientzian bi etapa bereizi behar dira: lehenengoa, homosexuala zela onartzea, eta bigarrena, transexuala zela onartzea. Bigarren urrats hori oso korapilatsua izan zen; ez zekien zer nahi zuen. Hondurasen, emakumez jantzita ateratzea *nork bere burua urkatzearen parekoa da. Zabor hutsa bihurtzen zara.*

Horrenbestez, maite diren pertsonen eta gertukoena babesa funtsezkoa da. LGTTBI pertsona askok aipatzen dute zein garrantzitsua den entzun, errespetatu eta ulertuko dituen pertsona bat aurkitzea, ama, osaba, arreba, lagun on bat...

Alexandrak izeba baten babesak izan zuen; hari aitortu zion, lehenengo aldiz, mutilak gustatzen zitzaizkiola. Izebak indarra eman zion. Izebaz gain, une jakin batean, kristau-elizako apaizaren babesak ere izan zuen, Alexandraren eta bere amaren arteko bitartekari-lanak egin baitzituen. Amak geroa aitortu zion nahiago izango zuela berak kontatu izan bali. Baina, hasiera batean, ez zuen horrelakorik egin, egoera hura *lotsa baitzen familiarentzat; hondamendia.*

Sergerentzat, bere arreba txikia izan da babesik handiena; harekin harremana du oraindik. Laguntza handia eman zioten, halaber, bere lehen bikotekideak —auzoan ezaguna zen gizon bat— eta italiar apaiz batek; zer gertatzen zitzaion ongi ulertzen ez zuen unea batean, bere burua onartzeko eta aurrera jarraitzeko aholkatu zion apaizak.

Egoera horien guztien ondorioz, LGTTBI pertsona askok beren herrialdetik ihes egiten dute, eta beste herrialde batzuetara jotzen dute, babes bila. Bidean, edota 'herrialde seguru' batera iristea lortzen dutenean, minari lotuta jarraitu dezakete, ordea.

Sergek arazo asko izan zituen Kamerunetik Marokora iristeko bidaiak iraun zuen 4 urteetan. Lagun batek esan zion Espainiar estatura iritsi bezain laster CEARera jo behar zuela, eta zer gertatu zitzaion kontatu, den-dena. Murtzian poliziaren erasoak jasan zituen, eta ez zioten utzi asiloaren babesaren eskaera egiten, behin eta berriz eskatu arren; horrez gain, hilabetez izan zuten atxilotuta. Beldur handia pasatu zuen.

Azkenean, CEAR-País Valencia erakundearekin harremanetan jartzea lortu zuenean, izugarritzko lasaitasuna hartu zuen, poza, eta behin abokatuari dena kontatu ondoren, arintasuna. *Ez nion beldurrik ezeri, ez nuen ezer ezkutatzeko. Lasai gelditu nintzen.*

Helmugako herrialdeetako gizarteetan dagoen homofobia eta transfobia direla eta, agintariez mesfidati agertzen dira; gainera, indarkeriazko eta diskriminaziozko egoerei aurre egiteko arriskua dute.

Poliziak hasieratik bertatik hartu zuen susmagarritzat **Alexandra**. Tratu umiliagarria eman zioten. 3 egunez egon zen atxilotuta Madrilgo Barajas aireportuko ez-onartuen gelan. Gela hartan zeuden beste pertsona askok eta askok negar egiten zuten. Tratu txarra eman zioten. *Gaizkile baten moduan tratatu ninduten, lapurtzera edo norbait hiltzera etorri banintz bezala*. Baina bera indarkeria-egoera batetik ihesi zetorren, errepresio-egoera basatietatik ihesi. Indarkeriazko egoera hark arrastoak utzi dizkio, bai gorputzean bai bihotzean. Hondurastik ihes egin behar izan zuen, mutilez jantzita. Poliziak une oro jarri zuen zalantzan bere identitatea; horrenbestez, transfobiatik ihesi zetorren emakume bat zela frogatu behar izan zuen, haien aurrean biluztuz.



} Arrazoiak

LGTTBI pertsonen aurka egiten diren jazarpenak haiek araz kanpoko sexualitatea eta identitatea izatearekin daude lotuta. Hau da, haien sexu bereko pertsonen sozialki eta kulturalki ezartzen zaizkien rolak eta haiengan jarritako itxaropenak betetzen ez dituzten pertsonak dira.

Egungo eredu neoliberalak sozialki, ekonomikoki, kulturalki eta politikoki zer jokabide izan behar dugun zehazten digu; baina horrez gain, sexuari eta generoari dagokionez nola jokatu behar dugun ere adierazten digu. Eredu horren eragin-ahalmena gai orokorretan gauzatzen da oro har, baina baita gure eguneroko bizitzan ere, oharkabean pasatzen zaizkigun mila keinu txikitik. Sexuari eta generoari dagokionez, heteronormatibitateak eta genero-binarismoak errealitatea modu

} GENEROAK

Emakumeenganako diskriminazioa agerian utzi du generoak, baita genero bati lotutakoak ez diren bestelako itxurak, sentimenduak, desirak edota portaerak dituztenenganako diskriminazioa ere, bereziki, itxura, sentimendu, desira edota portaera 'femeninoak' badira. Emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak finkatzen ditu patriarkatuak, bai eta arauen barruan dauden sexualitate-ereduen eta kanpoan daudenen (sexu bereko pertsonen artekoak, bikote-harremanetatik kanpokoak, etab.) artekoak ere.

NAHIA taldeak gizartean hedatuta dagoen genero-sistema hau birpentsatzea proposatzen du. Kontuan hartu behar da sentitzeko eta generoa bizitzeko aukera ugari daudela: generoekin identifikatu nahi ez duten pertsonak (transgeneroak), hormonak hartzen dituzten eta ebakuntzak egin dituzten gizon-emakume transexualak, hormonatu eta operatu gabeko transexualak, gayak, lesbianak, gizon-emakume bisexualak, etab.

} IDENTITATEAK

Identitatearen bidez, nor bere barrua eraikitzen dugu. Identitateak ezinbestekoak dira gizartean bizitzeko, baina aldi berean, pertsonak sailkatzea eta estereotipatzea eragiten dute. Patriarkatua eta heteronorma gure identitateak eraikitzekeko prozesuan daude; horregatik, egitura hegemoniko, hierarkiko eta baztertzailak baldintzatzen gaitu, hainbat identitate bazter uzten dituenak.

Iturria: NAHIA



bakar batean ikusarazten digute, aurrez zehaztutako eta definitutako jarraibide batzuek baldintzatutako arauen arabera.

Eredu horrek kontrolatu egin behar du bere 'boterearen' aurkako edozein proposamen, aukera hori zeinahi arlotakoa izanda ere (ekonomia, kultura, sexua edota generoa). Suntsituz, kriminalizatuz edota gaixotasuntzat sailkatuz. LGTTBI pertsonen gaineko kontrola, funtsean, homofobiaren eta transfobiaren bidez gauzatzen da. Gorroto horren guztiaren funtsa, hain zuzen, gizarte heteronormatiboetan generoa, identitatea eta sexualitatea eraikitzen diren modua dugu.

Arauz kanpoko identitateek (transgeneroak eta transexualitateak, bereziki) zalantzan jartzen dute sexuak aurkakotzat hartzeko ideia, eta betidanik kontrakotzat edo osagarritzat hartu diren generoen elementuak hartzeko eta konbinatzeko aukera bultzatzen dute. Homosexualitateak, bestalde, zalantzan jartzen du identitatea eta desira antagonikotzat hartzen dituen dikotomia; hau da, pertsona batekin identifika gaitzke eta, aldi berean, hura desiratu.

Eraikitzen ditugun identitateak askotariko gurutzatzeen emaitza dira. Emakume, gizon edota bi kategoria horietako bakar batean sartzen ez den beste modu batean identifika gaitzke, eta aldi berean, desirari eta afektibitateari dagokienez, askotariko sexu-hautuak egin ditzakegu. Pertsona guztiok egiten ditugu sexu- eta identitate-hautuak, nahita edo nahi gabe; horrenbestez, aukera horiek direla-eta egiten diren bazterketen eta diskriminazioen zilegitasunean edota zilegitasun ezan oinarritu behar da eztabaida politikoa.

Amaren sabelean gauden unetik beretik esleitzen digute genero bat, hasiera-hasieratik baldintzatzen gaituen oinordetza kulturala. Horrek ez du adierazten, ordea, gure identitatea definitzean askatasun handiagoz jokatzeko aukera aldarrikatu ezin dezakegunik.

Esparru arau-emaileak baldintzatzen du gure sexualitatea, eta eredu patriarkatua eta heterosexismoa ditu oinarri. Elizak, familiak, komunikabideek eta psikiatriak funtsezko funtzioa dute, egun, sexualitate legitimo eta osasungarritzat hartzen dugun

hori osatzen. Ezkontza, ugalketa eta maitasuna sexua justifikatzeko arrazoitzat erabili izan dira historikoki, eta egun, oraindik, legítimo izateaz ditugun pertzepzioak baldintzatzen dituzte. Adibidez, sexualitate 'onaren' eta 'txarraren' artean, egoera hauek ditugu: onena, ezkontza edo maitasuna helburu duen sexua; tartean, noizbehinkako sexu-harremanak, sexu berekoekin izandakoak, bikote-harremanetik kanpokoak; eta txarretan txarrenak, trabestismoa, fetitxismoa eta abarrak.

Hierarkia horiek pertsonen bitzta baldintzatzen dute, eta botere-harremanak eta jazarpenak sortzen dituzte, bai helduen arteko zenbait sexu-jardun zigortzen eta jazartzen dituzten tes-tuinguruetan bai 'gure' mendebaldeko demokrazietan.

Sexu-organo femenino edo maskulino batzuekin jaiotzen garel-a sinestarazten digun biko logika zalantzan jartzen dugu, gizon ala emakume eta heterosexual bihurtuko gaituena. Eredu nagusi eta menderatzailea gainditzeko, errealitateari beste modu batean begiratu behar diogu; hau da, atalen arteko azterketa sistemiko baten bidez, hainbat arlo (ekonomia, generoa, sexua, kultura, osasuna...) nola gurutzatzen eta elkarlotzen diren, modu konplexuan, behatzeko aukera emango diguna. Azterketa horren bidez, beharbada, hobeto ulertuko ditugu gertatzen diren askotariko zapalkuntza- edo pribilegio-espe-rirentziak, bai eta norbanakoez nahiz taldeek abian jarri dituzten askotariko mekanismoak ere, egoera horiei aurre egiteko, erre-sistitzeko edota urratzeko.

Jazarpen-eragileak eta Estatuaren eginkizuna

LGTTBI pertsonak jasaten duten jazarpena estatuko eragileek nahiz estatukoak ez direnek eragiten dute. Eragile horien artean, bereziki aipatu behar da estatuko segurtasun-indarre-ekin duten funtzioa (atxiloketa bidegabeak, tratu krudelak, anke-rrak eta umiliagarriak direla eta), baita familiaren, komunitatearen eta 'gizarte-garbitzarako' talde paraestatalen jarduna ere, zuzenean edo zeharka esku hartzen baitute beldurraraz-teko eta jazartzeko ekimenetan, etxeko indarkeriaren kasue-

tan, eta bestelako indarkeria fisiko, psikologiko edo sexuale-tan.

Aurrez aipatu dugun bezala, asilo-eskubidearen arloan, in-darkeria norik gauzatzen duen kontuan hartzeaz gain, bereziki garrantzitsua da estatuak zer egiten duen jakitea. Estatuak babestu egin behar luke, eta eraginkorra izan, LGTTBI pertso-nen aurkako erasoak eta abusuak gertatuz gero; ordea, agin-tariak ez badaude babesteko prest edo ez badute horreta-rako baldintzarik, jazarritako pertsonak eskubidea du babesa nazioarteko beste herrialde batean bilatzeko.

Asilo-eskubidea LGTTBI pertsonenganako jazarpenaren aurrean

Asiloaren Legearen arabera, eta ACNURek gai horretarako emandako jarraibideak kontuan hartuta, asilo-eskubidearen esparruan sartzen da LGTTBI pertsonen aurkako jazarpena, baldin eta egoera hauek gertatzen badira:

} Jasandako kalteek giza eskubideen urraketa larria, siste-matikoa eta jarraitua adierazten badute, horien jatorria eta behin eta berriz gertatzen direla kontuan hartuta.

} Estatuak berak sustatzen edo onartzen baditu kalte horiek, edota ez badago prest edo baldintzan ezer egiteko biktimak jazarpen horietatik babesteko, eta horrenbestez, abusu ho-riek zigorgabe jarraitzeko bide ematen badu.

Hondurasen, **Alexandra** emakume transexualen erakunde bateko lehendakaria zen. Estatuak beraien aurka bultzatu zuen errepresioa zela eta, eraildako bere lagunak gorpuak identifikatu behar izan zituen eguna joan eguna etorri. Tran-sexuala izateagatik, lagunak erailketak salatzeagatik eta bere herrialdeko transfobia ikusarazteagatik, mehatxu ugari jaso zituen eta jazari egin zuten. Hondurasko estatuaren aurkako demanda jarri zuen, eta ihes egin behar izan zuen.

- LGTTBI pertsonak, beren herrialdera itzuliz gero, tratu ankerra edo umiliagarria jasotzeko arrisku larria badute, bai eta heriotza-arriskua badute ere.

Alexandrak adierazi du bere herrialdera itzularazi nahi zutela, baina berak bazekien, itzuliz gero, hil egingo zutela, bai Hondurasko estatuaren aurka jarri zuen salaketagatik bai jasaten ari zen jazarpen larriagatik. Barajasko aireportuan, abokatu baten laguntza izan zuen, eta hark lagundu zion asiloa eskatzeko izapideak egiten. Herrialdera sartzeko baimena lortu zuenean, atxilotuta zuten gelatik lasterka irten zen.

- Pertsona bat errefuxiatu bihurtzeko izan ditzakeen arrazoiak ez badira baztertzailak, eta politika-, erlijio- eta kultura-testuinguruaren arabera, zenbait arrazoi garrantzitsuak izan badaitezke.

- LGTTBI pertsonak gizarte-talde jakintzat hartzen dituzte asilo-eskubidearen esparruan. Jazarpena pairatzea ez beste ezaugarri bat berdina duten pertsonak dira, gizarteak, askotan, talde gisa hartzen dituenak.

- Ez da beharrezkoa taldeko kideak elkartzea, edota gizartean ikusteko moduan egotea, eta ez dute talde bateko kidegata aitortu edota agertu behar, gizartean horrela har ditzaten. Gizarte-talde jakin bateko kidegata hartu ditzakete, jazarpena egiten duen eragileak horrela uste duelako soilik; hala gertatzen zaie, esaterako, beren burua horrela definitu ez arren, arrazoi horregatik errepresalia jasaten duten pertsonak.

- LGTTBI pertsonak haien sexu bereko pertsonak sozialki eta kulturalki ezartzen zaizkien rolak eta haiengan jartzen diren itzaropenak ez betetzeagatik egiten zaien jazarpena iritzi politikotzat har daiteke asilo-eskubidearen esparruan. Jokabide horiek “ez dituzte onartzen agintariek eta gizarteak, beren politikei, ohiturei eta metodoei kritika egiten baitiote”. Arauz kanpoko jokabideak karga politiko handiko jarduerak dira, bakarka edo taldean aldaketa bat lortzea baitute xede, nahita edo nahi gabe.

Beti ez da beharrezkoa iritzia adieraztea. Kultura eta tradizioa ez dira apolitikoak; askotan, botere-harremanekin elkarreragiten dute, eta eragina dute gizarteko eta politikako egoeretan. LGTTBI pertsonak dagokienez, araututa dagoen ereduaren aurka egotea soilik askatasunaren aldarritzat har daiteke, botere politikoaren sorburu den oinarritzko egiturari mehatxu egiten dion desafiotzat.

LGTTBI pertsonen aurkako adierazpen ofizialek ukatu egiten dute beren herrialdean homosexualitatea dagoenik, edota ez dituzte nazio-identitatearen partetzat hartzen; adierazpen horiek, beraz, jazarpen politikoa eragin dezakete.

Omarrek, bere egoera dela eta, badaki arazo bikoitzari egin behar diola aurre: bere nazionalitatea eta bere homosexualitatea. Palestinarra eta *gaya izatea izan daitezkeen gauzarik txarrena da*.

- Sexualitateari eta identitateari dagokionez pertsona batek ez baditu betetzen ezarrita dauden erlijio-arauak, jazarpena jasan dezake.

Erljio guztietan indartzen da araututako erdua, eta aniztasunerako aukera oro ukatzen da. Batzuetan, erlijioa kulturaren baitan hain errotuta egoten denez, zaila da jakitea zer izan daitezkeen jazarpenaren motibo. Erljio-egiturak eta estatu-erakundeak argi bereizten ez direnean, iritzi politikoaren eta erlijio-iritzien arrazioak elkarri gainjar daitezke.

Omar ez da praktikatzailea. Islamak, ordea, bere homosexualitatea debekatzen du, eta horrek gaizki sentiarazten dio; hori dela eta, gai horretan luze pentsatzen du.

Norberaren sexu-joera eta genero-identitatea direla-eta asiloaren eskaera egiten duten pertsonen kopurua handiagoa da zifra ofizialek adierazten dutena baino; beraz, beharrezkoa da haiek ikusaraztea. Norberari gertatutakoari buruz hitz egiteko aukera izan arte, bizi izandakoa kontatu eta horri buruz hausnartzen duten arte, asko eta asko ez dira behar bezala jabetzen babestu egin ditzaketela eta horretarako eskubidea dutela. Horrenbestez, asilo-eskubidea norberari gertatutakoa

aitortzeko modu bat bihurtzen da. Hala ere, prozesu horretan frustrazioarekin eta bidegabekeriarekin lotutako sentimenduak sortzen dira.

Gilbert arraro sentiarazi zuen, asilo-eskaera egiteko, bere sexu-joerari buruz hitz egin beharrak; gaizki pasatu zuen, azalpen handia eman behar izan baitzuen. Hala ere, lehenbiziko aldiz sentitu zuen erakunde batekin hitz egin zezakeela, eta ez zutela ez zigortuko, ez jazarriko, ez eta epaituko ere. Barruan zuen korapiloa askatuko zion psikologo batekin hitz egiten ari zela iruditu zitzaion.

Aldi berean, ordea, prozesua frustragarria izan zen. Bere eskabidea izapidetzeko onartu zutenean, lanpostu ona lortu zuen; bizitzak beste aukera bat eman zion. Handik sei hilabetera, ordea, errefuxiatu-estatutua ukatu ziotenean, berriro ere administrazio-egoera irregularrean gelditu zen, eta lana galdu zuen. Hainbat aldiz aurkeztu zituen bere egoera legezatzeko dokumentuak, gizartean errotuta zegoela argudiatuz, baina baimena ukatu zioten. Osasun-txartela izateko eskubidea ere galdu zuen, osasun-arazo larriak izan arren. Zortzi urtez egon da legez kanpoko egoeran, baina orain gutxi, ezkondu egin da, eta azkenean, lortu du bere egoera legezatzatea.

Alexandrak aitortu du asilo-eskaera egiteak hainbat arlotan ekarri diola onura. Bere kasua nahiko azkarra izan dela uste du, iritsi eta sei hilabetera lortu baitzuen errefuxiatutzat aitortzea. Pozik dago. Errefuxiatutzat aitortzearen ondorioz, bizimodua apur bat aldatu zaiola sentitu du, eta orain aukera bat duela aurrera egiteko. Faltan botatzen du bere herrialdea, baina handik irteera behartu zuten, eta ezin da itzuli. Hemen bizi daiteke, baina zailtasun ugari ditu, ez baitu ez dirurik ez lana lortzeko aukerarik.

Sergeren arabera, estatutua lortzeak bere sexu-joera askatasunez bizitzen lagun diezaioke, inoren beldur izan gabe. Jada, hiru urte pasatu dira asilo-eskaera aurkeztu zuenetik, eta oraindik, ebazpenaren zain dago. Guztiz zoriontsu izateko alderdi hori falta zaiola uste du, bizitzaz gozatzeko eta disfrutatzeko.

Omarren ustez, estatutua lortzeak ez dio bizimodua aldatu; bere iritziz, estatu batek emandako paperak ez du ezer aldatzen. *Hemen egoteko aukera ematen dizu, ez besterik. Baina nire eskubidea da hemen egotea, ez baitut bizitzan ezer txarrik egin.*

LGTTBI pertsonak babesteko oztopoak Europar eta Espainiar estatuan

EBko estatu kideetako jarduna giza eskubideei eta errefuxiatuei buruzko Europako nahiz nazioarteko legediak ezarritako estandarren azpitik dago. Zenbait oztopo daude, LGTTBI izateagatik jazartzen dituzten pertsonen nazioarteko babes- lortzea zailtzen edota eragozten dutenak; hori dela eta, babes-eskaera ugari ukatu egiten dituzte.

Hurrengo lerroetan, Espainiar estatuan aurkitzen ditugun zenbait oztopo azalduko ditugu; oztopo horietako asko LGTTBI pertsonen buruzko estereotipoetan oinarritzen dira, bai eta sexu-eskubideez egiten den kontzeptualizazioan ere, giza eskubideen alorretik kanpo, hain zuzen.

Diskrezioz jokatzeko eskakizunak

LGTTBI pertsona askori ez diete onartu asilo-eskaerarik, edota ukatu egin dizkiete, beraien sexu-joera edota genero-identitatea ezkutuan izanez gero ez dituztela jazarriko argudiatuz. Ezkututzea (diskrezio-eskakizuna ere deitzen zaio) 1951ko Genevako Konbentzioaren, asiloaren alorreko Europako araudiaren eta ACNURen beraren jarraibideen aurkako praktika da, eta norberaren sexu-joeraren edota genero-identitatearen arabera aske bizitzeko eskubidea urratzen du. Horrez gain, pertsona bakoitzaren joera eta identitatea norberaren nahiaren aurka publikoki zabaltzeko arriskua eten-gabea izanik, jazarpenaren beldurra eragiten du.

Horrela jokatu, Espainiako asiloaren praktikak jarrera homofoboak eta transfobikoak bultzatzen ditu, pertsona horiek ihes egitea eragin duten jarrera berak, hain zuzen.

Orain gutxi, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (Luxenburgo) nazioarteko babesa aitortzeko baldintzei buruzko araudia nola interpretatu azaltzeko irizpena eman du, eta adierazi du ez dela zilegi asilo-eskaera egin duen pertsona homosexual batek, jazarri ez dezaten, bere sexu-joera ezkutatatu behar izatea edota bere herrialdean diskrezioz jokatu behar izatea.

Herrialde barneko lekualdaketa

1951ko Genevako Konbentzioan jasota ez dagoen arren, estatu kide askok herrialde barneko lekualdaketa deritzona hartzen dute oinarri nazioarteko babesaren eskaerak ukatzeko, nahiz eta gauza jakina izan kasuan-kasuan dagokien herrialdean homofobia edo transfobia nagusi direla.

Babesak eraginkorra izan behar du, eta beraz, herrialde barneko lekualdaketa ez da alternatibatzat erabili behar sexu-joera eta genero-identitatea kriminalizatuta dauden herrialdeetan, ez eta arazorik ez izateko 'diskrezioz' jokatu behar den kasuetan ere.

Sinesgarritasunaren zehaztapena

Asilo-prozeduretan, lehenbiziko urratsa da eskatzailea LGTTBI den (ala ez) zehaztea. Agintariek jakin behar dute kolektibo hori ez dagoela estereotipoetatik libre, eta beraz, ez dute baztertu behar haiek zalantzan jartzeko aukera.

Hasiera batean sexu-joera edota genero-identitatea ezkutatzeak, ordea, zenbaitetan korapilatu egiten du nazioarteko babesa lortzeko aukera, eskatzailearen sinesgarritasuna zalantzan jartzea eragiten baitu. Hain zuzen, ezkutatze hori azaltzen duten arrazoi ugari daude: larritasun-sentipena, lotsa edota abusuak jasateko beldurra; norberaren sexu-joera edota genero-identitatea oraindik argi ez izatea; eta ez jakitea zeinen garrantzitsuak diren sexu-joera nahiz genero-

identitatea asilo-eskaera behar bezala ebaluatzeko. Horrenbestez, eskaera asko atzera botatzen dituzte.

Jatorriko herrialdeari buruzko informazioa

Herrialde askotan, LGTTBI pertsonak jasaten duten jazarpenari buruzko informazio gutxi dago. Zailtasun handiak izaten dira gertaerak ikertzeko, eta gutxitan salatzen dituzte egindako abusuak, gizarte-estigma eta jendartearen dauden aurreiritziak direla eta.

Jatorriko herrialdeko legeak

Kriminalizazioa

Sexu bereko pertsonen arteko harremanak zigortzeak tolerantziarik gabeko ingurune zapaltzaileak eragin edo sustatu ditzake, eta auzipetzeko mehatxua sortu. Kartzela-zigorrak edota zigor fisikoak egotea jazarpen-ekintza bat da, lege horiek diskriminazio-giroa eta tolerantziarik eza legitimatzen laguntzen baitute, baita aplikatzen ez direnean ere.

Despenalizazioa

Sexu bereko pertsonen arteko harremanak despenalizatzea, eta diskriminazioaren aurkako legezko neurriak edota beste-lako neurri positiboak hartzea aurrerapausoak izan arren, ez dute zuzenean beldurra desagerrarazten. Aldaketa erabatekoa izan beharko litzateke, ez legezkoa bakarrik. Herrialde askotan, aldeko legedia izan arren, testuinguru homofoboek edota transfoboek bere horretan jarraitzen dute, guztiz testuinguru zapaltzaileak; herrialde horietan, gainera, estatuak jokabide horiek barkatzen edota onartzen dituzte, eta ez dute gaitasunik aurreiritzi horiei aurka egingo dien babes eraginkorra emateko.

Karem eta Nicoleren kasuak, esaterako, agerian utzi du Espainiako gobernuak zer jokabide duen errefuxiatuen jatorriko herrialdeetan diskriminazioaren aurkako legeak ateratzen

dituztenean. Segurutzat jotzen da aurrerantzean ez dela jazarpen-arriskurik izango, eta asilo-eskaerak ukatu egiten dituzte, horien aplikazioari buruzko azterketa sakonik egin gabe. Azken batean, babesteko duten erantzukizunari uko egiteko aitzakia bihurtzen da.

Aurre egitea eta erresistentzia

Aurre egiteari eta erresistentziari buruz hitz egiten dugunean, beren giza eskubideak urratu arren aurrera egiteko eta duintasunez bizitzeko estrategiak pentsatzen eta abian jartzen dituzten pertsonak eta taldeak etortzen zaizkigu gogora. Azken batean, pertsonak duten gaitasunaz dihardugu, norberaren oinarritzko eskubideei erasotzen dieten egoera traumatikoetan aurre egiteko eta erresistentziaz jokatzeko gaitasunaz.

lhes egitea, esaterako, erresistitzeko eta, araututako eredutik kanpo, norberaren sexualitatea eta identitatea askatasunez eta segurtasunez bizitzea lortzeko estrategia bat da.

Pertsonak berak egoerari aurre egiteko estrategiak sortzen ditu bere burua biktimatzat aitortzen duen eta beste pertsona batzuekin harremanetan jartzen den unetik beretik; hau da, ordura arte banakako gaitzat hartzen zenari talde-dimentsioa ematen zaion unetik beretik.

Gilbertek gauza bat du Kubako iraultzari eskertzeko: behe-ra ez begiratzen irakatsi dio. *Denok hilko gara duintasunez, bizitzeko duintasuna behar baita.* Irribarrea da bere babesa, eta halakorik ez duenean, haren bila joaten da.

Omarrek badaki palestinarra izateak eta okupazioa bizi behar izateak indartu egin duela, aurrera jarraitzeko indarra eman dio. Aldi berean, sormenez jokatzen irakatsi dio. la itsututa dago erresistentziarekin. Hala ere, ez du asko behar errudun sentitzeko, eta horrek zaildu egiten du bere onera etortzea; bere esanetan, zenbaitetan, berak ukatzen dio bere buruari zorionsu izateko eskubidea.

Alexandrak argi du transexuala izatea ez dela besteak baino gutxiago izatea. *Ez naute inoiz menderatu, eta ez dute inoiz lortuko. Buru altxatzen ari naiz, eta aurrera egin nahi dut, jendeak ere aurrera egitea, burua ez makurtzea... Mihia moztu diezadakete, baina eskuak ditut idazteko. Eskuak moztu diezazkidakete, baina oinak ditut zorua kolpatzeko.*

Ez du negar egiten jarraitu nahi, irri eginez barruko korapiloa askatuz joan baitaiteke. Aurrean duen bizitzaz gozatu nahi du. Baina ez du ahazten: *dena gordetzen dut nire liburuan, nire bihotzean.*

Sergek ezin du ahaztu, beti zama hori izango du gainean, baina barkatu bai, barka dezake.

Hainbat eragile daude prozesu honi lotuta:

Familiak eta lagunek hainbat sentimendu eta balio ematen dituzte: adiskidetasuna, maitasuna, errespetua, onarpena, babesa, laguntza eta gizarte-legitimazioa. Horregatik da hain garrantzitsua helmugako herrialdeko gizarteetan babes-sareak izatea (lagunak, erakundeak...).

Gilbertek bere familiaren eta lagunaren babesa izan zuen. Baita psikologo baten babesa ere: hark normaltasun osoz hartzen zuen homosexualitatea, ez gaixotasun bat izango balitz bezala. Baina hura salbuespena zen, gehienek opor batzuk hartzea aholkatzen baitzioten, burua pixka bat argitzeko.

Alexandrak bere izebaren laguntza izan zuen; hark eman zion indarra. Aita alkoholikoa zen, eta matxista, eta amak, berriz, neska txiki bat bezala hazi zuen; behar baino gehiago babesten zuen, eta ez zion uzten etxetik irteten.

Komunitatea eta gizarteak ere babesa eman diezaiekete, pertsona horiek biktimatzat aitortuz; babes emozionala, materiala eta sinbolikoa emanez; haien segurtasuna zainduz; eta eskubide urraketa salatuz edota haien aldeko manifestazio publikoetan parte hartuz. Oso garrantzitsua da LGTTBI mugimenduak egotea, aholkuak eta babesa emateaz gain,



poliziaren jazarpen-egoeren ondorioz sor daitekeen bakardade- eta isolamendu-sentimenduak arindu baititzakete. Beti ez dute lortuko mehatxuei aurre egitea eta herrialdetik ihes egiteko ideia baztertea, baina oso garrantzitsuak dira politikoki eragitea nahiz babesa eta elkartasuna adieraztea xede duten ekintzak gauzatzeko.

Sergek adierazi duenez, gazte-erakunde homofobo bat dago bere herrialdean, Congreso de Jóvenes de Camerún (JCR), eta urtero, abuztuaren 21ean, homosexualitatearen aurka egiten dute, eskualde horretako homosexualek bizi

duten aurkako giroa sustatzeko. Gainera, homosexualitatea debekatuta dago, eta horren ondorioz, lagun ugari ditu kartzelan. Oso egoera larrian bizi dira; bortxatu egiten dituzte, eta oso erraza da GIB birusaz kutsatzea.

Asko lagundu zion Kamerunen LGTTBI pertsoneri babesa emateko eta haien eskubideak defendatzeko erakunde bat zegoela jakiteak. Baina ez zuen haiengana jo, gerta ziezaiokeenaren eta bere anaia nagusiaren errepresalien beldur. Sergeren lagun bat joaten zen, eta hark ematen zizkion aholkuak.

Adierazi duenez, homofobiaren aurka borrokatzen ari den abokatu bat dago bere herrialdean; Alice Nkom du izena, eta Kamerunen praktika homosexualak despenalizatzea du helburu. Alicen lana ez da batere erraza, eta lan hori dela eta, arriskuan jarri ditu bai bere bizitza bai bere familiaren bizitza. Bere ustez, abokatu gehiago egongo balira, zerbait lortu ahal izango litzateke.

Bestalde, LGTTBI pertsonak babesteko atzerriko erakundeak bere herrialdeko gobernuak presionatuz egiten ari diren lana oso garrantzitsua dela iritziz dio; oraindik harremana du haiekin.

Jatorriko herrialdeko erakundeak ere badute zeresana prozesu honetan; besteak beste, egoera aitortuz, egia bilatuz, justizia sustatuz eta biktimen mina erreparatuz, bai eta gizartea sentsibilizatzeko prozesuak bultzatuz ere; horretarako, diskriminazioaren aurka egiten duten eta diskriminazioaren eragileak zigortzen dituzten legeak egin eta gauzatu behar dira.

Helmugako herrialdeetan, bestalde, LGTTBI pertsonen asilo-prozedurak erraztu behar zaizkie, eta jazarpen-mota horiek nazioarteko babesaren esparruan aitortu behar dira.

Azkenik, bai han bai hemen, LGTTBI pertsonen giza eskubideen aldeko erakundeak eta gizarte-sareak babestu eta aitortu behar dira, eta gizarte-baliabideak nahiz baliabide materialak eman behar zaizkie, egoerari aurre egiteko eta erresistitzeko estrategiak identifikatu ditzaten.

30 urtez borrokatu eta aldarrikatu ondoren, zenbait lorpen izan dira Espainiar estatuko gizartean nahiz legedian; lorpen horiei esker, egun, LGTTBI pertsona batzuk errefuxiatuta daude bertan, askok nahiago baitute beren sexu-joera eta genero-identitatea segurtasunez bizi, beren jatorriko herrialdeetan zituzten lan-aukerak edota ongizate ekonomikoa galdu arren •

} Gehiago jakiteko

Giza-eskubideen aldeko erakundeak

} ALDARTE – Bizkaiko Lesbiana, Gay eta Transexualen arreta zentroa.
Sexu askatasunerako ikerketa eta dokumentazio zentroa
www.aldarte.org

} ILGA - Lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen eta intersexualen nazioarteko elkarteak.
www.ilga.org

} ORAM International – Babeserako, asilorako eta migrazioarako erakundea.
www.oraminternational.org

} FELGTB – Lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen Espainiar estatuko federazioa.
www.felgtb.org





bibliografia

Nazioarteko babesari buruzko artezpideak: genero-arrazoiengatiko jazarpena, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioko 1A (2) artikularen eta/edo 1967ko Protokoloaren testuinguruan. Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa, 2002 :

Convención para la Eliminación de todas las formas de discriminación contra las mujeres. 18 de diciembre de 1979. 1979ko abenduaren 18a, Nazio Batuen Batzar Nazionala, 1979

Informe sobre Derechos Humanos en la Frontera Sur 2013. Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía, APDHA – Giza eskubideen aldeko Andaluziako elkarte, Sevilla, 2013.

CEAR (2009): *Situación de los centros de internamiento para extranjeros en España, Informe 2009.* CEAR-Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea, Madril, 2009.

Genero-arrazoiengatiko jazarpena eta asilo-eskubidea: testuinguru globaletik tokiko konpromisora. Espainiako asilo-sistema, emakumeen eta lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen giza eskubideen urraketari dagokionez, CEAR-Euskadi, Bilbo, 2009.

CONAVIM (2010): *Glosario de términos sobre violencia contra la mujer.* Comisión Nacional para prevenir y erradicar la Violencia contra las Mujeres, Secretaría de Gobernación. Editorial Pax argitaletxea, Mexiko DF, 2010.

Lagarde y de los Ríos, Marcela (2005): *Claves feministas para mis socias de la vida.* Cuadernos inacabados, Horas y HORAS argitaletxea, Madril, 2005.

12/2009 Lege Organikoa, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzeari buruzkoa.

2/2009 Lege Organikoa, abenduaren 11koa, urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa, aldatzen duena (59 bis artikulua).

Murguialday, Clara: “Género” eta “Roles de género” hitzak, in Karlos Pérez de Armiño (zuz.): *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Hegoa eta Icaria argitaletxeak, Bilbo, 2000.

NAHIA taldea: *Los deseos olvidados. Genero eta sexu aniztasun ikuspegia Garapenerako Kooperazioan, Hiritartasun Globalerako Hezkuntzan eta etorkinek eta errefuxiatuek dituzten GGEEen sustapenean eta babesean*, ALDARTE, CEAR-Euskadi eta Iniciativas de Cooperación y Desarrollo elkarte, Bilbo, 2013.

Ruiz Vieytez, Eduardo J. (2011): *Juntos pero no revueltos. Sobre diversidad cultural, democracia y derechos humanos.* Maia Ediciones argitaletxea, 2011.

Hainbat egile: *¿Qué hacemos con las fronteras?*, Akal argitaletxea, Madril, 2013.

Los derechos de las mujeres migrantes. Una realidad invisible, Women's Link Worldwide, Madril, 2009.

Feminizidioa

México, *Estado feminicida.* La Haine, proyecto de desobediencia informativa. 2009ko azaroaren 24a.

Lagarde y de los Ríos, Marcela: ‘Claves feministas en torno al Feminicidio. Construcción teórica, política y jurídica’ hitzaurrea in Molina, E; eta San Miguel, N (koord.): *Universidad, Género y Desarrollo. I Nuevas líneas de investigación en Género y Desarrollo*, Cuadernos solidarios bildumako 3. zk., Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Oficina de Acción Solidaria y Cooperación bulegoa, R.B. Servicios editoriales argitaletxea, Madril, 2009.

Medina Rosas, Andrea: *Campo Algodonero. Análisis y propuestas para el seguimiento de la sentencia de la Corte Interamericana de Derechos Humanos en contra del Estado mexicano*, Mesa de Mujeres de Ciudad Juárez A.C. sarea

eta CLADEM (emakumeen eskubideen aldeko Latinoamerikako eta Karibeko batzordea, Mexiko DF, 2010.

Monárrez Frago, Julia: *Feminicidio sexual sistémico: víctimas y familiares, Ciudad Juárez, 1993-2004*. Gizarte Zientzietako doktoretza-tesia, Emakumeari buruzko azterketak eta genero-harremanak espezialitatean, UAM-Xochimilco, Mexiko, 2005.

Segato, Rita: *Qué es un feminicidio. Notas para un debate emergente*, Antropología departamentua, Brasilia, 2006a.

Segato, Rita: 'Territorio, soberanía y crímenes de segundo estado: la escritura en el cuerpo de las mujeres asesinadas en Ciudad Juárez', 2006b, in Femenías, María Luisa: *Perfiles del feminismo Iberoamericano. 2. liburukia*, 175.-200. or., Catálogos argitaletxea, Buenos Aires, 2005; egile berarena: «Qué es un feminicidio: Notas para un debate emergente» in Mora, 12. alea, 21.-32. or., 2006, besteak beste.

Segato, Rita: 'Femi-geno-cidio como crimen en el fuero internacional de los Derechos Humanos: el derecho a nombrar el sufrimiento en el derecho' in Frago R.L. (koord.): *Feminicidio en América Latina*, Diversidad Feminista bilduma, UNAM-CIIIECH / Red de Investigadoras por la Vida y la Libertad de las Mujeres, Mexiko DF, 2011.

Emakumeen mutilazio genitala eta behartutako ezkontzako

Guías sobre las solicitudes de asilo relativas a la Mutilación Genital Femenina, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa, Babeserako eta aholkularitza juridikorako politikak, Nazioarteko Babes Zerbitzuak atala, Geneva, 2009.

Consideraciones en materia de trata de personas desde la perspectiva del Derechos Internacional de los Refugiados y el mandato del ACNUR. Segunda reunión de Autoridades Nacionales en materia de trata de personas (OEA), 2009ko

martxoaren 25etik 27ra, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa, Buenos Aires, Argentina, 2009.

Agirregomezkorta Ibarluzea, Rosa Belén; eta Fuertes Cabrera, Irene: *La ablación o la mutilación genital femenina. Guía práctica*, Paz y Desarrollo, Málaga, 2011.

'CEAR lamenta que tenga que llegar a los tribunales la protección a las refugiadas perseguidas por motivos de género', 2009ko maiatzaren 26a, CEAR, 2009.

'El supremo otorga el derecho de asilo a una nigeriana víctima de ablación' in *El Mundo* egunkaria, 2009ko maiatzaren 23a.

'Me fui para que no me mutilaran' in *El País* egunkaria, 2009ko maiatzaren 31.

Grenznier, Joana G.: 'Mujeres y hombres en lucha contra la ablación en África y Europa hablan de los retos para su erradicación' in *Pikara Magazine* webgunea, 2013ko apirilaren 8a.

Kaplan, Adriana; eta Bedoya, María Helena: 'Emakumeen genitalen mutilazioa: asiloa, nortasuna eta giza eskubideak' in *Genero-arrazoiengatiko jazarpena eta asilo-eskubidea: testuinguru globaletik tokiko konpromisora. Espainiako asilo-sistema, emakumeen eta lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen giza eskubideen urraketari dagokionez*, CEAR-Euskadi, 2009.

2008/2071 (INI) Ebazpena, Europako Parlamentuarena, 2009ko martxoaren 24koa, EBn praktikatzen den emakumeen mutilazio genitalaren aurkako borrokari buruzkoa.

Epaia, Auzitegi Nazionaleko Auzien Salarena, 2006ko martxoaren 14koa. 429/2004 errekutsoa.

Epaia, Auzitegi Gorenarena, Administrazioarekiko Auzien 3. Salarena, 2009ko maiatzaren 11koa. 3155/2006 errekutsoa.

Pertsonak sexu-esplotaziorako salerostea

Nazioarteko babesari buruzko artezpideak: Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioko 1A (2) artikulua eta/edo 1967ko Protokoloaren aplikazioa, pertsonen salerosketaren biktima diren edota biktima izateko arriskuan dauden pertsonen dagokienez, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa, 2006

Informe de la Relatora Especial sobre la trata de personas, especialmente mujeres y niños, 2013ko abuztuaren 2a, Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2013. A/68/256.

Convenio del Consejo de Europa sobre la lucha contra la trata de seres humanos, 2005eko maiatzaren 16koa, Europako Kontseiluaren Hitzarmenak seriea, 197. zk., Varsovia. Herriaren defendatzailea: La trata de seres humanos en España: víctimas invisibles, Madril, 2012.

Seguimiento del informe presentado en septiembre de 2012. La trata de seres humanos en España: víctimas invisibles, Herriaren defendatzailea, Madril, 2013ko urria.

Estudio sobre las mujeres víctimas de trata con fines de explotación sexual en Andalucía, Instituto Andaluz de la Mujer, Sevilla, 2011.

Prevenir, combatir, proteger. La trata de seres humanos. Comentario conjunto de las Naciones Unidas a la Directiva de la Unión Europea. Un enfoque basado en los derechos humanos, ACNUDH, ACNUR, UNICEF, UNODC, NBE Emakumeak, eta LANE, Nazio Batuak, Madril, 2011.

Pertsonak sexu-esplotaziorako salerostearen aurka borrokatzeko plan integrala, 2008ko abenduaren 12koa.

Pertsonen salerosketa, bereziki emakume eta haurrena, prebenitu, zigortu eta zehatzeko Nazio Batuen protokoloa, *Palermo Protokoloa* deritzona.

Valoración del nuevo marco jurídico contra la Trata de Seres Humanos. Análisis de casos reales y recomendaciones, Proyecto Esperanza, Madril, 2010.

Voces contra la Trata, nº8, Proyecto Esperanza, 2009ko udazkena-negua.

Guía básica para la identificación, derivación y protección de las personas víctimas de trata con fines de explotación, Pertsonen salerosketaren aurkako Espainiako sarea (www.redconlatrata.org), 2008.

2011/36/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko apirilaren 5ekoa, pertsonen salerosketa prebenitzeari eta horren aurka borrokatzeari buruzkoa, bai eta biktimak babesteari buruzkoa ere, eta Kontseiluaren 2002/629/JAI esparru-erabakia, Europar Batasuna, Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, 2011.

The globalization of crime: A transnational organized crime treath assessment, Drogaren eta Delituaren Aurkako Nazio Batuen Bulegoa (UNODC), Viena, 2010.

Mujeres en los CIE. Realidades entre rejas, Women's Link Worldwide, Madril, 2012.

Los derechos de las mujeres migrantes. Almería: la historia que nadie cuenta, Women's Link Worldwide, Madril, 2011.

Mujeres migrantes en la clandestinidad. El aborto en Marruecos, Women's Link Worldwide, Madril, 2011.

Genero-identitateak eta sexu-aniztasuna

Nazioarteko babesari buruzko artezpideak, 9. Zk.: sexu-joerari eta/edo genero-identitateari lotutako arazoak direla-eta errefuxiatu-estatutua eskatzea, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioko 1A (2) artikulua eta 1967ko

Protokoloaren testuinguruan, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa, 2012.

Principios de Yogyakarta. Principios sobre la aplicación de la legislación internacional de derechos humanos en relación con la orientación sexual y la identidad de género, ALDARTE, Bilbo, 2010.

Cansen, Sabine; eta Spijkerboer, Thomas: *Huyendo de la homofobia. Peticiones de asilo por motivos de orientación sexual e identidad de género en Europa*, COC Nederland eta Amsterdameko Vrije Universiteit, 2011.

Coll-Planas, Gerard: *La voluntad y el deseo. La construcción social del género y la sexualidad: el caso de lesbianas, gays y trans*, Egales argitaletxea, Madril, 2010.

Contesse, Jorge; eta Lobera, Domingo: *Dudas sobre la efectividad de la nueva ley antidiscriminación*, 2012ko uztailaren 13a, CIPER - Centro de Investigación Periodística, 2012.

Goffman, Irving: *Estigma. La identidad deteriorada*, Amorrortu argitaletxea, Buenos Aires, 1971.

Gómez Meza, Juan O.: *Luchas maricas y derechos humanos en América Latina*, 2011.

Guasch, Óscar: *La crisis de la heterosexualidad*, 2. argitalpena, Laertes argitaletxea, Bartzelona, 2007.

La violencia al descubierto: represión contra lesbianas y homosexuales en América Latina, ICCHRLA – Latinoamerikako giza eskubideen aldeko batzorde inter-eklesiastikoa, Toronto, 1996.

Itaborahy, Lucas Paoli; eta Zhu, Jingshu: *Homofobia de Estado. Un estudio mundial jurídico sobre la criminalización, protección y reconocimiento del amor entre personas del mismo sexo*,

ILGA – Lesbianen, Gayen, Bisexualen, Trans eta Intersexualen Nazioarteko Elkarte, 2013.

2011/95/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko abenduaren 13koa, arlo hauei buruzko arauak ezartzen dituena: beste herrialde bateko nazionalak edota herrigabeei nazioarteko babesak aitortzeko baldintzei buruzkoak, errefuxiatuentzako edota ordezkotako babesak izateko eskubidea duten pertsonentzako estatutu bateratu bati buruzkoak, eta emandako babesaren edukiri buruzkoak, Europar Batasuna, Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, 2011 •



